

Euskaltzainak Bilduma

Argitaratuak:

1. *Gratien Adema*. Zaldubi Saindu batzuen biziaz. 2007
2. *Pierre Charriton*. Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Lhande*. Yolanda eta beste euskarazko idazlanak. 2007
4. *Gratien Adema*. Zaldubi Artzain beltzaren neurtitzak. 2008
5. *Antonio Arrue*. Idaztiak & Hitzaldiak. 2008
6. *Domingo Agirre*. Gutun bilduma. 2008
7. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Biziaien Hiztegia. 2009
8. *Gorka Aulestia*. Estigmatizados por la guerra. 2009
9. *Jean-Louis Davant*. Zuberoako literaturaz. 2009
10. *Gratien Adema*. Zaldubi Kantikak. 2009
11. *Santiago Ezkerra Beltza*. Lizarrusti Bizitza eta lanak. 2009
12. *Gratien Adema*. Zaldubi Prediku Zenbait. 2009
13. *Martin Maister*. Jesü Kristen imitazioea. 2010
14. *Gorka Aulestia*. Escritores euskéricos contemporáneos. 2011
15. *Gratien Adema*. Zaldubi Alegiak eta bertze neurtitzak. 2011
16. *Gratien Adema*. Zaldubi Bertze prediku batzuk. 2011
17. *Junes Casenave-Harigile*. Xiberoko antzertia edo pastoral. 2011
18. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Jon Mirande, olerkaria. 2012
19. *Jean-Louis Davant*. Antoine D'Abbadie, Abbadiaz. 2012
20. *Gratien Adema*. Zaldubi Gaineratekoen bilduma. 2012
21. *Ernest Daudet*. Amodiaren Martirra. 2013
22. *Jean-Baptiste Coyos*. Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri. 2013
23. *Pierre Charriton*. Le fondement moral des droits culturels de l'homme. (kultura eskubideen oinarri etikoak). 2013
24. *Pierre Dourisbourg*. Bahnar deitu salbaiak. 2014
25. *Mongongo Dassanza*. Albaitaritzako idazlanak (1692-1892). 2014
26. *Ignazio Omaetxebarria*. Euskara barrutik. Estudios de lingüística vasca. 2016
27. *Resurreccion Maria Azkue*. Ardi galdua. 2018
28. *Jakes Sarrailet*. Janpierra Lexardoarteren bizitza edo Basabürtiaren trajeria. 2018
29. *José Agerre Santesteban*. Biografia de Arturo Campión. 2019
30. *Adrien Gachiteguy*. Laborantza. Laborantzatik hobeki bizitzeko. 2019
31. *Joakin Berminghamen solasak*. 2020
32. *Emil Larre*. *Emil Larre 1926-2015*. *Lekukotasun, kantu eta idazki*. 2020
33. *Jean-Louis Davant*. *Ozaze Jaurgainian*. 2020
34. *Jon Casenave*. *Euskal literaturaren historiaren historia*. *Gurea nola kondoa?*

Euskaltzainak izeneko bilduman euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiarako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.



Euskaltzaindia
Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque

Laguntzailea:



34

JON CASENAVE

EUSKAL LITERATURAREN HISTORIAREN HISTORIA

Gurea nola kondoa?



EUSKALTZAINAK BILDUMA
EUSKALTZAINDIA



JON CASENAVE

Baionan (Lapurdi) jaiotako 1957ko uztailearen 4an. Euskal Ikasketetan doktorea (Bordele Montaigne Unibertsitatea). Unibertsitate bereko irakaslea eta IKER laborategiko kidea.

Euskaltzain urgazle izendatua 2003ko urtarrilaren 3In. Literatura batzordeko kidea 1993tik aitzina.

Ikerketa mailan ere lan ugari argitaratu ditu. Besteak beste:

- *De l'article de presse à l'essai littéraire : Buruchkak (1910) de Jean Etchepare*, Arg. Uned, 2002.
- *Yolanda eta beste euskarazko idazlanak*, Pierre Lhande, edizio kritikoa (Aintzin solasa, oharrak era solas-ondoa), Arg. Euskaltzaindia, 2007.
- "Pierre Lhande eta Euskal literaturaren historia", in *Jean Haritschelbar-i omenaldia*, IKER 21, Arg. Euskaltzaindia, 2008.
- "J. M. Lekuona, hitzaurre egile: Irakurle idealaren idazkera zehatza", in *J. M. Lekuonari omenaldia*, Euskaltzaindia IKER 23, Arg. Euskaltzaindia, 2008.
- "Francisque-Michel eta euskal literaturaren historia", in *Beñat Oibartzabal-i gorazarre*, Anuario del Seminario de Filología vasca Julio de Urquijo, Arg. Euskal Herriko Unibertsitatea, 2009.
- *Euskal literaturaren historiaren historia. Gurea nola kondoa?*, Arg. Utriusque Vasconiae, 2012.
- "Euskal literaturaren historiaz Koldo Mitxelena finkatu eredu historiografikoa", in *Koldo Mitxelena katedra III biltzarra*, Arg. Euskal Herriko Unibertsitatea, 2013.

JON CASENAVE

EUSKAL LITERATURAREN HISTORIAREN HISTORIA

Gurea nola konda?

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

"Ikuspegi historiografiko bat. Bigarren argitalpenari aitzinsolasa" atalaren hizkuntza-orrazketa:
Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia (HIZBEA).

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Imprimatzea: Tecnigraf, S.A.L.

ISBN: 978-84-124296-0-2

Lege-gordailua: BI 01503-2021

JON CASENAVE

EUSKAL LITERATURAREN
HISTORIAREN HISTORIA

Gurea nola konda?

EUSKALTZAINDIA

BILBO
2021

AURKIBIDEA

Ikuspegi historiografiko bat. Bigarren argitalpenari aitzinsolasa	
<i>Jon Casenave</i>	IX
Sartzea	XIII
1. Sorkuntza eta iraupena: literaturaren historia	1
1.1. Egoera berri baten ezaugarriak	1
1.2. Zer da jokoan literaturaren historian?	4
1.3. Eredu historiografikoak	10
2. Euskal literaturaren historia: hastapenak (1857-1960)	17
2.1. Filologo eta eruditoen garaia (1857-1907)	17
2.2. Lehen saioak, fundatzaileen garaian (1920-1950)	27
2.3. Bultzatzaileen ekarpena	41
3. Eredu historiografiko bat euskal literaturarentzat (1960-1980)	45
3.1. Mitxelena eta historia literarioaren eredia	46
3.2. Literaturaren historia ala euskara idatziaren historia? ...	51
3.3. Giza-zientzien ekarpena	54
4. Euskal literaturaren historia berritua (1980-2010)	59
4.1. "Historiak" ugaritu (1980 – 1996)	59
4.2. Eguneratze teoriko bat	66
4.3. Eredu berrituaren ekarpena	74
5. Eredu berritua eztabaidan	81
5.1. Zalantzan dauden arazo historiografikoak	81
5.2. Eredu berrituaren gabeziak	87
5.3. Kritikak, osaketak, xedeak	92
Konklusioa	97

Ikuspegi historiografiko bat Bigarren argitalpenari aitzinsolasa

Hamar urteren buruan, liburu honen bigarren argitalpena jalgitzen da, Euskaltzaindiari esker. Lehen argitalpenean, bi helburu banituen, hain zuzen izenburuetatik ageri zirenak. Alde batetik, “**Euskal literaturaren historiaren historia**” egin nahi nuen. XIX. mende erditik hona idatziak izan diren euskal literaturaren historia garrantzitsuenak aipatu nituen, bakoitza bere testuinguru historikoan eta giro intelektualean ezarriz.

Bestaldetik, “**Gurea nola konda?**” eman nuen azpitolu gisa. Hots, aztertu nahi nuen gure literaturaren historia nola kontatua izan zen XXI. mende hastapena arte. Beste gisa batez errateko, bilatu nuen zein izan ziren, euskal eremuan, literaturaren historialariek egin zituzten aukera historiografikoak.

Historiografiari begira, 80ko hamarkadatik aurrera argitaratuak izan ziren euskal literaturaren historiak⁽¹⁾ hartu nituen oinarri nagusizat, eta gehienbat aipatu nituen historialariak ondokoak ziren: Jon Kortazar (1990, 2003), J. B. Orpustan (1995), P. Urkizu *et al.* (2000), M. J. Olaziregi (2002), I. Aldekoa (2004, 2008). Forma eta helburuen aldetik ezberdinak izanik ere, aukera amankomun bat badute. Denek eredu his-

⁽¹⁾ Erreferentzia guziak bibliografian daude.

toriografiko berbera erabiltzen dute, hots Koldo Mitxelenak 60ko hamarkadaren hastapenean finkatu zuena, *Historia de la literatura vasca* liburuan (1960).

1960tik aurrera badirudi euskal literaturaren historialarien artean Mitxelenaren eredu historiografiko hori kontsentsuala bilakatua dela. Unibertsitatean eta eskolan ere modelo bera nagusitu da. Gisa berean, kazetetan eta telebistan hura bera da zabaltzen dena. Bestalde, sortzaile eta idazle gehienek ere onartua dute.

Ordotik aurrera eta berrogei bat urtez, euskal literaturari buruzko historiaren alorrean egin diren ikerketek eta lan gehienek Mitxelenaren eredu hura dute osatu, normalizatu, eta gisa batez hobetu. Baina, oro har, eredu normalizatu hori oso guti eztabaidatua izan da arte horretan. Bizkitartean, epe berean, euskal kulturaren egoera eta, haren baitan euskal literaturarena, erabat aldatu dira, literaturaren soziologoek (I. Sarasola, J. M. Torrealdai, etab.) ongi erakutsi diguten bezala.

Euskal Herrian berean sistema literarioa sendotu da. Eta, gisa berean, euskal literatura sartu da nazioen arteko jokoan, kanpoko herriekilako harreman kultural, literario eta ekonomikoak garatzen zirela itzulpenei esker. Norabide asko zabalduak izan dira sorkuntzari esker eta, gaiak, idazmoldeak, hizkuntza literarioa aldatu dira, baita ere idazleen soziologia. Sorkuntzaren emaitzak erakarriak izan dira euskal literaturaren historiara baita ere barneratuak molde bizkor batez, hala nola garai hartako Jon Kortazar, Marijo Olaziregi eta Iñaki Aldekoa bezalako autoreek argitaratu dituzten historietan.

Bigarren argitalpen honen bibliografia eguneratzerakoan, 2009tik aitzina agertu diren berritasunen zerrenda egin dut. Aurreko garaian ez bezala, literaturaren historiaz argitalpen guti izan da. Eta, horien artean, historia orokor bakar bat –dakidanez–, *Basqueliterature.com* webgunean sortu zena hain zuzen. Hamar bat adituren artean egina izan da, Marijo Olaziregik kudeaturik eta hainbat hizkuntzatan irakurgai. Ondotik, 2012an liburu gisa argitaratu da Renoko Unibertsitatean *Basque Literary History* izenburupean.

Eremu editorial berean, kasu berezi bat aipatu behar da: Euskal Herriko Unibertsitateak Jon Kortazarren zuzendaritzapean argitaratzen duen *Egungo euskal literatura* deitu bilduma. Bilduma osatuz joan da hamar urte hauetan: azkena *Egungo euskal literatura eta futbola* deitzen da, bildumaren 21. alea, 2020an argitaratua. Ez da, zentzu zehatzean, euskal literaturaren historia bat, gai guziak gaurko sorkuntzaren inguruan aukeratuak baitira eta sinkronian landuak. Ale bakoitzean, hainbat autorek egindako saio monografikoak bateratzen dira, ikuspegi diakronikorik eman gabe. Haatik, literatura garaikidearen ekarpenaz jabetzeko parada emanaz eta gaurko idazle nagusiak aipatuz, gisa batez, biharko klasikoen zerrenda prestatzen da, alez ale bilduma horretan.

Beraz, perspektiba historikoak aurreko garaian ezagutu duen premia galdurik ere, euskal literaturari buruzko liburuen artean berrikuntza guztiz interesgarriak izan dira. Gainera, gehienak, sartze kritiko berriak erabili dituzte. Azken hamar urte hauetan Joseba Gabilondo⁽²⁾, Jurgi Kintana⁽³⁾ edo Ibai Atutxa⁽⁴⁾ bezalako saio egileek Mitxelenaren eredu historiografikoa inarrosi dute, ikuspegi ezberdinetatik. Nagusiki, Postmodernismo, Postkolonialismo eta Genero Kritika sarbideetatik eztabaidatu dute eredu arautua, kontaketa kontrajarriak edo alternatiboak aurkeztuz. Badirudi 60ko hamarkadan abiatu zen euskal literaturaren historia orokorren zikloa gelditua bezala dela mementoan eta kritikaren garaian aurkitzen garela, zenbait urterentzat. Sorkuntzak eta kritikak erakartzen dituzten eduki berriak ari dira metatzen eta garatzen. Etoritzekoa den ondoko zikloan, hain segur, historialari berriek eduki horiek aztertuko dituzte XXI. mendeko ikuspegi historiografikoen arabera, euskal literaturaren historiaren jarraipena antolatu beharrez.

Jon Casenave

⁽²⁾ Joseba Gabilondo, *Babel aurretik*, Txalaparta, 2021.

⁽³⁾ Jurgi Kintana, *Urre urdinaren lurrina, euskal idazle galduaren bila (1810-1940)*, Pamiela, 2009.

⁽⁴⁾ Ibai Atutxa: *Tatxatuaren azpiko nazioaz*, Utriusque vasconiae, 2010; *Kanonaren azpiko nazioaz*, Utriusque vasconiae, 2012.

Sartzea

Euskal kultura osatzen ari da. Inguruko kultura garatuetan bi mendez ezagutu den bilakaera, berrogeitahamar urtez egin da Euskal Herrian. Literaturak bere eginbidea bete du osatze mugimendu hortan. Urtez urte, liburugintzaren estadistikek eta komunikabideek ongi erakutsi dute sorkuntza asko indartu dela XX. mendeko azken laurdenean. Literaturaren sorkuntzarekin batera, haren kritika garatu da kazetetan, irratietan, telebistan, «Internet» sarean eta Unibertsitateetan. Denbora berean, bigarren gerlatik lekora sortu zen euskal literaturaren historia modernoa asko aldatu da, sorkuntzaren bilakaera jaso beharrez. Hain zuzen, historia horren garapena izanen da liburu honen gaia.

Denok erabiltzen dugu Euskal literaturaren historia: lizeo eta unibertsitateko ikasle eta irakasleek, kazetariak, idazleek berek eta, erabiltzaile berezitu horiez gain, publiko zabal batek euskal kulturaz ditugun egun guzietako solasetan. Molde konziente batez edo partez bederen gehiegi pentsatu gabe, euskal literaturaren historiaz urteetan zehar erai-
kia izan den “kondaketa nagusi” bat erabiltzen dugu gure egitekoetan.

Egungo eredu hori, bigarren gerlatik landa astiro eraikia izan da. Erran daiteke Koldo Mitxelena izan dela haren lehen finkatzailea 60ko hamarkadaren hastapenean eta orduz geroz, osatuz joan dela. Denbora joan arau, aldaketak, egokipenak eta gehiketak ezagutu ditu eredu historiografiko horrek, bainan oro har, Mitxelenak eman zion egitura berdintsua atxiki du baita ere helburu berdina, hots barneko eta kanpoko transmiziorako “euskal literaturaren historia” fidagarri bat egitea. Eta alde hortarik, inguruko kulturetan egiten denarekin bat egin dugu, mende erdi batez.

Helburu horren lortzeko, auzoko kultura garatuagoetan erabiltzen diren «oinarri historiografikoak» mailegatu dira XX. mendeko bigarren partean eta euskal “ontasun” literarioari egokituak izan dira. Maileguen sailan, kanpotik hartutako metodologia eta teoria berriak giza zientzien alorretik erakarriak izan dira, batez ere. Guziz beharrezkoak izan dira mailegu horiek euskal literaturaren kritika eta historia sailentzat, eskas zuten zehaztasuna eta legitimitate zientifikoa etorri baitzaizkie egokitze eta idekitze prozesu horietatik. Bainan, lana beti presa handiko giro batean egiten zelakoan, egokitze hortan agertzen ziren arazoak ez dira beti kondutan hartuak izan.

Preseski, hori zen 1983an Txuma Lasagabasterrek “La historiografía literaria vasca. Aproximación crítico bibliográfica”⁽¹⁾ deitu zuen funtsezko artikulua batean egin zuen ohar nagusia. Artikulu hori, bihurtune garrantzitsua izan da azken urte hauetako euskal literaturaren historian, lehen gogoeta kritikoa izan baita gai hortaz. Mende bat eta erdiz, euskal literaturaren historia idatzi da bainan, haren egiteko moldea, haren oinarri teoriko eta metodologikoak ez dira menturaz aski barnatu. Txuma Lasagabasterrek, atzerapen kritikoarekin aztertu zituen ordu arteko historiak. Bainan, ez zuen bakarrik ikuspegi kritikoa landu. Haren idazlana programatikoa zen, denbora berean. Hain zuzen diagnostiko zehatzarekin batean historiografia mailako ikerketa egitarau bat proposatu zuen.

Ordutik hona, Tx. Lasagabasterrek aurkeztutako ikerketa programa hori ez da arras bete, bainan ahulezia handienak konponduak izan dira. Auzoko kultura garatuetan arte hortan landuak izan diren tresna teorikoei esker –literaturaren soziologia, poetika eta semiotikaren sailetan batez ere– egin dira konponketa horiek. Azken hamar urte hauetan ez da gure artean eztabaida handirik izan gaur egun zabaltzen eta irakasten den “historia” hortaz.

⁽¹⁾ Txuma Lasagabaster, “La historiografía literaria vasca. Aproximación crítico bibliográfica”, Las literaturas de los vascos, Ed. Deustoko Unibertsitatea, 1983.

Bizkitartean, hogeitau urte hauetan, “Euskal Literaturaren Historia” multzo polita argitaratu da. Sekulan baino material gehiago badago eskuragai eta, lehengoa baino aise hobe eta osatuagoa dela erran daiteke. Bainan, historien kopurua joriturik ere, denak eredu beretik ari dira. Badirudi denentzat onargarria den eredu bat finkatua izan dela, hein batean “kontsentsuala” dena.

Irakasle bezala, gaur egun zabaldua den “Euskal literaturaren historia” hori artoski irakasten eta hedatzen dut nik ere. Egia erran, ezin bestekoa iduritzen zait, guk ere “gurea kondatu behar baitugu” eta, kondalarien artean, irakasleok badugu erresposabilitate nagusi bat. Halarik ere, euskal literaturaren saileko ikerle bezala, badugu beste eginbide bat guziz premiazkoa: denok inplizitoki onartzen dugun ikusmoldea aztertzea.

Hori da preseski idazlan honetan hartu dudana helburua. Iraskale bezala, beraz, “irakurle profesional” gisa erabiltzen ditudan “Historia” horietatik jalgitzen den «eredu historiografiko kontsensuala» zehaztu nahi izan dut, sintesia baten moduan liburuaren lehen lau partetan. Bosgarrenean, eredu horren inguruko eztabaida zenbait aipatuko ditut, ikuspegi deskriptiboaz gain, egungo egunean gai horretaz agertzen diren gogoetak argitu nahiz.

Lehen Parte

1. Sorkuntza eta iraupena: literaturaren historia

Azken hogeitahamar urte hauetan, funtsezko aldaketak gertatu dira euskal kulturaren. Idazlan honen gaiari berehala heltzeko, liburugintzan gertatu aldaketa nagusiak baizik ez dira azpimarratu.

1.1. Egoera berri baten ezaugarriak:

– Gero eta liburu gehiago argitaratzen:

Liburugintzari doakionez, ohargarri da produkzioa urte guti barne asko goititu dela kantitate mailan. Euskal liburugintzaz Joan-Mari Torrealдай⁽²⁾ soziologoak 1976-etik hona urtero argitaratzen dituen azterketek ongi erakusten dute gorakada hori neurri handikoa izan dela:

1976: 164 titulu; 1980: 357; 1985: 650; 1990: 1.043; 1995: 1.393; 2000: 1.680; 2005: 2.076 ; 2008: 2.483.

Itxura guzieren arabera, estadistikak oso baikorrak dira. Halere, ahulezia marka batzuk badaude han hemenka. 2008ko tituluen banaketa⁽³⁾ sail ezberdinen arabera egiten bada, kontura daiteke irakaskuntzari baita

⁽²⁾ Torrealдай Joan Mari, *30 urte liburugintzan*, Jakin, 2007. Parte honetan emandako datu guztiak liburu hortatik hartuak dira.

⁽³⁾ Torrealдай Joan Mari, «Euskal liburugintza 2008», *Jakin* 176, 2010.

ere haurren eta gazteen literaturari buruzko publikazioek ekoizpenaren erdia baino gehiago osatzen dutela.

Hezkuntza – irakaskuntza: 872 - % 35; Haur eta gazteen literatura: 645 - % 26; Giza zientziak, gizarte zientziak: 447 - % 18; Helduen literatura: 302 - % 12; Zientziak, teknikak: 110 - % 4,5; Aisia liburuak: 66 - % 3; Besterik: 41 - % 1,5.

XX. mendeko azken laurdenean, euskarazko eskolatzeko prozesuarekin batera garatu dira bi sektore horiek. J. M. Torrealдай ikerlariak dion bezala⁽⁴⁾, euskal kulturarentzat premiazkoak dira bi sail horiek. Bainan, dauden neurrian, desoreka sortzen dute euskal liburugintzaren ekonomian, tokiko argitaletxeak irriskutan ezarriz epe luzerako. Bi sektore horiekin lotura handiegia dutelakoan, edozein aldaketaren menpe daude. Hortatik ageri da euskarazko argitalpengintza aktibitate berria dela eta sendotzekoa dela oraindik.

– Sorkuntza literarioa sendotu:

Euskal literaturaren historialarien oinarrizko ekoizpena, erran nahi baita sorkuntza literarioa indartu da XX. mendeko azken mende laurdenean. Helduentzako literatura kopuruz gora joan da, baita ere ezagutzaren mailan barnean eta kanpoan, sariak, itzulpenak eta azterketa kritikoa bezalako ezaugarriak kontutan hartzen badira. Halarik ere, haren baitako banaketak gabeziak erakustera ematen ditu.

Generoen artean, eleberria aise nagusi da, poesiari eta teatroari konparatuz. Hortaz, erran daiteke inguruko literatura garatuetan aurkitzen den bilakaera berdintsua izan dela hemengoan ere. Aldiz, beste sailetan eta batez ere gaur egun kanpoan gora doazen sailetan –idazkera autobiografikoak, saiakera historikoa, etb– oraindik indartzekoa da euskal literatura.

⁽⁴⁾ Torrealдай Joan Mari, «Irakaskuntzan dago gako», 72-79 or., *30 urte liburugintzan*, Jakin, 2007.

Eleberria, ipuina: % 66; Poesia: % 12; Teatroa: % 3,5; Herri literatura, berttua: % 6; Saiakera: % 3,5; Biografia, kronika, memoriaok, historia: % 4,5; Besterik: % 4,5.

Zenbakiek eta kopuru gehitzeek erakutsitako alde baikorren ondortik, alde ezkorragoak ere aipatu behar dira. Euskal argitaletzek sorkuntzari guziz idekiak izan dira azken mende laurdenean, eta hala segitzen dute. Berrargitalpenek aldiz kopuru murrizak⁽⁵⁾ osatzen dituzte. Azterketa sakonik gabe neke da jakitea eskas hori zertarik heldu den. Argitalteen estrategiatik etor daiteke, menturaz, “berritasunari” premia ematen dutelako. Edo bestenez, irakurlego gazte baten eskaerari (eskolatze prozesuak azken 30 urte hauetan sortua duena) produkzioa egokitu behar dutelako. Joera horrek ondorio ezkorrak dakarzki. Literatura saillean adibidez, arazoa garbiki ikus daiteke: inguruko kultura garatuetan epe luzean apailatzen den “klasikotze” prosezua (eskolako egitarauen bidez, sakelako bildumen bitartez) trabaturik dago euskal literaturan.

Beraz, beste kulturetan pasatzen dena kondutan hartuz, erran daiteke euskal liburugintzan eta, haren baitan, euskarazko literaturan lortu dela “normalizazio” gisako zerbait azken mende laurdenean. Bilakaera hori izan da instituzioak sortu direlako, ahalbide ekonomikoak eta ingurumen soziokulturalak garatu direlako.

– Iraupena antolatu behar:

Geroaren premia izan da XX. mendeko azken bi hamarkadetan euskal kulturaren kezka nagusia. Presa handiko giro batean eramana izan da bilaketa hori, pioneroen giroan. Literatura sailan, idazle eta aditu askoren ustez, obra unibertsal bat lortu behar zen euskarazko sorkuntzarako, ezagutza zabal baten ardiesteko gisa. Kanpoan egiten zena euskal eremu-

⁽⁵⁾ “Lehen argitalpena: 1746; Bigarren argitalpena: 280; Hamargarren argitalpena: 67. “J. M. Torrealdai, “Euskal liburugintza 2008”, *Jakin* 176, 2010.

ra erakarria izan da eta, ororen gainetik, eleberriaren nagusigoa. Idazlearen figura⁽⁶⁾ osoki aldatu da autorei egoera autonomoagoak egin izan zaizkielako eta indibiduazio urrasbide batzuk posible bilakatu direlako.

Ekonomia eta komunikazioa bateratuz, erran daiteke garai berean euskal munduaren antolatzeko molde berriak agertu direla eta liburuaren mundua (literaturarena baino gehiago) sistema konplexu bat bilakatu dela urte guti barne. Instituzionalizatzeko fase batean sartu da euskal kultura 80ko hamarkadatik aurrera. Liburugintzan, argitaratze eta banaketaren aldetik batez ere, egituren profesionalizatzeko izan da lehen egitekoa. Idazlegoarentzat berdin, profesionalizatzeko modu ezberdin batzuk garatu dira, gehienentzat bigarren lanbide baten laguntzarekin (irakaskuntza, kazetaritza, etb.).

Sorkuntza mailako bihurtzea hartuz geroz eta etorkizunaren apailaketa ekonomikoa eta sinbolikoa sendotu ondoren, bigarren oinarrizko helburu bat bazen lortzeko 80ko hamarkadatik hona: iraupena antolatu behar zen. Lan hori eskolaren munduan egitekoa zen batez ere, haur eta gazteei begira. Alde hortatik, aurreko bi mendeetan beste kultura garrantuetan izan den bilakaera adierazgarria da.

1.2. Zer da jokoan literaturaren historian?:

- Literatura eta eraikuntza nazionala Europan.

Gauza jakina Europako nazio modernoaren eraikuntzan, XIX. mendean zehar, parte handia hartu dutela literatura sortzaileek, hala nola Frantziar, Alphonse de Lamartine eta Victor Hugo bezalako poetek. Politikan sartuz, lege biltzarrean jarleku bat hartuz, eta, behar orduan, oposizioan jarritz⁽⁷⁾, nazioaren egile eta haren aldeko langile bezala agertu dira.

⁽⁶⁾ Apalategi Ur, *La naissance de l'écrivain basque*, L'Harmattan, 2000.

⁽⁷⁾ Alde hortatik, Victor Hugo eta Napoléon III.aren aurka ereman duen borroka luzea eredu garrantzitsua har daiteke.

Sortzaile gisa ere laguntza ekarri diote 1789-ko Iraultzaren ondotik berritzen ari zen naziori. Hugo-ren adibidearekin segituz, *La Légende des Siècles* (1856) neurtitzetan eman duen legendarioan, Frantziaren aurre historia (Frantzia egina ez zelarik oraindik) eta historia kondatu zituen, berak ikuspegi teleologiko batetik berreraiki zuen egituraketa epiko batean, Karlo Handitik hasiz XIX. mendea arte. Nazioaren kondaketa nagusiaren eraikitze lanean, idazleek garrantzi handiko emaitza ekarri dute.

Europako nazio gehienetan, kondaketa nazionalan parte hartzeaz gain, beste funtsezko eginbide bat bete du literaturak hizkuntza mailan. XIX. mendean edo XX. mendearen lehen partean, hizkuntza nazionalaren hedapenari baita ere normalizazioari lotua izan da sorkuntza literarioa erresuma askotan. Nazio garatuenetan, haur guzien eskolatzeko prozesuarekin batera joan da hizkuntza mailako eredu zabaltze hori, Frantziaren kasuan ongi erakutsia izan den bezala⁽⁸⁾.

– Eredua nazionalaren oinarriak.

«Frantses literatura» iraupen luzeko objektu kultural bezala garatu da XIX. mende ondarrean eta XX. mendean zehar. Helburu hori lortua izan da irakaskuntzaren sistema zentralizatzearekin batean eta hizkuntza nazionala –frantsesa– eskola bide bakartzat onartua izan delarik. Hots, eredu historiografiko nazional sendo bat eraikia izan delarik. Eredua horren emaitza ikusgarriena frantses literaturaren historia sailan agertu da. Sail hori, behin eta berriro landua izan da urte horietan frantses «izpiritu» baten erakartzeko argitara, ondoko kapituluan erakutsiko den bezala.

⁽⁸⁾ Renée Balibar, *Les français fictifs*, Ed. Hachette, 1974.

Orduko frantses literaturaren historiak bazuen lotura zuzena hezkuntzarekin eta herritar heziketarekin. Beste gisa batez errateko, behar zuten ikaslearen garapen morala bideratu baita ere haren ikuspegi nazionalista sortu eta sustatu. Hori izan da XIX. eta XX. mendeetan zehar, Frantziako eskolaren sistemak frantses literaturaren historiari luzatu dion eskaera. Eskaera horrengatik, eskolaren instituzioak eragin zuzen eta eranginkorra ukan du literaturaren historia sailan. Paraleloki, frantses literaturaren historia frantses eskolaren ardatz sendoenetarik bilakatu da, 60ko hamarkada arte, erran nahi baita literaturaren historia ikerketa gai bezala krisian sartu arte. Roland Barthes-ek garapen hori azpimarratu zuen: «Literatura da irakasten den hura»⁽⁹⁾.

«Objektu kultural» bezala eraikitzen zen denbora berean, frantses literaturaren historia tresna pedagogikotzat hartua izan da ikasleen formakuntzan. Gazteei erakutsia izan zaie frantses nazioak barna zituela erroak denboraren aldetik, Europako historian Frantzia bezala agertu baino lehen ere. Espazioaren aldetik ere, berreraiketa berdina gertatu da. XVII. mendetik hara finkatu diren Frantziako mugen artean, erran nahi baita bazterretako probintziak barne (Bretaña, Euskal Herria, Kataluña, Korsika, Oktzitania, etb.). Guziz interesgarria da ikustea XIX. mendeko erditik hara, frantses literaturaren historiak bere egin duela oktzitaneraz erdi aroan idatzi zen literatura, erakutsiz Frantziaren ondareko parte bat zela, frantses literaturaren aurre historiako parte bat, hots autonomiarik gabekoa. Napoléon III. garaian⁽¹⁰⁾, Frantziaren ondarearen bilketa orokorra egin zen probintzia guzietan, nazioaren historia berri bat idatzi beharrez. Karia horretara zituen egin Francisque Michel-ek *Le Pays basque*

⁽⁹⁾ Roland Barthes: «L'histoire de la littérature, c'est un objet essentiellement scolaire, qui n'existe précisément que par son enseignement, en sorte que le titre de cette décade "L'enseignement de la littérature" est pour moi presque tautologique. La littérature c'est ce qui s'enseigne, un point c'est tout. C'est un objet d'enseignement» in «Réflexions sur un manuel», *L'enseignement de la littérature*, sous la direction de S. Doubrosky et T. Todorov, Ed. Plon, 1971.

⁽¹⁰⁾ Napoléon III. Bigarren Inperioa: 1852-1870.

liburuan baliatu zituen ikerketak. Geroztik argitaratu diren azterketek⁽¹¹⁾ ongi erakutsi dute berrekaiketa historiografiko bat gertatu dela gai hortan. Europako anitz erresumetan, bilakaera berdintsua gertatu da, guti gora behera garai berdinean.

Mailegu horrek Euskal Herrian ukan dituen ondorioak ikusi baino lehen, literatura mailako eredu horren garapena aipatu behar da gainez gain.

– Literaturaren historia:

Literaturaren historia egileek ere eraikuntza nazionalean parte hartu zuten Europako erresuma anitzetan, XIX. eta XX. mendeetan. Sortzaile eta obra nagusien bitartez, nazioaren funts edo esentziaren garapena erakusten zuten. Erabiltzen zituzten Erromantizismo garaiko ikusmoldeen arabera, nazioaren nortasun kolektiboa bere hein gorenean zegoen neurritz kanpoko gizon emazte horien baitan⁽¹²⁾. Oinarri hortatik abiatuz, Hippolyte Taine frantses literaturaren historialariak Jean de La Fontaine idazlearen obra aztertu zuen⁽¹³⁾ erakusteko haren baitan Frantziaren izpiritua gorderik zegoela.

Gizarte baten muina eta berezitasuna (beste nazioetatik bereizgarri ager zitezkeen ezaugarriak) biltzen zituzten idazleen sorkuntza lanetan. Helburu horrengatik, askotan, literaturaren historia nazionala nazionalista bilakatu da. Frantzia edo Alemaniaren kasuan adibidez, historia literario nazionalista idatzia izan da XIX. mendetik hara eta, bi erresumen arteko gudu ideologikoan parte hartu dute historialariek bigarren munduko gerla bukatu arte.

XIX. mendeko Literaturaren Historiak biltzen zituen autoreei buruzko monografiak eta obren taula kronologikoak. Gisa hortan, ohiz-

⁽¹¹⁾ Suzanne Citron, *Le mythe national*, Ed. de l'Atelier, 1991.

Christian Amalvi, *De l'art d'accomoder les héros de l'histoire de France*, Ed. Albin Michel, 1988.

⁽¹²⁾ Paul Bénichou, *Le sacre de l'écrivain*, Ed. J. Corti, 1973; *Le temps des prophètes*, Ed. Gallimard, 1977.

⁽¹³⁾ Hippolyte Taine, *La Fontaine et ses fables*, Hachette, 1861.

ko Literaturaren Historiaren zedarriak, obra eta autore nagusiak izan dira. Obra nagusi bat, autore baten idazlan «singularra» bezala ikusia zen. «Nagusi» kalifikatiboaren ardiesteko obra eta autore aukeratuek legitimatze prozedura batzuk gainditu behar zituzten. Aukeratu eta finkatu korpus literarioetatik abiatuz, nazio literario bakoitzak bere obra nagusien “kanon”-a eta bere idazle handien “pantheon”-a egituratu zituen. Eredu horren gizarteratze prozesu batzuk antolatu dira, transmisio bide nagusia eskola sistema zelarik.

– Historia literarioa, literaturaren pedagogia:

Eskolaren bitartez biziartzen ziren Obra nagusien zerrenda (Kanona) eta Idazle handien multzoa. Pantheon nazionala pentsatua zen Nazioaren gizon-emazte handien goraiatzeko. Idazleak –lehengoak, garaikideak bezala– “pantheon” nazionalaren baitara erakarriak izan ziren XIX. mendean, hala nola Frantziar Jean-Jacques Rousseau eta Victor Hugo. Ikasleek haien ezagutzeko eta miresteko parada bazuten klasean eta eredu gisa erabili behar zituzten bizi guzian. Literatura, nazioaren esentzia parte bat izanez, idazleak beste “Gizon eta emazte” handiekin batean, batasun nazionalaren ezaugarri bezala erabiliak ziren. Frantziaren adibidearekin segitzeko, Voltaire eta J. J. Rousseau Nazio berrituaren sinbolo gisa hartuak izan ziren, 1789ko Iraultzaren denboran, baita ere mende bat berantago Iraultzaren urte muga –gatazkatsua– ospatu zelarik.

Literatura nazionala kondakizun bezala eraikitzeko eta egituratzeko, baita ere obra literarioen aztertzeko, XIX. mendeko bigarren partean, diziplina berezi bat asmatu zuten Europako literaturaren historia egileek, «Historia literarioa» deitu zutena. Frantses adibidea konparagaitzat berriz hartuz, gogoratu behar da XX. mendeko hastapenean, Gustave Lanson unibertsitarioak⁽¹⁴⁾ eta haren ondotik izan ziren Albert Thibau-

⁽¹⁴⁾ Gustave Lanson, *Histoire de la littérature française*, 1894.

det bezalakoek⁽¹⁵⁾, erakarri zituztela literaturaren alorrera Charles-Victor Langlois eta Charles Seignebos gisako historialariek finkatu urrasbide historikoak⁽¹⁶⁾. Beraz, metodologia mailan, «historia literarioa» eraiki zuten ordu arteko “literaturaren historia” tradizionalaren orde.

Laburbiltzeko, erran daiteke ez zutela gehiago literatura molde autonomoan aztertzen, lehenago egiten zen bezala. Gizartearen historia orokorraren parte bat bezala hartu zuten literatura. Haren baitan gertatutako aldaketen iturriak, Letren munduan eta berdin, Letren eremutik kanpo ere –edo batez ere– bilatzen zituzten. Noski, Staël anderearen denboratik aintzina, Letren eremuaren baitan gizarteak zuen eragina ezaguna zen bainan, Lanson-ek eta bere segitzaileek sistematizatu zituzten eremu sozial eta kulturalen arteko harremanak. Lanson-ek historialariei tresna asko mailegatu zizkien baita ere orduan sortu berria zen soziologiaren finkatzaileei.

Historia literarioaren arabera, obra nagusi bat, autore baten idazlan «singularra», «originala» da. Hiru ardatzen bitartez finka daiteke «bereztasun» hori: haren iturriak argitzen dira filologiaren bidez. Historiaren bitartez, obra nagusien kronologia eta jarraipen horren banaketa edo periodizazioa finkatzen da. Azkenik, obra horien sorkuntzaren kontestua lantzen da, soziologiak bere hastapenean ematen zituen argibideen bidez.

Ezberdintasun batzu aurki daitezke herrialdearen arabera (adibidez Frantzia eta Alemaniaren artean), bainan guti gora behera, oinarri metodologiko berdintsuak erabili dira Europako erresuma handienetan bertako literaturaren historia egiterakoan

Hots, literaturaren historialariek Europako literatura modernoaren definizio berri baten bideratze lanean parte hartu dute, sortzaileek bezainbat. “Literatura”-ren definizioa aldatzen da garaiaren arabera,

⁽¹⁵⁾ Albert Thibaudet, *Histoire de la littérature française*, 1936.

⁽¹⁶⁾ Charles-Victor Langlois, Charles Seignebos, *Introduction aux Etudes historiques*, 1898.

kulturaren arabera, baita ere garai baten baitan, hots beti erlatiboa da eta beti funtzionala. Gai guzietan bezala, gizarte mailako “hautsi-mautsi” edo “erdibide” bat bezala da. Gaur egun mundu osoan literaturaz erabiltzen den definizio nagusia, XIX. mendean finkatu da, Europako kultura garatuenetan. Literatura, iharduera estetiko autonomo⁽¹⁷⁾ bezala ikusia da geroztik.

1.3. *Eredu historiografikoak:*

– Eredu nazionala, Europako “eredu historiografiko nagusia”:

XIX. mendean zehar, Europa mailan nagusi zen “Modelo klasikoa” baztertua izan zen eta “Modelo nazionala” finkatu zen haren ordez. Modelo nazionalari eratzikia izan zitzaion “eredu historiografikoan”, literaturaren historia beti⁽¹⁸⁾ izan da literatura berezi baten historia⁽¹⁹⁾, hots, hizkuntza batean idatzia izan dena (gehienetan nazionala) eta eremu konkretu batean (gehienetan, nazio batena, nazio egina ala egiteko bidean zena).

Europa mailan gertatu zen aldaketa hori. “Eredu nazional ezberdinek” oinarri eragingarri nagusi batzuk partekatzen dituzte. E. Hobsbawm-ek⁽²⁰⁾ edo A. M. Thiesse-k⁽²¹⁾ erakutsi duten bezala, nazio edo jendalde bakoitzak bere ondare ezberdinen artean, ontasun literarioa sarrarazten du.

⁽¹⁷⁾ Pierre Bourdieu, *Les Règles de l'art*, Seuil, 1993.

⁽¹⁸⁾ Salbuespen batzuk:

- Ernst-Robert Curtius, *La littérature européenne et le Moyen-âge latin*, PUF, 1956 (frantses itzulpena)

- Jean-Louis Backès, *La littérature européenne*, Belin, 1996.

⁽¹⁹⁾ “Eredu nazional” horren adibide gisa, Gustave Lanson frantses irakasleak idatzi zuen *Histoire de la littérature française*, (1895) eman daiteke, beste askoren artean.

⁽²⁰⁾ Eric Hobsbawm, *Nations and nationalism since 1780*, 1990.

⁽²¹⁾ Anne-Marie Thiesse, *La création des identités nationales*, 1999.

Historia mota horren helburuak eta metodoak XX. mende guzian eztabaidatuak izan dira, Sartre⁽²²⁾, Barthes⁽²³⁾, Jauss⁽²⁴⁾ bezalako autoreek sortu zituzten kritikak lekuko. Halarik ere, metodologia arazoez gain, «eredu nazionala» da gehienik irakatsia izan den –eta oraindik irakasten den– modelo edo patroia Europako herrialdeetan. Gainera, Bigarren Gerlatik lekora eta Dekolonizazioaren garaian, hirugarren munduko erresuma anitzek eredu nazionala berenganatu dute beren literaturaren historia idazteko orduan.

– Zibilizazio mailako eredu, Europako literaturen historiak:

Eredua nazionalaren aurrean beste aukera garrantzitsu bat agertu zen XX. mendeko bi gerla nagusien artean, “eskola alemana”k sortu zuena hain zuzen. Eskola horren gidari bezala, Ernst-Robert Curtius, Erich Auerbach eta Leo Spitzer izan ziren. XIX. mendeko filologo ezagunen (Grimm anaiak, Bopp, etb.) jarraitzaile horiek, literaturaren historia nazionaletik (gehienetan nazionalista) hara jo nahi zuten. E. R. Curtius-ek adibidez garbiki erakutsi nahi zuen literatura ez zela berenaz patriotikoa. Alemanez idatzitako literatura ateratu gogo zuen Herder-en garaitik Wagner-renera arte azkartu zen nazionalismo kulturaletik.

Kritakari horien obra nagusiek⁽²⁵⁾ hizkuntza eta erresumen gaineko eremu kultural zabalago bat ideki nahi zioten irakurleari, hain zuzen Europa zahar eta modernoaren neurritakoa. Mendebaldeko zibilizazioa zuten gogoan, Zahar Arotik XX. mendea arte garatu dena. Europako literaturaz egin zuen liburuan, Curtius-ek lehen kapituluaren idazten zuen

⁽²²⁾ Jean-Paul Sartre, *Qu'est-ce que la littérature?*, Gallimard, 1947.

⁽²³⁾ Roland Barthes, «Histoire ou littérature?» in *Annales*, 1960.

⁽²⁴⁾ Hans-Robert Jauss, «Histoire de la littérature», in *Pour une esthétique de la réception*, Gallimard, 1978 (frantses itzulpena).

⁽²⁵⁾ Obrek frantses itzulpenean dakarten izenburuarekin zitatuak dira: Ernst-Robert Curtius, *La Littérature européenne et le Moyen-âge latin*, 1947- 1956 frantses itzulpenarentzat; Erich. Auerbach, *Mimesis*, 1946 – 1968, frantses itzulpenarentzat; Leo Spitzer, *Etudes de style*, 1970 frantses itzulpenarentzat.

25 mende baduela Literatura europarrak, Homerotik Goethe-raino eta aintzina. Ez zuen bere osotasunean aztertu, Erdi Arotik aurrera egin dena, latinez idatzitakoa ez baitu hartu aztergai nagusitzat. Hala izanik ere, 25 mendeko jarraipen eta ondokotasun moldeak erakutsi zituen. Garbi dago harentzat –eta gauza bera erran daiteke Auerbach eta Spitzer-rentzat– hizkuntza eta erresuma berezien gaindi iraun duen “ezaugarri europear amankomuna” zibilizazio mailako ezaugarria dela. Nahiz asko estimatuak izan diren beren garaian, liburu horiek ez dute eredu aldaketa bat eragin Europa mailan. “Eredu nazionala”-ren nagusigoak aitzina segitu du XX. mende ondarra arte.

– Kontra-ereduak eta beste alternatibak:

Bigarren Gerlatik landa, “Dekolonizazio” prozesua abiatu orduko, Europak bere kolonietara jadanik zabaldua zuen literaturaren eredu historiko nazionala. Geroztik hona, eredu horrek bi egoera ezberdin eza-gutu ditu. Zenbait erresuma berritan “eredu nazionala” mailegatua izan da eta egokitua tokiko literaturari. Beste zenbaitzutan aldiz, kontra-eredu batzuk eraikiak izan dira.

Kontra-ereduek bi oinarri nagusi dituzte: alde batetik Europako ikuspegi ethno-zentrista salatzen du; bestaldetik, tokiko historiatik abiatuz, ikuspegi berri bat sortzen dute. Kontra ereduaren historian luzatu gabe, Aimé Césaire⁽²⁶⁾ eta Frantz Fanon⁽²⁷⁾ aipatu behar dira. Biek, Euro-par –frantses, batez ere– dekolonizazioren ikuspegi alternatiboa landu zuten 50eko hamarkadaren erditik aurrera. Bainan, ordu hartan egituratzen ari zen Hirugarren Munduan berean ere kontra eredu nagusi batzuk agertu ziren.

⁽²⁶⁾ Aimé Césaire, *Discours sur le colonialisme*, Présence africaine, 1955; *Cabier d'un retour au pays natal*, Présence africaine, 1956.

⁽²⁷⁾ Frantz Fanon, *Les damnés de la terre*, Présence africaine, 1961.

Afrikan, Cheik Anta Diop⁽²⁸⁾ senegaldarra bezalako historialariak⁽²⁹⁾ Europako historiografiari oldartu zitzaizkion. Zahar Aroko Greziatar eta Erromatarren historia baino lehen, Egiptokoa izan zela zioten. Haren ustez, hango historia, jende beltzeen historia izan zen parte handi batean. Beraz, ikuspegi europeozentrista batetik eginga izan zen kondaketa historiko guzia bermoldatu behar zela idazten zuten. Gisa berean, Indiako *Subaltern studies* deitu aldizkarian⁽³⁰⁾ eta mugimendu historikoan parte hartzen zuten tokiko historialariak⁽³¹⁾ ere, Europako ikuspegiari alternatiba⁽³²⁾ eraiki nahi zuten.

Edward Saïd-ek XIX. mendeko europar konkistatzaileek “Ekialde hurbila” (Turkia, Siria, Egipto, Palestina, etb.) deitzen den eskualdeaz eraiki zuten diskurtso orientalista aztertu eta desegin zuen *Orientalism* (1978)⁽³³⁾ liburuan. Metodología berdina erabiliz, mundu osora zabaldu zuen bere kritika *Culture and Imperialism* (1993)⁽³⁴⁾ obran. Erakutsi zuen munduko beste parteez aiseago jabetzeko Europak nagusigoaren pentsamendu sistema erretoriko bat eraiki zuela XVIII. mende ondarretik aurrera. Mendebalako zibilizazioa “Barbaroei” ekarri ziela idaztearekin batean, beste ideia nagusi eta figura batzuk pasa arazi zituzten, hala nola “Ekialdeko giro misteriozua”, “Afrikanoen lazakeria eta haur izpiritua” edo “Txinako eta Indiako zibilizazioen ezin bestezko dekadentzia”.

Kontra-eredu horietarik bat aurkeztekotan, Karaïbetakoa aipa daiteke. Edouard Glissant⁽³⁵⁾, Raphaël Confiant⁽³⁶⁾ eta Patrick Chamoise-

⁽²⁸⁾ Cheik Anta Diop, *Antériorité des civilisations africaines, mythes ou vérité historique*, Présence africaine, 1967; *Civilisation ou Barbarie. Anthropologie sans complaisance*, Présence africaine, 1981.

⁽²⁹⁾ V. Y. Mudimbe, *The invention of Africa*, Indiana University Press, 1988.

⁽³⁰⁾ *Subaltern Studies*, 1981-1996, Delhi.

⁽³¹⁾ Ranajit Guha, Partha Chatterjee, Dipesh Chakrabarty, Gyatri Spivak, besteak beste.

⁽³²⁾ Dipesh Chakrabarty, *Provincializing Europe. Postcolonial Thought and Historical Difference*, Princeton University Press, 2000; *Provincialiser l'Europe. La pensée postcoloniale et la différence historique*, Ed. Amsterdam, 2009.

⁽³³⁾ Edward Saïd, *Orientalisme*, Seuil, 1980.

⁽³⁴⁾ Edward Saïd, *Culture et impérialisme*, Fayard, 2000.

⁽³⁵⁾ Edouard Glissant, *La lézarde*, Gallimard, 1958; *Le Discours antillais*, Gallimard, 1997.

⁽³⁶⁾ Raphaël Confiant, *Ravines du devant du jour*, Gallimard, 1993; *Eloge de la créolité*, (Jean Bernabé, Patrick Chamoiseau, Raphaël Confiant), Gallimard, 1989.

au⁽³⁷⁾ idazleek “Antilles” (Haiti, Guadeloupe, Martinique, Guyanne) eskualdeko historia kultural alternatiboa landu dute eleberri eta saiakera batzuen bitartez. *Lettres créoles* (1999)⁽³⁸⁾ deitu liburuan Antilles-tako literaturaren kontra-historia (XVII-XX) bat idatzi dute, hango idazki hatzak eta puskak oinarritzat hartuz. Erran gabe doa, XX. mendea arte, dokumentu idatzi oso guti aurki daitekeela eta daudenen artean, jende zuriak egindako lekukotasunak dira gehienak, hots, gehiengo beltz eta meztizatuaren menperatzaileek idatzitakoak.

Halarik ere, Karibetako jendeen historia kulturala “gabezien kondaketatik” eraiki dute. Kultura idatziaren hutsuneak bete dituzte eskuragarri ziren dokumentuen bitartez. Esklabo beltzen eta gero, kreolar hiztunen ahozko kultura aztertu dute, iturri ezberdinak erabiliz. Horrela juntatu dute dokumenturik gabeko mundua XX. mendeko literatura idatziari. Beharrez, konzepto eta hitz berriak sortu dituzte, hala nola “oraliture”-rena kreolazko sorkuntza-ren hastapenen erakusteko: ipuinak, asmaketak, kantuak, atsotitzak, etb.

XX. mende ondarrean, literaturaren historia nazionalaren nagusigotik jalgitzeko, beste kondaketa alternatiboak agertu dira. Adibide bat emaitokotan, Franco Moretti-ren perspektiba geografikoa aipa daiteke. Bere liburu ezagunenean⁽³⁹⁾, Europako eleberrigintzaren historia XIX - XX erraberritzen du fikzioen kokalekuen garapena kurutzatuz Europako historiaren datu nagusiekin. Literaturaren historiaren aztertzeko, mapak, diagramak eta leinuen osatzeko arbolak erabiltzen ditu, beste liburu batean⁽⁴⁰⁾. Horrela eginez, autoreei buruzko diskurtso biografikotik baita ere obrei aplikatzen zaien testugintzaren metodologiatik ateratu nahi luke literaturaren historia.

⁽³⁷⁾ Patrick Chamoiseau, *Texaco*, Gallimard, 1992; *Ecrire en pays dominé*, Gallimard, 1997.

⁽³⁸⁾ Patrick Chamoiseau, Raphaël Confiant, *Lettres créoles*, Gallimard, 1999.

⁽³⁹⁾ Franco Moretti, *Atlante del romanzo europeo*, Einaudi, 1997; *Atlas du roman européen*, Seuil, 2000.

⁽⁴⁰⁾ Franco Moretti, *Graphs, maps, Trees*, Verso, 2005; *Graphes, cartes et arbres*, Les prairies ordinaires, 2008.

– Euskal literaturaren historiak: Eredu orokor baten bila.

Ondoko kapituluetan, euskal literaturaren eredu historiografiko modernoaren oinarriak bilatuko dira. Bainan, ikusi behar da egungo eredu hori astiro nagusitu dela, bi mende eta erdiren bilakaera baten ondotik hain zuzen. Haren finkatzeko, literaturaren historialariek inguruko kultura garatuetan erabilia zen “eredu nazionala” bertaratu dute. Koldo Mitxelena izan da 60ko hamarkadan, kanpoan garatutako eredu horren oinarri teorikoak eta historikoak lehen aldirako erabili dituen historialaria, *Literatura vasca* (1960) deitu liburuan.

Haren ondotik, euskal kulturaren inguruko kulturetan bezala, XX. mendean zehar kanpoan indarrean ziren oinarri metodologikoak eta kritikoak erabili dira. Egungo egunean, orotan egiten den gisa berean, euskal literatura aktibitate estetiko autonomo bezala definitzen da. Ondorioz, definizio kontsentsuala ematen diogu literaturari: ez ditugu gehiago euskara idatziaren historia eta euskal literaturaren historia nahasten. Helburu estetiko batekin idatziak izan diren testuak baizik ez ditugu onartzen literario bezala. Horrengatik, XX. mende erdia baino lehen idatziak izan diren testuen parte handiena euskal literaturaren oinarritzko korpusetik baztertuak dira.

Euskal literaturaren historiari, Francisque Michel historialariak eman zion hasiera 1857an, *Le Pays basque* deitu liburuarekin. Haren ondotik, Julien Vinson-ek kapitulu bat idatzi zuen gai hortaz *Les Basques* (1880) izeneko monografian. Biak kanpotik etorritako eruditoak ziren. Hastapeneko garai hartarik hona, beste zenbait garai izan dira, bakoitza bere ezaugarri historiko eta literarioekin. Orotara, lau une historiko ezberdin proposatuko dira ondoko kapituluetan.

Erudito eta filologoen abiatu hastapenen ondotik, lehen saio orokor-
rrak egin ziren euskal literaturaz, erran nahi baita hegoaldeko eta ipar-
raldeko idazlanak kondutan hartzen zituztenak. Munduko bi gerlen
artean egin ziren. Pierre Lhandek, *Le Pays basque à vol d'oiseau*, argitaratu
zuen 1925ean eta, liburu hartan, parte luze bat egin zuen literaturaz.

Garai berean, Orixek ere euskal literaturaren historia bat idatzi zuen eta Jean Saint-Pierrek artikulua luze bat argitaratu zuen euskaraz egindako elizako literaturaz. Bigarren Munduko Gerla denboran eta gerlatik landa, Piarres Lafitte bezalako filologo batzuk ari izan ziren literaturaren historiaz, baina, ez ziren gaian biziki barna sartu.

Gorago aipatu bezala, 1960an, Koldo Mitxelenaren *Literatura Vasca*-rekin abiatu zen euskal literaturaren historia modernoa. Erran daiteke, liburu horrek hirugarren garai bat ideki zuela euskal literaturaren historiografian, kanpoan guziz ezagunak ziren funtsezko konzepto batzuk erakarri zituelako euskal eremura, hala nola «eredu historiografiko nazionala». Mitxelenarekin eta haren jarraitzaileen bitartez ere, kultura garatuetako eskola historikoen metodologiak eta giza zientzietatik zetorren eragina nagusitu ziren euskal alorrean.

1980ko hamarkadatik hona, garrantzi handiko berritze teoriko bati esker, euskal literaturaren historia bere laugarren garaian sartu da, gaur egun iduriz oraindik bizi duguna. Estrukturalismoaren ildotik sortu ziren metodologia berriak, testugintzan, poetika eta semiotika arloetan garatutakoak batez ere 80ko hamarkadan, euskal eremura sartu ziren orduko kritika literarioaren berritzeko gisa. Lau garai horiek aipatuko dira kronologikoki datozen kapituluetan, erakusteko zein izan diren orain arteko euskal literaturaren historiak eta zer baldintzetan eginak izan diren.

Bigarren Partea

2. Euskal literaturaren historia: hastapenak (1857-1960).

Euskal literaturaren historiaz idatzi ziren lehen ikerketa lanak kanpoko jendeek egin zituzten. Frantses mundu akademikotik heldu ziren Francisque Michel eta Julien Vinson bezalako ikerlariak ausartu ziren ikuspegi orokor batzuen idaztera, XIX. mendeko bigarren partean.

Bigarren imperioaren garaian (1852-1870), Frantziako probintzieta-ko ondare bilketa mugimendu zabal bat abiatu zen, instituzio politikoek bultzaturik. Garai hartan, hizkuntza, kultura eta literatura sailetan, inkesta handiak egin ziren. Mundu akademikoan, ainitzek uste zuten frantses kultura bihurgune batean zela. Ordu arte izan ziren eginmolde, pentsamolde eta kultura mailako produkzio herrikoi asko desagertzeko arriskutan zeudela adituek argi ikusten zuten. Francisque Michel-ek eta Vinson-ek mugimendu akademiko hortan parte hartu zuten, Euskal Herriaz liburu nagusi batzuk argitaratu zituztelarik. Bi idazlanak ikuspegi beretik eginak ziren. Haientzat garbi zen Euskal Herria Frantzia aberri handiaren baitan sartzen zela, Okzitania, Bretaña eta beste «aberrri tipiak» bezala.

2.1. *Filologo eta eruditoen garaia (1857-1907):*

– Francisque Michel (1809-1887):

Francisque Michel-en *Le Pays basque* izan da Euskal Herriaz, frantsesez, egin den lehen monografia sakona. 1857an argitaratu zuen. Azpiti-

tuluaren arabera⁽⁴¹⁾, erran daiteke aurkezpen orokorra dela. Besteak beste, ondoko gaiak aipatzen zituen: jendea, hizkuntza, bizimoldeak, literatura eta musika.

Liburuaren edukia:

Aurkibideak⁽⁴²⁾ argiki erakusten du Francisque Michel-ek ez duela bereizten sorkuntza literarioa bere kontestutik. Azalpen historiko batekin abiatzen da, euskal jendearen aurkezteko eta xehetasun geografikoak eta soziologikoak (jende kopuruak eskualdeka, etb.) ematen ditu. Euskarari buruzko oharrekin jarraitzen du bere aurkezpena, garai hartan bil zitezkeen xehetasun fidagarrienak emanez. Sorkuntzaren ulertzeko behar diren beste ohar anitz ematen ditu ere, hala nola bizi eta pentsa moldeak baita ere dibertitzeko ohidurak.

Literaturaren aurkezpena:

Francisque Michel-ek literaturaren sailak oro aurkeztu zituen, orduko sailkapen moduak erabiliz. Herri literaturan garatu zirenak luzaz aipatu

⁽⁴¹⁾ «*Le Pays basque. Sa population, sa langue, ses mœurs, sa littérature et sa musique*»

⁽⁴²⁾ *Table des matières:*

- I. Le Pays basque.
- II. L'escuara ou la langue basque.
- III. Les proverbes basques.
- IV. Représentations dramatiques chez les Basques.
- V. Les amusements du peuple basque.
- VI. Les contrebandiers basques.
- VIII. Superstitions du Pays Basque:
- XI. Pêches et découvertes des Basques dans les mers du Nord; émigrations de ce peuple dans l'Amérique du Sud.
- X. Mœurs, usages, costumes des Basques.
- XI. Poésies populaires des Basques.
- XII. Musique basque.
- XIII. Bernard d'Echepare.
- XIV. Arnauld Oihenart.
- XV. Pierre d'Axular.
- XVI. Bibliographie basque.
- XVII. Conclusion.

zituen, hala nola ahozko literaturan sailkatzen zirenak: kantuak, antzerki mota popularrak (asto lasterrak, pastoralak, tobera-mustrak), atsotitzak. Bestalde, idatziari lotuak ziren sailak landu zituen, erran nahi baita, liburuaren kulturaren baitakoak. XVI eta XVII. mendeetako hiru autore nagusiei (Dechepare, Oihenart eta Axular) egin zien bedera monografia bat.

«Euskal bibliografia» deitu zuen kapituluan, ordu arte euskaraz idatziak izan ziren obren erreferentziak bildu zituen. Ordurako bil zitezkeen datuak ezarri zituen kronologiaren arabera: erlijioaz ari zirenak eta besteak. Azken sail honetan, alegiak aipatu zituen baita ere gizarte gaien tematikan sartzen ziren obra bakar batzuk (ad. Iztueta-ren *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira*, 1824).

Kantu bilduma:

Bainan, kantuen kapitulua zen, dudarik gabe, osatuena. Berrehun orrialde baino gehiago baitzituen eta 1994-ko berrargitalpenean P. Lafittek zionez, liburu oso baten gaia bazen parte horretan berean. «Poésies populaires des Basques» kapitulu hortan korpus zabal bat aurkeztua zen, XIX. mendean eta ondokoan ere oinarri bezala agertu zena. Francisque Michel-i esker «multzo koherente» bat bezala agertu zen lehen aldirako euskal kantu bilketa hori, beste eremu kulturaletan egin zirenen hein berekoa: Grezian, Alemanian, Frantzian, Lituanian, etb.

Hogei orrialdeko sartze historiko baten ondotik, kantuak eman zituen. Horrela sailkatu zituen: «Chants historiques; Chansons politiques; Légendes poétiques, Chants funèbres; Romances; Chants de Montevideo; Mes Méditations; Chansons morales; Satires; Chansons diverses».

Bilketa horrek alde guziz onak bazituen. Lehen aldia zen horrelako bilduma nasaia argitaratzen zela. Garai berean, A. Xahok kantu horietarik anitz agerrarazi zituen *Ariel* aldizkarian eta *Biarritz et ses alentours*⁽⁴³⁾

⁽⁴³⁾ *Biarritz entre les Pyrénées et l'océan*, (1850) delakoan, korpus mugatu bat baizik ez du argitaratu Xahok. Bere kantutegia esku-izkribu bezala gelditu zen eta XXI. mende hastapenean publikatua izan da P. Urkizu-ren eskutik: *Agusti Chaboren kantutegia*, Ed. Susa, 2006.

deitu liburuan. Eta Francisque Michel-ek kantu horietarik frango hartu zituen bere liburuan sartzeko. Bainan, kopuruaren aldetik baita ere argitalpenaren zehaztasunari begira, ez da dudarik premia handiagokoa izan zela Francisque Michel-ena Xaho-rena baino.

Halarik ere, gaurko irakurle eta ikerle batentzat, arazo zenbeit sortzen ditu Francisque Michel-en bildumak. Lehenik, gorago erran bezala, ikusi behar da bigarren eskuko lana dela: bilketa beste batzueganik hartua zuen autoreak. Hain zuzen, azpimarratu behar da berak zehazki eta leialki eman zituela oin-oharretan erabili zituen iturriak. Gauza bera erran daiteke itzulpenarentzat, nahiz berak hein batean landua zuen euskara, besteen lanetik ari izan zen. Eta ez da batere garbi hautaketa zenbatetaraino Francisque-Michelena den.

Iturrien problemarekin segitzeko aise konturatzen ahal da informatzaileak ez direla denak kalitate berekoak. Horietarik zenbait faltsukerian ari izan ziren hala nola Garay de Monclave⁽⁴⁴⁾, *Altabiscarko* kantuaren adibide famatua lekuko. Halarik ere, orduko euskalzale ezagutuenak hartu zituen informatzaile eta laguntzaile bezala, ondoko punduan ageriko den bezala.

Bainan, kantuen parte horretan aurkitzen den arazo handiena sailkatzeko moldetik heldu da, eta hori bi maila ezberdinetan. Gaurko ikuspegi kritiko batetik nahasketa handia bada Francisque Michelek erabili zituen sailen aldetik. “Légendes poétiques”, “Chansons morales”, “Romances” edo “Satires” deitu sailak guziz onargarriak dira, alde batetik beste eremu kulturaletan era berdinean erabiltzen baitziren eta, bestaldetik, egileak berak ongi aztertu eta justifikatu baitzituen bilduman. Aldiz, ez da gauza bera erraten ahal “Chants de Montevideo” edo «Mes Méditations» sailentzat, besteak beste. Lehenean, 1853-an Urruñan

⁽⁴⁴⁾ Garay de Monclave-n argitalpena 1834ekoa da. Bere liburuan (234-235 or.) Francisque Michele-k bere dudak azaldu zituen dokumentuari buruz, arrazoien tekniko batzueganatik bainan, iduriz, ez zuen kantuen aspaldikotasunaz duda izpirik.

ospatu Euskal Pestetan⁽⁴⁵⁾ aurkeztuak izan ziren obra zerrenda murriztzen baten gainean oinarritu zen kantu tradizio baten osatzeko, gainera funtsezko batzuk batzertu zituelarik (J. M. Hiribarren⁽⁴⁶⁾). Gisa berean, “Ene goguetac” (Mes méditations) Camoussarry-ren olerki bakarrarekin –aukera argitu gabe– sail bat ideki zuen, horretan berean utzi zuena.

Genero edo sailen arazoaz gain, kronologiaren aldetik dagoen nahasketak ere traba nagusi batzuk ekartzen ditu gaurko irakurlearentzat: “Chants historiques” deitu sailean, adibidez, “Beotibarreko gudua” Erdi aroko gertakari baten kronika ezarria izan da XVIII. mendeko “Belzunce bizcondea”-ren ondoan eta “Nacioenaco besta” Frantses iraultzaren denborakoarekin batera

Erreferentzien sistema:

Sailkapena gaurko irakurle batentzat doi bat ez ohizkoa izanik ere, berehala ohar daiteke egiazko ikerketa lana dela Francisque Michel-ek argitaratu zuena. Ezaugarriak non nahi badira eta lehen lehenik ikusi behar da askotan oinarritzko testuak –euskarazkoak– ezarri zituela liburuan, horietatik zenbaitzu, argitaratu gabeak⁽⁴⁷⁾ zirelarik. Atsotitz asko eman zituen euskaraz itzulpenarekin baita ere, ezker eta eskuin bildu zituen kantuen testuak. Indar bera egin zuen hiru idazle («Bernard D’echepare», «Arnauld Oihenart», «Pierre d’Axular») klasikoen idazlanak aztertu zituelarik, olerki eta prosen zati luze batzuk ezarriz. Euskarazko testuarekin batean, frantses itzulpena eman zuen. Pastoralak ere, euskarazko zatiak artekaturik agertu ziren, Francisque-Michelek egin laburpenetan.

Hizkuntzari buruzko oharrak ere aurki daitezke liburuan, adibidez, kantuetan erabilitako euskalkien erreferentzia. Bestalde, adierazpen frango ezarri zituen Francisque Michel-ek euskarazko prosodiaz edo

⁽⁴⁵⁾ “Euskal Pestak”, Antoine d’Abbadie-k antolatutak.

⁽⁴⁶⁾ J. M. Hiribarren, *Montebideoco berriak*, 1853.

⁽⁴⁷⁾ Ad. Jean-Baptiste Camoussarry, «Ene goguetac».

metrikaz eta prosarentzat ere ohar frango egin zituen. Konparazioe, Axularren prosa aztertu zuelarik Sarako idazleak ezagutu zituen oztopoak komentatu zituen, ortografia, hiztegitik eta joskera sailetan besteak beste.

Askotan edo ahal zuelarik, testuaren autorea zitzate zuten, hala nola «Chants de Montevideo» sailetik hartutako adibidean: «La seconde pièce qui a pour auteur un certain Martin Eguiateguy...». Francisque Michel-i esker ziren lehen aldirako agertu izen deitura batzuk euskal literaturaren historian: «Les vers qui suivent sont d'un jeune prêtre de Ciboure nommé Camoussary».

Bainan, askotan zoritxarrez, kantuak argitaratu zituen egilearen izenik gabe. Ezin bestekoa baldin bazen eresi zaharren kasuan (*Urrutiko anderea*), doi bat harrigarria zen Etxahun-Barkoxe-ren bertsoak erabili zituelarik: “Oficio cerbaiten critica” (Subertorra - Oi, laborari gachoa...), “Arçañe negligentiac” (Belhaudico bortian) edo “Eihartxe ta Miñau”⁽⁴⁸⁾, izenbururik gabe eman zuena. Francisque Michel berak zion Archu-ren bildumatik hartu zituela kantu horiek. Ez da dudarik Archu-k bazakiela koblakariaren izena. Gainera, “Bibliographie” deitzen den azken kapituluan, «Pierre Topet dit Etchaoun» bi aldiz aipatu zuten inprimategi batean argitaratu zituen bertso-paper batzuegatik. Bainan, badirudi ez zuela Francisque-Michel-ek loturarik egiteko molderik izan bildu zituen informazioen artean.

Halere, gehienetan, biltzailearen izena edo haren aurkitzeko ukan zuten bitartekaria edo iturria, (Chaho, Duvoisin, etb.) zehazki eman zituen. Gauza bera, kanpotik heldu ziren bidaiari eta jakintsunen (Bladé, Boucher de Perthes, etb.) idazlanak erabili zituenean. Sorpresarik gabe, garai hartako euskalzale eta ikertzaile ezagunen deiturak agertu ziren erreferentzien zerrenda luzean: Archu, Antoine d’Abbadie, Belzunce, Chaho, Darrigol, Duvoisin, Harriet, Inchauspe, etb. Bainan, beste zen-

⁽⁴⁸⁾ Ikus, *L’Oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun*, J. Haritschelhar, Ed. Euskaltzaindia, 1970.

beit badira ezezagun egiten zaizkionak egungo irakurleari: Bordachar, Mauleko apez bat eta Laphitzondo, Donazaharreko gizon gazte bat, Bordeleko lizeoan ari izan zena. Bere aldetik, 1944ean liburua berrargitaratu zuenean, P. Lafittek bi izen azpimarratu zituen laguntzaile hurbilan artean: Duvoisin, eta Etcheverry, Heletako errienta.

Francisque-Michelek konparaketak maiz erabili zituen erreferentzia gisa. Antzerkientzat, Bretañan, Artois eta Roussillon eskualdetan, baita ere Alemaniako eta Austriako parte batzuetan egiten ziren antzerki popularrak —Pastoralak edo asto lasterrak bezalakoak— aipatu zituen. Pastoralentzat, Erdi Aroko «Misterioek» eta “La Bibliothèque bleue” bildumak hedatu gaiek ukan zuten eragina zitatu zituen, besteak beste.

Euskal kantu zaharren aztertzeke, Grezia zaharreko Homero eta poeta latindarrak (Virgilio, Horazio, etb.) aipatu zituen konparagai bezala. Gisa berean, Ossian-en⁽⁴⁹⁾ kantuak, Bretañako⁽⁵⁰⁾, Bohemiako edo Grezia modernoko⁽⁵¹⁾ kantu bildumak erabili zituen. Bere garaiko biltzaile famatuenen izen deiturak atxeman daitezke *Le Pays basque* liburuan: Cl. Fauriel, J. Grimm, G. de Nerval, etb.

Idazlan argitaratuentzat, jakitate berbera aurkitzen da bai idazleen aldetik (Marie de France, Pétrarque, Marot, Cervantes, Shakespeare, François de Sales, Bossuet, etb.) baita ere argitaratzaileen aldetik (Euskal testuen argitaratzaileen erreferentziak⁽⁵²⁾ xeheki emanak dira: urtea, edizioa, hiria, etb.).

Erran gabe doa, lehen aldia zela horrelako lan dokumentatua agertzen zela euskal literaturari buruzko ikerketa batean. Garbi dago ofiziozko biltzaile baten egiteko moldeak erakutsi zuela sail hortan Francisque Michel-ek.

⁽⁴⁹⁾ James Macpherson, *Fragments of Ancien Poetry collection in the Highlands of Scotland and translated from the Galic or Erse langage*, 1760.

⁽⁵⁰⁾ Hersart de la Villemarqué, *Barzaz-Breiz*, Paris, 1839.

⁽⁵¹⁾ Claude Fauriel, *Chants populaires de la Grèce moderne*, Paris, 1824.

⁽⁵²⁾ Ikus «Bibliographie» kapitulua.

Euskal literaturaren aurkezpenari buruzko ohar historiografiko zenbait:

Plangintza orokorra ikusi eta, erraten ahal da autorea ez dela gure ikuspegi modernotik oso urrun. Begien bistakoa da sorkuntza literarioa ez duela bere ingurumenetik bereizi nahi. Doi bat ahantzia baldin bada ere, oroitu behar da XIX. mendeko literaturaren historiolariek, gizarte konkretu batzuei lotu nahi izan zutela sorkuntza literarioa: hala nola Germaine de Staël *De la littérature* (1800), *De l'Allemagne* (1807) edo P. Ginguené *Histoire littéraire de l'Italie* (1811).

Francisque Michel, gizarte-gaien bitartez sartu zen euskal antzerkien tradizioan edo kantuenen eta kapitulu batean baino gehiagotan, XX. mendeko bigarren partean deitu izan den “historia kultural”-aren eremuan aritu zen.

Francisque Michel (1809-1887), Claude Fauriel (1772-1844) frantses filologoaren ikaslea izan zen, J. J. Ampère (1800-1864) eta F. Ozanam (1813-1853) bezalako konparatistekin batean. Beraz, XIX. mendeko frantses eskola konparatistaren garrantzi handiko partaidea zen. Euskal Herria ez da izan autore horren ikerketa gai bakarra. Anitz erresumetan (Algerian, Ezkozia, Italian, etb.) ibili zen dokumentu biltzen eta ikerketa egiten. 1838an, Bordealeko Unibertsitatean izendatua izan zen Kanpoko literaturei buruzko klase baten emateko. Bordealen egon zen denboran, ikerketa sakonak argitaratu zituen landutako sail guzietan⁽⁵³⁾. *Le Pays basque* argitaratu baino lehen, bi lan garrantzitsu egin zituen Euskal Herriari buruz, lehena, 1847an Oihenart⁽⁵⁴⁾-ez eta bigarrena Agoten⁽⁵⁵⁾ gaiaz. Bi idazlan horientzat egin zituen ikerketak erabili zituen *Le Pays basque* liburuaren ondoko hiru partetan: «Proverbes basques», «Les Bohémiens au Pays basque», «Arnault Oihenart».

⁽⁵³⁾ Ikus, P. Lafitte, «Préface» in *Le Pays basque*, Francisque Michel, Ed. Elkar, 1994.

⁽⁵⁴⁾ Oihenart (Arnault), *Proverbes basques suivis de poésies basques du même auteur*, 1657. Francisque Michel berrargitalpena, 1847.

⁽⁵⁵⁾ Francisque Michel, *Histoire des races maudites de France et d'Espagne*, 1847.

Ez da harritzeko *Le Pays basque* liburua guziz landua agertzen baldin bada erreferentzien aldetik baita ere metodologia zientifikoari begira. Francisque Michel-ek garbiki bereizi zituen bi sorkuntza eta adierazpen mota: oralitatearena eta idatziarena. Denbora berean, euskal kultura, bi parte ezberdinetan banatu zuen: herrikoia / jantzia.

Bi bereizketa horiek, garai hartakoak ziren, dudarik gabe, baina berehala gehitu behar da Ginguené edo Fauriel bezalako adituek ez zutela herriarena bestearen peko uzten. Haientzat, kultura bakoitzak bazituen bere ezaugarri historikoak, soziologikoak eta estetikoak eta, oro har, herriarena bestearen parean, hura bezain gora, ezartzen zuten. Staël anderearen ildotik uste zuten Europako kulturaren erreberritzeko molde bat bazela sorkuntza hezigabe horren bitartez. Honekin bukatzeko, erran daiteke garaiko irizpide kritikoak erabili zituela Francisque Michelek, toki nasaia ematen ziolarik sorkuntza herrikoitari. Beraz, ez da dudarik bere tokia bazuela *Le Pays basque* liburuak garaiko argitalpen nagusien artean.

– Julien Vinson (1843-1926)

Francisque Michel-en ondotik agertu ziren ikerleen artean, Julien Vinson aipatu behar da. Ofizioz, «oihan eta urari buruzko ingeniari-tza» ikasi zuen eta horrela zuen Euskal Herria ezagutu, Baionara izendatua izan baitzen sail haietaz arduratzeko. Baina, denbora berean, hizkuntzalaritza ikasi zuen eta Asia-ko mintzaira batzuen ezpezialista zen, hala nola Tamula-rena. Euskal Herrian izanez geroz, euskara ikasi zuen eta molde berezi batez landu zuen. *Essai d'une bibliographie* (1891) liburu famatuaz bestalde, bi idazlan garrantzitsu argitaratu zituen, euskal literaturaz, XIX. mende ondarrean. Lehenean, *Les Basques et le Pays basque* (1882) deitu liburuan, zazpigarren kapitulua⁽⁵⁶⁾ da literaturari dagokio-

⁽⁵⁶⁾ Chapitre VII: Les Basques: littérature écrite, littérature populaire, chansons, proverbes, formules, devinettes, contes. In *Les Basques et le Pays basque (Mœurs, langage et histoire)*, 1882.

na. Bigarren lana, aise berantago aurkeztu zuen, *Gure Herria* agerkarian: «La littérature basque» (*Gure Herria*, 1925). Eta bietan gauza bera idatzi zuen: harentzat ez zen euskal literaturarik.

Les Basques et le Pays basque monografia bat da, Francisque Michel-ek zenbait urte lehenago egin zuenaren gisa. Garai hartan, Euskal herriaz aipa zitezkeen gauza guziak biltzen ditu molde irakurterrex batez liburu hortan. Geografia, jendetza, historia, bizi moldeak, sinesteak eta literatura aipatzen ditu. Nabari da Julien Vinson ikerlari zehatza izan dela, ezagutza zabala eta sakona erakusten baitu lantzen zituen sail guztietan.

Euskarazko sorkuntza azken kapituluan aztertu zuen. «Littérature et chansons» deitu zuen atal hortan, ez zion kasu handirik egiten literatura idatziari, XIX. mendeko bigarren erdia arte. Ordu arte, agertu liburuak parte handiengan itzulpenak direla azpimarratu zuen eta, gehienak elizako gaien inguruan hautatuak. Tradizio idatzia baino, sorkuntza herritarra nahiago zuen eta pastoralak, atsotitzak eta kantuak aipatu zituen nasaiki. Zenbait asmaketa, hiru kantu —«Urzo xuria» adibidez— eta hiru ipuin ematen ditu frantses itzulpenean bere aurkezpen orokorraren ondotik.

Bigarren testua, 1925eko artikuluan, xeheki aipatu zuen zer behar zen literatura baten osatzeko: tokiko hizkuntzan idatzitako liburu andana bat izan behar da, mendez mende eginak, baita ere gai guztiez ari den sorkuntza. Ezaugarri horietan oinarrituz erakutsi zuen euskaldunek ez zutela horrelakorik. Historiografia kontuetan gelditzeko, ikusi behar da zein diren kapitulu hortan hobetsi zituen ardatzak. Bi kontzeptu nagusi erabili zituen, guziz garaikoak zirenak. Lehen ezaugarria ageri da idatzi zuelarik Euskal Herrian «ez dela literatura nazionalik» («Mais il n'existe pas de littérature nationale proprement dite»). Hortarik garbi utzi zuen XX. mendean zehar Europa guzian garatua izan den eredu literario nazionala erabiltzen zuela erreferentzia gisa, baita ere frantses literaturaren adibidea konparagai bezala.

Lehen ezaugarri horrek ondorioztatzen du beste hau: bigarren mailako literatura izanez, euskal literaturak ez du abantzu sorkuntzarik eskaintzen ez eta ere idazle nagusirik, Axular salbuespen bakarra delarik Vinson-en begietan.

Kontzeptu horietatik aparte, beste aukera bat egin zuen guztiz XIX. mendekoa dena: ahozko literaturari eman zion garrantzia. Gainera, Paul Sébillot⁽⁵⁷⁾ deitzen zen orduko frantses folklore biltzaile nagusi bati egin zion erreferentzia bere hautuaren aurkezterakoan. Vinson-en ustez, euskaldunek ez dute sail hortan ere deus berezirik asmatu bainan, literatura idatzian baino trebeagoak agertu dira. Ondare horretan, pastoralak eta kantuak zituen beste sorkuntza motak baino gorago ezartzen.

XIX. mendeko bigarren partean, ahozko literatura saila aberastu zuen Julien Vinson-ek *Le folklore basque* deitu zuen bilketaren bitartez. Liburu hartan aipatu zituen garai berean argitaratuak izan ziren beste bi bilketa nagusiak, Cerquand⁽⁵⁸⁾ eta Webster⁽⁵⁹⁾-enak hain zuzen.

2.2. Lehen saioak, fundatzaileen garaian (1920-1950):

XIX. mendeko bigarren partean euskal literaturaren historiak ari izan diren ikerleak erudito eta filologo zehatzak izan dira. Dudarik gabe, balio handiko ekarpena egin zuten beren denborarako. Gainera, Vinson-ek oso ongi ikasi zuen euskara eta gai zen testuan berean irakurtzeko. Halarik ere, kanpoko ikuspegi batez aztertu zuten euskal literatura. Hain zuzen, hori izan zen XX. mende hastapenean, ikergai bera lantzen hasi ziren euskal ikertzaile gazteek egin zieten kritika nagusia. Haiek, barneko ikuspegi batetik egin nahi zuten beren azterketa, euskal iturrietatik eta euskal kontestu sozialetik abiatuz. Aztertzaile horietatik lehena Pierre Lhande izan da eta haren ondotik, Orixe eta Piarres Lafitte aipatu behar dira.

⁽⁵⁷⁾ «Plus intéressant est à coup sûr ce qu'un de mes amis, M. Paul Sébillot, a si ingénieusement appelé la littérature orale», *Les Basques et le Pays basque* (1882), 125 or.

⁽⁵⁸⁾ J. F. Cerquand: *Légendes et Récits populaires du Pays basque*, Pau, 1876-1877.

⁽⁵⁹⁾ W. Webster: *Basque legends*, Londres, 1877

– Pierre Lhande (1877-1957).

XX. mendean, euskal literaturaz argitaratu den lehen saio orokorra, Pierre Lhande-n *Le Pays basque à vol d'oiseau* (1925) izan da. Hartan, Lhandek adierazi zuen euskaldunek ez zutela beren tradizioa ezagutzen. Urrunago joanez, idazten zuen beste eremu kulturaletan zer egiten zen ez zekitelakoan, euskaldunek ez zezaketela konpara euskal kultura besteekin. Ondorioz, ez zuten sumatzen ahal xuxen zer zen haren balioa. Hots, barneko ikuspegi baten oinarriak finkatu nahi zituen. Bide batez, erakusten zuen, nahi ala ez, literaturaren historia eraikuntza bat zela, beste eraikuntza kultural eta politiko guziena gisa. Eta, bere aldetik saiatu zen haren egituratzen eta eraikitzen.

Ikuspegi orokor bat euskal literaturaz.

Le Pays basque à vol d'oiseau liburuan Euskal literaturari buruzko ikuspegi orokorra eman nahi zuen eta liburuaren helburua garbiki azaldu zuen hitzaurrean⁽⁶⁰⁾. Hirugarren kapitulua, «La littérature et la langue» deitu zuen eta lau parte nagusitan banatu zuen. Lehen partean, nahiz ez zuen izendatzen, Julien Vinson-i ihardetsi zion. Vinson-ek, behin baino gehiagotan, euskal literaturarik ez zela idatzi zuen. Lhandek hiru puntutan egituratu zuen bere erantzuna. Lehenik, onartu zuen ez zitekeela aurki euskal letretan obra nagusien zerrenda luze haietatik bat, Europako kultura garatuetan bezala. Bainan, gabezia onartu ondoan, bi mailetan aurreratu zuen bere ikusmoldea. Lehen argudioa guziz modernoa zuen. Literaturaren instituzio eza (batez ere itzulpenetarako indar falta) azpimarratu zuen. Lhandek zionez, itzulpen eskas horretan zen oinarritzen Euskal Herritik kanpo nabaritzen zen euskal literaturaren eza gutza falta. Bigarrenik, xeheki zenbatu zuen euskal letren ontasuna, poe-

⁽⁶⁰⁾ *Le Pays basque à vol d'oiseau*, 1925. «Introduction»:

«... quelque ouvrage court et agréable qui leur fasse connaître dans leurs grandes lignes la physionomie extérieure, les origines, les traditions littéraires et morales de ce peuple énigmatique dont le premier aspect les a séduits».

sia, antzerkia eta prosa denak batean emanik⁽⁶¹⁾. Mota askotako obrak aipatzean, bere ustez frogaturik uzten zuen euskal literatura bat bazela. Halarik ere, erreferentzia horiek gaurko kritikaren ikuspegiaren argitan ikusiz, konparaketa ausartegiak eta funtsik gabekoak egin zituen artetan, hala nola Noruegako Ibsen antzerki egile famatuaren parean ezartzen zituelarik J. B. Elizanburu edo Gratien Adéma «Zalduby».

Bigarren partean, euskarazko sorkuntzak agerian uzten zuen maila kaxkarra onartu eta, haren argitzera saiatu zen. Lhande-n ustez, euskaldunek ez zuten behar bezalako formakuntza jaso ez ama hizkuntza mailan, ez eta ere euskal kulturari buruz, erdaraz eskolatuak izan zirelako. Ondorioz, euskaldunek ez zituzten Europako tradizio idatzietan idazleek eskupean zeuzkaten tresnak. Bestalde, Euskal literaturak kanpoari begira jasaiten zuen ezagutza eskasaren oinarriak argitu zituen ere bai. Agusti Xaho kendurik, euskal literaturaren aztertzaile gehienak kanpotik etorri zirela erakutsi zuen Lhandek. Eta hizkuntza ez baitzuten aski ulertzen (Francisque Michel eta Julien Vinson izendatzen ditu adibide gisa), ez ziren gai izan euskal ontasun literarioez ohartzeko. Gainera, kultura garatuetan erabiltzen ziren ezaugarri kritikoak erabili zituztela-koan euskal literaturaren balioaren neurtzeko, ez ziren haren egiazko graziaz eta garrantziaz konturatzen ahal. Hots, maila herrikoian eta “haurtzaroan” zegoen sorkuntza baten emaitzaren neurtzeko, literatura kulto eta garatueta ebaluaketa moldeak ez zirela tresna kritiko ego-kiak frogatu nahi zuen Pierre Lhande-k⁽⁶²⁾.

⁽⁶¹⁾ Hona ematen duen sorkuntza mota zerrenda:

“*chansons de geste et mystères, légendes poétiques, oeuvres de prose, poèmes et romans, théâtre populaire et original*” *Le Pays basque à vol d’oiseau*, «La littérature et la langue», 1925.

⁽⁶²⁾ «J’ai dit que le peu d’estime où l’on a tenu jusqu’ici la littérature basque vient de son caractère esthétique très spécial, très différent de ce que nous sommes habitués à admirer chez les littératures des autres peuples. (...) Ce qui fait la vraie beauté de la poésie euskarienne, ce n’est point cela. C’est tout d’abord l’exquise simplicité des sentiments, leur fluidité, limpide et fraîche, leur noble sobriété d’expression. Pour bien comprendre ces choses, il faut faire table rase de toute notre rhétorique latine. Il faut descendre dans l’âme populaire à la faveur de ces mots simples et si spontanés, et chercher à comprendre tout ce qu’ils renferment de naïveté, d’émotion, de douceur infinie». *Le Pays basque à vol d’oiseau*, «La littérature et la langue», 1925.

Hortan, Erromantikoengandik jaso zuen eragina –frantses literaturaren historio egileen bitartez– garbi ageri zen: berezitasuna, herriko jendeen baitan kausi daitekeen oinarritzko poesiaren iturria, etb. Bestalde XIX. mendeko filologo gehienen ildotik baita ere, Hipolyte Taine, frantses literaturaren historio egile eta filosofo famatuaren bidetik zoala erakutsi zuen⁽⁶³⁾, azpimarratu zuelarik sorkuntza batek hizkuntza, lurralde eta historia berezi batzuen baitan zituela bere oinarriak finkatzen.

Eta sorkuntza soil eta xume horren adibide batzuk eman ondoan, XIX. mendeko beste topiko bat aurreratu zuen, hizkuntzaren «genio»-arena hain zuzen. Euskara guziz berezia den ber, ezin da itzulpen baten bidez muineraino joan, poesia eta kantu baten funtsaren adierazteko. Euskal sorkuntzaren berezitasuna eta aberastasuna agerian utzi beharrez, bertsolaritzarekin bukatu zuen erranez, «literaturarik gabeko» jendalde horrek, munduko poeta –bertsolariak– kopuru handiena zeukalaa⁽⁶⁴⁾.

Hor, ageri denez, nahitara atxiki zuen «poeta» eta «bertsolaria»-ren arteko parekotasuna –bat bateko sorkuntzarena eta poesia idatziarena–. Preseski, hori eginez, Julien Vinson-ek onartzen ez zuenaren aurka joan nahi zuen. Eta, hautu horretan, mendebaleko kritikagintza modernoa jarraikitzen zuen.

«La littérature et la langue» kapitulu bereko hirugarren partean, mendez mende aipatu zituen euskal letretan agertutako obrak eta idazleak. Menturaz, ohar interesgarrienak XX. mendeari buruz egin zituen, batez ere Euskal Ikerketak aipatzen zituelarik sorkuntzarekin batean. Euskal Ikerketen garapena eta literaturaren indartzea elkarri lotzean,

⁽⁶³⁾ “Il faut avoir sans cesse devant les yeux le cadre incomparable où ces mots ont été pris et où, seulement, ils ont tout leur sens.” *Le Pays basque à vol d’oiseau*, «La littérature et la langue», 1925.

⁽⁶⁴⁾ «Ce peuple qui «n’a pas de littérature» est en effet le peuple du monde qui possède le plus grand nombre de poètes. Il n’est peut-être pas un seul village qui ne compte un ou plusieurs improvisateurs: paysan, berger, pêcheur, bûcheron, contrebandier.» *Le Pays basque à vol d’oiseau*, «La littérature et la langue», 1925.

garbiki erakutsi zuen beste garai batean sartua zela euskal literatura XIX. mendez geroz. Eta ez da ahantzi behar horren berri bazuela orduan, goi maileko euskaltzaleen mugimendu horretan parte hartzen baitzuen buru-belarri, bai Euskaltzaindian idazkari eta euskalzain bezala baita ere agerkarien bitartez, *RIEV*, *Gure Herria*, *Euskal Esnalea* aldizkarietan parte harturik.

Laugarren eta azken partean, gogoeta luze bat idatzi zuen Lhandek euskal literaturaren geroari buruz. Euskal literaturak, maila herrikoi batetik kultora pasatzean ezagutzen zuen egoera aldaketa onartu zuen bainan, doinu nostalgiko batekin, gustukua zuena ezinbestean desager-tzera zoala ikusiz⁽⁶⁵⁾

Pierre Lhanden oinarri historiografikoak:

Pierre Lhandek gazte denboran segitu zuen Jesuiten formakuntzan aurkitu zituen bere oinarri eta iturri kritikoak, bainan ere frantses literaturaren historialarien baitan. XIX. mendean, frantses historialarien eskola guziz ezagutua zen Europa mailan eta orduko fama handiko izen batzuk ezagun dira oraindik: J. Michelet (1798-1874), E. Quinet (1803-1875), E. Renan (1823-1892), N. Fustel de Coulanges (1830-1889), E. Lavissee (1842-1922), besteak beste.

Denbora berean, “frantses literaturaren historia» molde segitu batez lantzen hasi zen. Orduko izen handien artean, Sainte Beuve (1804-1869), Hippolyte Taine (1828-1893) eta Gustave Lanson (1857-1934) izan dira. Beraz, erran daiteke, kalitate handiko kritika akademi-ko bat garatu zela orduko unibertsitarioen artean. Frantses eremu kultural-ean, tradizio kritiko hori nagusi gelditu zen 1960ko hamarkadan sortu zen “kritika berria” (Barthes, Starobinski, etb.) agertu arte. Tradi-zio hortan sartzen zen P. Lhande, formakuntzaren aldetik baita ere tes-tuen aztertzeke metodologiaren ikuspegitik.

⁽⁶⁵⁾ «La littérature qui renaît accuse et entraîne la littérature qui meurt. Est-ce un malheur? Est-ce une aubaine?», *Le Pays basque à vol d'oiseau*, «La littérature et la langue», 1925.

Lhande, Hippolyte Taine frantses historialariaren bidetik.

Pierre Lhanden kritika motan suma daitekeen eragin handiena, dudarik gabe, Hippolyte Taine-na da. Lhandek, Hippolyte Taine-n oinarri kritikoak erabili zituen zehazki. Haien bitartez, bi puntu azpimarratu zituen: lehenik, euskal literatura bat bazela eta, bigarrenik, beste edozein bezalakoa zela, beraz, beste edozeinek bezainbat balio zuela⁽⁶⁶⁾:

Taine-n arabera, literatura bat, jendalde, arraza⁽⁶⁷⁾ eta hizkuntza baten adierazpen goren da. Eta hori da, preseski, XIX. mendean zehar, Europa guzian zabaldu zen literatur nazionalaren definizioa eta Europako nazioen eraikuntzan ezaugarri nagusi gisa sartzen zena. Hippolyte Taine-n ikusmoldea guziz murrizturik gelditzen da aspaldidanik. Beti aipamen bera ematen da haren pentsamendu zabala erabat mugatuz, tesuingurua kontutan eduki gabe: “la race, le milieu, le moment” (jendetza, ingurumena, une historikoa)⁽⁶⁸⁾. Taine, Darwin-en garaikidea zen. Haren ustez, gizon batek bera baino lehen izan diren guziak biltzen eta bateratzen ditu bere baitan.

Harek, ondokotasun kulturala azpimarratu nahi zuen Darwin-ek ondokotasun genetiboa agerian uzten zuen bezala. Nortasun biologikoak (“arraza”) eta zibilizazio baten ezaugarriek (ingurumen fisikoa eta kulturala) bat egiten dute une berezi batean (“mementoa”). Eta, metodologia mailan, fruituetarik (sorkuntzatik eta obretarik) erroetara joan daiteke, Taine-n arabera

Lhande ere, ingurumen fisikotik eta jendaldearen berezitasunetatik abiatu zen bere idazlanean, “Le décor” et “Les origines”, lehen bi kapi-

⁽⁶⁶⁾ “La littérature basque existe ; et non pas seulement la littérature de folklore (proverbes, devinettes, chansons légères) mais la littérature proprement dite, l’expression hautement littéraire du génie lyrique ou esthétique d’un peuple, d’une race et d’une langue.” *Le Pays basque à vol d’oiseau*, «La littérature et la langue» 1925.

⁽⁶⁷⁾ Taine-n hitzetan, «arraza» da izpiritu nazional bat, nazio baten oinarria, muina.

⁽⁶⁸⁾ “Trois sources différentes contribuent à produire cet état moral élémentaire, la race, le milieu, le moment” *Histoire de la littérature anglaise*, «Introduction», 1866.

tuluetan⁽⁶⁹⁾. Eta, euskal literaturaren funtsezko erran nahia aipatzen zuelarik, Taine-k berak idatz zitzakeen erran moldeak erabili zituen bere idazlanean⁽⁷⁰⁾. Frantses literaturaren historia egile nagusien gisa, ikuspegi orokor bat eman nahi du euskal literaturari buruz. Bera baino lehen, sail horretan ari izan diren hiru jende izendatu zituen: Augustin Chaho, Francisque Michel eta Julien Vinson. Bainan, haren gustuko, hiruek zer-baitetan huts egin zuten. (ikus: «La littérature et la langue», *Le Pays basque à vol d'oiseau*, 1925). Garbiki ikusi zuen haiek baino haratago joan behar zela.

Euskal literaturaren eraikuntza lana:

Euskal Herriaren inguruan nazio garatuak baziren eta bakoitzak eraiki zuen bere literatura nazionala XIX. mendean zehar. Badirudi Lhandek xede hori zuela gogoan Euskal Herriarentzat, azpimarratzen zuelarik euskal literatura bat bazela, Taine-n erran famatua kasik hitzez hitz errepikatuz⁽⁷¹⁾. Ez da aiantzi behar, Lhande abertzaleengandik oso hurbil zegoela⁽⁷²⁾ XX. mendearen hastapenean. Ez da harritzeko beraz eredu “nazionala” aukeratu baldin bazuen literatura mailan ere. Bainan, idazlana hurbiletik so eginez ikus daiteke ez duela euskal literaturaren historia “nazionalista” bat egin, baizik eta “nazionala”, erran nahi baita

⁽⁶⁹⁾ «Ce pays, tour à tour riant et sauvage, sert de gîte (depuis les temps les plus reculés qu’atteignent les données un peu sûres de l’histoire de Gaule) à une race, ou peut-être à un reste de race parlant une langue mystérieuse, sans analogie bien établie avec les langues actuellement connues sur notre globe». *Le Pays basque à vol d'oiseau*, «Les origines», 1925.

⁽⁷⁰⁾ «La littérature d’un peuple, expression de son activité intellectuelle et morale, reflète toujours ce qui, dans la vie de ce peuple, est le point central des préoccupations, des travaux, des tendresses et des passions, ce qui dans son organisation, est le rouage central et la clé». *Le Pays basque à vol d'oiseau*, «La littérature et la langue», 1925.

⁽⁷¹⁾ “La littérature basque existe (...) l’expression hautement littéraire du génie lyrique ou esthétique d’un peuple, d’une race, d’une langue.” *Le Pays basque à vol d'oiseau*, «La littérature et la langue», 1925.

⁽⁷²⁾ «Langue basque ! Langue basque ! Parais donc au dehors !⁷²», nous appartenons nous aussi au libre domaine qu’ont le droit de fouler les grands peuples. La jeune et ardente école nationaliste a soif de jeter notre nom aux échos du monde.» *Le Pays basque à vol d'oiseau*, «La littérature et la langue», 1925.

euskara erabiltzen diren eremuak oro (Pirinoetako bi eskualdetan) hartu zituela kondutan.

Aukera hori erakutsi beharrez, euskal kanon-a eta pantheon-a landu zituen molde akademikoan, hala nola Txomin Agirre-ren *Kresala* eta *Garoa* edo Etxahun-Barkoxe aztertu zituelarik. Euskal literaturaren aurkezpen orokorra egiterakoan, ez da dudarik, bi xede didaktiko bazituela gogoan. Alde batetik, euskaldunek ez zituztelakoan beren ontasunak ezagutzen, liburu baten bitartez erakutsi nahi zizkien zein ziren. Bestaldetik, kanpokoek ez zutelako uste Euskaldunek literatura bat bazutenik, jakinarazi nahi zien bazela, orduko jakintsunen moduan, bere garaiko kontzeptu historiografikoak erabiliz.

Pierre Lhanden ekarpena:

Zer izan da xuxen euskal literaturaren historia mailan Pierre Lhande-k XX. mende hastapenean egin duen ekarpena? Ordu arte, ikuspegi filologikoa nagusi zen euskal kritikagintzan, hala nola Urkijo-ren kasuan. Literaturari buruzko galderak hizkuntzaren menpe egoten ziren komuzki. Lhande-k aldiz, gai berriak aipatu zituen (Ahozko literatura eta idatzizkoaren arteko harremanak; itzulpengintza eta literatura nazional baten ezagutza ofiziala; elizako literaturaren tokia; irakurlegoaren arazoa; mito literarioen beharra, etb.). Galde oso teknikoak egin zituen ere; adibidez, eleberrigintzari buruz (Agirre, Azkue) edo hizkuntza literarioaren osatzeko moldeari buruz (D. Agirre, R. M. Azkue). Erran daiteke haren ikuspegi kritikoa erdi zientifikoa, erdi subjektiboa zela, hots historikoa eta enpatikoa.

– Orixe eta eredu klasikoa.

Garai bertsean, garrantzi handiko beste ekarpen bat kontutan hartu behar da, Orixe-rena hain zuzen. 1924ean, *Euzkadi* egunkarian, «Los clásicos vascos» deitu artikulu multxo bat argitaratu zuen molde jarraiki batez. Haietan zazpi idazle nagusi aurkeztu zituen erdaraz (Axular,

Mendiburu, Zabala, J. A. Mogel, Larramendi, Iztueta, Joanategi) baita ere bigarren maila batean ezartzen zituen autore batzuk, hala nola Arrue edo Lardizabal. Bainan, garai hartako Orixe-ren lan hoberena *Euskal literatura'ren atze edo edesti laburra*, deitzen da. Euskal Eснаlea aldizkarian (XVIII zenbakia) argitaratu zuen, 1927an. Lehenago aipatu dugun P. Lhande-n ikuspegia bezain kulta eta sakona da Orixe-rena. Erran daiteke haren parekoa dela bainan Orixe-ren kasuan, Euskal literatura Hegoaldetik ikusia da, idazle eta korpus aukerari begira segurik.

Idazlan hartan, euskal literaturaren errepasso osoa egin zuen, erdi aroko kantua eta eresietatik abiatuz, XX. mende hastapeneko obretaraino. 50eko hamarkadan, Mitxelenak, Orixeekin trukatu zituen gutunetan garbi utzi zuen, kontu handitan eduki zuela idazlan hori bere *Historia de la literatura vasca* idatzi zuelarik.

Liburutxo baten neurria izanik ere, Orixe-ren lanak aurkezpen zabal eta orokorra ematen du euskal literaturaz. Lan ongi jantzia da, behar diren ohar filologikoak erakartzen ditu baita ere historikoak eta kritikoak. Ohar horietan ageri da garai hartan bil zitezkeen informazioak bildu zituela Orixe idatzi baino lehen. Literaturaren historia sailean lehenago ari izan zirenen lan kritikoak irakurri zituen hurbiletik. Adibide bat ematekotan, aipa daiteke «Solferinoko itsua» kantuz Orixe idatzi zuena. Kantu horren egileaz dudak baziren garai hartan. Orixe bere liburuan erabili zuen P. Lafittek garaiko testu baten oin ohar batean ematen zuen ikusmoldea, hain zuzen J. B. Elizanburu-rena zitekeela kantua hori.

Berdin egin zuen Etxahun Barkoxe aztertu zuelarik harentzat erranez «Euskalerriko Verlaine delakoa». Aipamen hartatik ageri da P. Lhandek Barkoxeko poetaz *Gure Herria* agerkarian 1923an argitaratu zuen ikerketa⁽⁷³⁾ irakurria zuela. Bainan guziz interesgarria da ikustea Orixe erabiltzen zuen eredu historiografikoa. Ardatz edo sail bat baino gehiago

⁽⁷³⁾ Pierre Lhande, «Le barde Etchaoun», *Gure Herria*, 1923.

bada idazlan hortan. Maila edo jatorria da lehen ezaugarria sorkuntzaz ari delarik. Herri tradizioa eta tradizio idatzia bereizten ditu. Lehen multzoan eresi zaharrak, kantuak, pastoralak, leloak, toberak eta bertsoak biltzen ditu. Bertsolariantzat galde bat egiten du: “Ta zer balio du literatura xarpil onek?”. Eta jarraian ematen duen lerroaldi luzea bukatzen da ondoko hitzekin: «(...) berekin gordetzen du euskerak, beste edozin izkuntzak bezala bere xorroxtasuna.»

Bigarren sartzea denborari doakio. Mendeka sailkatzen ditu literatura idatziaren autoreak, XVI.etik hasiz XX.aren hastapenean gelditzen delarik, Barbier, Azkue eta Txomin Agirre bezalako idazleekin. Hirugarren ezaugarri nagusia geografikoa deit daiteke. Alde hortatik, «hegoalde / iparralde» kriterioez gain, euskalki literarioen arabera banatzen ditu idazleak, lau euskalki literario bereizten dituelarik, erran nahi baita lapurtera, xuberera, bizkaiera, eta gipuzkera. Beraz, ageri den bezala, komuzki erabiltzen diren ezaugarriak nahasten ditu bere ikuspegi orokorraren osatzeko.

Bainan, ezaugarri ororen gaintetik, beste bat du ezartzen, idazle leinua-rena hain zuzen. Eskola edo euskarazko tradizio idatziaren hiru bide nagusi eta ezberdin bereizten ditu, mendeetan zehar iraun dutenak (zaharrentzat segurik). Hiru bide nagusi horien iturburu bezala hiru autore edo pentsalari ematen ditu: Axular eta Larramendi bi zaharrentzat, Arana Goiri eskola berrienarentzat. Nahiz azken biek ez duten funtsezko deus idatzi, euskara idatziari buruz argitaratu zituzten gogoetek eta filologia mailako lanek bihurgune bat markatu zuten beren euskalkien baitan. XIX. mendeko ondarra eta XX. mendeko hastapena, Arana Goiriren inguruan antolatzen du Orixek. Haren aldekoak (Eleizalde, etb.) eta haren kontrakoak (Azkue, adibidez) kapitulu berean biltzen ditu.

Hiruak euskal literaturaren «gurasoak» deitzen ditu. Euskal literaturaren aurkezpen horren oinarria Orixe-ren formakuntzan bilatu behar da, menturaz. Paulo Iztuetak⁽⁷⁴⁾ erakutsia duen bezala, formakuntza kla-

⁽⁷⁴⁾ Orixe, *Euskal literaturaren historia laburra*, Utriusque Vasconiae, 2002, Paulo Iztuetaren edizioa.

sikoa ukan zuen Orixe-k bai seminarioan baita ere Jesusen Lagundian. Zahar Arotik XVII. mendea arte, E.R. Curtius-ek Europako literaturaz idatzitako liburuan⁽⁷⁵⁾ erakutsi zuen bezala, Virgilio gisako “guraso” batzuek iraun dute zutabe gisa, etengabeko eredu ezin gaindituak izan balira bezala. Bainan, estetikaz gain, iturburu horiek, eredu filologikoak izan ziren. Kultura klasikoan egin zen bezalaxe, behar bada, Orixeek oinarri eta zutabetzat nahi izan zituen finkatu Axular, Larramendi eta Arana Goiri, euskal literaturaren “guraso” gisa hautatu zituelarik.

Beraz, historiografiaren konzientzia bizia ba zuen Orixeek, baitzekien garbiki, literatura baten historia eraikuntza intelektual bat dela, lehen lehenik. Horrengatik, menean zeuzkan ezaugarri guziak erabili zituen ikuspegi egin ahala osoa antolatzeko asmoz.

– Jean Saint-Pierre: literatura katolikoa.

Gauza jakina da, euskarazko tradizio idatzia erlijioaren inguruan luzaz antolatu zela. Jean Saint-Pierre-k idatzi zuen lehen aurkezpen historiko sakona eta *Gure Herria* agerkarian argitaratu zuen, 1924an. Hura baino lehen, Iparraldean bederen, Daranatz kalonjea baizik ez zen ari izan sail hortan.

Idazlana, “Le Basque dans la littérature religieuse” deitu zuen eta bi zatitan aurkeztu zuen. Lehenean, ikuspegi orokor bat eman zuen. Bigarrena, izenburuak («L’originalité d’Axular») dion bezala, Sarako idazleaz eta «Gero» haren obraz egina da.

Lehen zatian, ordu arte argitaratu zen guziaren erreposoa egin zuen idazleak, Leizarragarekin (1571) abiatuz Jean-Pierre Arbelbide-ren *Erli-sionea* (1890) arte. Bibliaren itzulpenak aipatu zituen ere, Iparraldean argitaratuak izan zirenak (Leizarraga, Larreguy, Haraneder, Duvoisin).

⁽⁷⁵⁾ E.R. Curtius, frantses itzulpenean irakurria, *La littérature européenne et le Moyen-Age latin*, 1947.

Ondotik, debozinezko liburuak (Jesus-Kristoren Imitazioaren itzulpenak, Sales-ko François-ren *Philotea*, etb.) aurkeztu zituen, itzultzaileen artean, Materre, Pouvreau, Haranburu, Etxeberri Ziburukoa, Dargaig-naratz zituzten zituelarik. Katiximak, kantikak, liburu azetikoak aipatu zituen ere. Hiru idazle nagusi gailendu zituen, Axular, Mendiburu eta Martin Duhalde. Bigarren partean, Axularren obraren inguruan antolatu zuen. Euskal literaturaren idazle nagusiaren figura landu zuen, *Gero*-ren iturrietatik abiatuz, idazkeraren azterketaraino.

Lan motza izanik ere, historiografiaren aldetik interesgarria da batez ere orduz geroz literatura sail gisa desagertu delako ekoizpen mota hori. XX. mendea aintzina joan arau, Euskal Literaturaren historiatik, Europako literaturen historia guzietatik bezala kendua izan da. Hots, artikuluen balioa lekukotasun batena da gehien bat, datu bilketa bezala lehen baita.

– P. Lafitte (1901-1985): filologoaren ondarea.

Piarres Lafittek anitz moldez landu zuen euskal literatura munduko bi gerlen artean. Lan horietatik batean bada euskal literaturaren historiaz ikuspegi orokor bat ematen duen liburutto bat, 1941ean argitaratua izan zena: *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Baionako Euskal Erakustokian, urte berean eskaini zuen mintzaldi batetik ateratu zuen Lafittek idazlanaren funtsa.

Bera baino lehen euskal literaturaren historiaz ari izan ziren autoreen emaitzarekin (Lhande, Orixe) konparatzen badugu Lafittek ekartzen duena, badu puntu bat benetan erakargarria. Sartze orokor labur batean, euskarazko sorkuntzaren urritasunaz aritu zen gogoetak egiten. Abiatu zen erranez ez zela Goethe edo Shakespeare bezalako idazle unibertsalik aurkitzen euskal literaturan. Julien Vinson-ek mende erdi bat lehenago idatzi zuena errepikatu zuen azpimarratuz Europako letretan ezagun gelditu ziren euskal idazleek erdaraz idatzi zutela, hala nola Azpilcueta, Duvergier de Hauranne, Oihenart, Juan de Huarte, Cam-

pión, Unamuno. Eta jarraian adierazten zuen zergatik ez zituzten fama handiko autore horiek euskaraz idatzi beren funtsezko idazlanak.

Ikuspegi guziz modernoa eman zuen argibide gisa, XX. mendeko 70eko hamarkadan Sarasolak eta Torrealdaik zehaztasun handiz landuko zutena hain zuzen, erran nahi baita harrerarena. Lafittek zionez irakurle goaren murriztasunarengatik eta euskal kulturak zeuzkan ahal ekonomikoen eskasarengatik euskarazko sorkuntza ez zen gauzatu⁽⁷⁶⁾ ahal izan. Noski, Sarasolak eta batez ere Torrealdaik ñabardura asko ekarri zuten gogoeta soziologiko abiadura horri bainan, oinarri soziokulturala goizik hartu zuen kondutan Lafittek euskal literaturaren egoera definitzerakoan.

1941eko liburutto hortan, XX. mendean zehar Frantzian eta beste eremu kulturaletan literaturaren historia aztertzerakoan erabiltzen ziren ezaugarri metodologiko nagusiak erakarri zituen euskal alorrera P. Lafittek. Bestetan egiten zen bezala, ahozko tradizioetik heldu zen ondare literarioa bereizi zuen tradizio idatzitik. Bigarren honi zion toki nasaiena eskaini eta kronologikoki aukeztu zituen, mendez mende, autoreak eta obrak.

Ezaugarri nagusi horrez gain, alde geografikoa erabili zuen bere sailkapenean, Iparraldeko idazleak baizik ez baitzituen aurkeztu, Hegoaldeko autoreak (Mendiburu, Kardaberaz, Larramendi edo Arana Goiri) doi doa erreferentzia gisa aipatzen zituelarik. Iparraldeko idazleentzat, izenburutik beretik suma zitekeenez, euskalkia erantsi zion bakoitzaren aipamenari.

Liburu motza egin zuelakoan ez zuen ikuspegi kritikoa sakondu. Aurkezpen deskriptiboa egin zuen nahiz artetan bazen balorazio baten abiatzea, hala nola Jean-Pierre Duvoisin edo Jean Hiriart-Urruty aipatu

⁽⁷⁶⁾ «Faute de loisirs, point de lecteurs ; et sans lecteurs, point d'écrivains. Une fois de plus se vérifie le dictat, sinon le primat de l'économique», *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule* (1941), 20. orrialdean.

zituelarik. Azalekoa izanik ere, erran behar da ikuspegi oso zabala eman zuela: lehen mailako idazleak izendatu zituen eta ordu arte aipatu ziren izenak errepikatu zituen bainan, bigarren mailako anitz ere erakarri zituen, batez ere erlijioaren inguruko idazlanen autoreak.

Gorago erran bezala, ohargarria da zenbait idazle nagusi bereizi zituela, Axular, Etxeberri sarakoa, Salbat Monho, Laphitz, J. Hiriart-Urruty, Jean-Pierre Arbelbide eta Jean Etxepare, besteak beste. Beraz, bi gerlen artean eta Orixe-ren gisa hasi zen Piarres Lafitte euskal literaturaren kanona osatzen. Halarik ere, ezberdintasun nagusi bat aurki daiteke 50eko hamarkadan Koldo Mitxelena egin zuen aukerarekin. Berean, Lafittek elizako gaiez ari izan ziren idazleak onartu zituen. Adibidez, Laphitzen *Bi saindu euskaldunen bizia* edo J. P. Arbelbiden *Erlisioea* ezarri zituen euskal literaturaren obra nagusien zerrendan.

Historiografia mailan beti, interesgarria da ikustea ere, Pierre Lhandek egin zuen bezala, Etxahun-Barkoxe sarrarazi zuela ondare literario idatzian eta, poeten artean jarri zuela koblakari xuberotarra, zenbait urte geroago Jean Haritschelharrek bere tesian⁽⁷⁷⁾ garbiki erakutsiko zuen bezala. Eta hori, koblakariaren zenbait alde biografiko kritikatzan zituelarik haren mendeurrenean izan zen polemikan erakutsi zuen bezala⁽⁷⁸⁾.

Ohartua zen ere kazetaritzaren garrantziaz euskarazko sorkuntzaren baitan eta alde hortatik aurrekari bezala ikus daiteke P. Lafitte. Euskarazko prosaren garatze prosezuan kazetaritzak eragin handia ukan zuen. Iparraldeko nahiz Hegoaldeko XX. mendeko lehen erdiko idazle interesgarri gehienek kazetetan parte hartzean ikasi zuten idazten. Hots, kazetaritza prosa literario modernoaren mindegia izan da.

Gorago erran bezala, Lafittek Iparraldeko autoreak baizik ez zituen aipatu bere liburuttoan. Halarik ere, erran behar da bestela ikusten zuela

⁽⁷⁷⁾ Jean Haritschelhar, *Le poète Pierre-Topet Etxahun*, Ed. Musée basque de Bayonne, 1970.

⁽⁷⁸⁾ Jon Casenave, «Du mauvais sujet au mythe littéraire», *Lapurdum VII*, 2002.

euskal literatura. Konklusioan gehitu zuen iparraldeko literaturaz ari-tzea eskatua izan zitzaiola. Eta segitzen zuen erranez, euskal literaturaz ikuspegi on baten ukatekotan, Euskal Herri osoko idazleak eta obrak behar zirela kondutan hartu. Ohar hartatik garbi uzten zuen, beste Europako literaturetan egiten zen bezala, literatura nazionalaren kon-zeptua zerabilala eta haren konzientzia bazuela ordurako.

2.3. *Bultzatzaileen ekarpena:*

Orain arte erabiliak izan diren izenek eta obrek euskal literaturaren historia osatu dute XIX. mendearen erditik XX. mende erdia arte. Bai-nan, haien ondoan, beste ekarpen batzuk behar dira aipatu, argitaratzaile eta aipatzaileen lana hain zuzen. Haien ekarpena ez da zuzenki sartzen euskal literaturaren historian, baina halarik ere, haiek gabe ez zen eus-kal literaturaren historiari egin ahal izan. Euskal literaturaren historia-lariek erabili duten euskarazko korpusa finkatu dute argitaratzaileek. Aipatzaileek berriz, beren kritika eta aipamenen bitartez, euskal litera-turaren osagaiak eta bizi literarioaren mamia argitan utzia dute beren artikuluetan. Denbora berean, ondarea eta sorkuntzaren sailkatzeko eta ulertzeko garrantzi handiko norabide batzuk eman dituzte. Argitara-tzaileak eta aipatzaileak, euskarazko idatziaren funtsezko bultzatzaileak izan dira gizarte mailan.

– Argitaratzaileen lana:

Lehenik, argitaratzaileen lana altxatu behar da laburzki. Garrantziz-ko lana da argitaratzaileena, euskal literaturaren korpusa osatu baitzuten testuak argitaratzean edo berrargitaratzean. Argitaratzaileen lana eta ekarpena behar bezala aipatzeko azterketa sakona eta exhaustiboa falta da oraindik. Halare, ezaugarri nabarienak guziz ezagunak dira.

Julien Vinson-ek XVI. eta XVIII. mendeetako idazlan batzuk argitaratu eta berrargitaratu zituen XIX. mende ondarrean, hala nola 1910-ean, Argaiñaratz-en *Devoten Brevarioa* (1665). Biltzaile eta argitaratzaile gisa beti, ahozko literaturaren saila aberastu zuen Julien Vinson-ek *Folklore basque* (1883) deitu zuen bilduma batean. Bainan ekarpen handiena, bibliografia mailan egin zuen, *Essai d'une bibliographie de la langue basque* (1891-1898) liburu ezagunean.

Julio de Urkixo aipatu behar da ere argitaratzaile nagusien artean. Joanes Etxeberri Sarakoaren idazlanak⁽⁷⁹⁾ argitaratu zituen Parisen, 1907an. Urte berean sortu zuen *RIEV* (Revue Internationale des Etudes Basques) agerkarian, euskal literaturaren obra nagusi zenbait publikatu zituen ere XX. mendeko lehen erdian, Axularren *Guero* (1912-tik aitzina) eta B. Etxepareren *Linguae Vascomum Primitiae* (1933), besteak beste.

Resurreccion Maria Azkue-k ahozko ondarearen bilketa lana abiatu zuen. XX. mendeko lehen hamarkadatik aurrera mugaz bi eskualdetan osatu zuen. Bainan, aise berantago eman zuen argitara, lau liburukitan, *Euskalerrriaren Yakintza* izenburuarekin 1935-1947).

XX. mendeko iparraldeko argitaratzaileen artean, Piarres Lafitte-n izena azpimarratu behar da. *Eskualdunen loretegia* (1931) antologiaren bitartez autore klasikoen (1645-1800) lehen bilduma didaktikoa antolatu zuen. Lehen alean berean, segida bat aipatu zuen bainan, zorigaitzez, ez zuen nahi bezainbat irakurle aurkitu. Beraz, bertan behera utzi zuen bigarren alearen xedea. Bestalde, argitaratu eta berrargitaratu zituen liburuen artean, Jean Etxepare-ren *Buruchkak* (1941) idazlan laburren bilduma⁽⁸⁰⁾ bereizi daiteke.

⁽⁷⁹⁾ *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etxeberri (1712)*, Geuthner, Paris, 1907.

⁽⁸⁰⁾ Bigarren argitalpen hortan, Piarres Lafittek lehen argitalpeneko bi testu zentzuratu zituen: "Amodioa", "Nor eskola emaile? Zer irakats?", Aintzin-solasean zionez, "dohakabe" deitzen zituen bi kapitulu horiek kendu zituen Jean Etxepare-ren andreairekin baimenarekin.

– Aipatzaileen eragina:

Argitaratzaileen ondotik, literaturaren aipatzaileak ere aipatu behar dira, haiek baitzuten egunez egun eta argitalpenak agertu arau kazetetan eta agerkarietan euskal literatura argira ekarri. Pierre Lhandez⁽⁸¹⁾ bestalde, bakar batzuk baziren kritikagintzan ari zirenak garai hartan. Jean Etxepare, Aitzol, Lauaxeta, Lizardi, Orixe, Julio de Urkixo eta beste batzuk⁽⁸²⁾ aritzen ziren liburu berrien eta berrargitalpenen aipatzen. Frangotan, azterketa luzeak eta sakonak izaten ziren eta, ohar interesgarri asko aurki daiteke hizkuntzari buruz adibidez, hizkuntza literarioaren eztabaida baitzen orduan bete-betean.

Hor daude lekuko Jean Etxepare-ren asteroko kronikan irakurtzen ahal ziren aipamenak⁽⁸³⁾, Lizardi-renak⁽⁸⁴⁾ edo Lauaxeta-renak⁽⁸⁵⁾. Nahiz gehienek ez zuten literaturaren historiari buruz ikuspegi orokorrik ematen, guziz lagungarri gertatu dira haien ondotik euskal literaturaren historia lantzen ari izan diren historialarientzat. Aitzolek ikuspegi guziz landuak eta erreferentziaz josiak eman zituen olertiaz eta ahozko literaturari buruz batez ere, garaiko agerkarietan publikatu zituen artikuluetan baita ere bere lankide eta adiskideen liburuentzat idatzi zituen hitzaurretan (Lauaxeta, Lizardi, Otaño, Zaitegi, etb.)⁽⁸⁶⁾. Gorago aipatua izan den bezala, erran daiteke Orixe-k, *Euzkadi-n* eta *Euskal Esnale-an*

⁽⁸¹⁾ Jon Casenave, «Pierre Lhande eta euskal literaturaren historia», in *Jean Haritchelbar-i omenaldia*, *Iker* 21, Ed. Euskaltzaindia, 2008.

⁽⁸²⁾ Ikus: *Gerrurreko literatur kritika*, (I. Aranbarri eta K. Izagirre-ren edizioan), Labayru ikastegia, 1996. Paulo Iztueta, *Kritika literarioaren lehen saioak*, (1926-36), Ed. Utriusque Vasconiae, 2002.

⁽⁸³⁾ *Jean Etxepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak*, 1. Euskal gaiak, (P. Charritton-en edizioan), Elkar, 1984.

Jon Casenave, «Jean Etxepare, gizon argitua, idazle ausarta», *Hegats*.

⁽⁸⁴⁾ Xabier Lizardi, *Kazetari-lanak*, (L. Otaegi-ren edizioan), Erein, 1987.

⁽⁸⁵⁾ Estepan Urkiaga «Lauaxeta», *Gure aberriaren elea*, (X. Altzibar-en edizioan), Labayru ikastegia, 2005.

⁽⁸⁶⁾ Jose Ariztimuño «Aitzol», “Kazetaritza lanak”, *Literatura inguruan* (edizioa, askoren artean), Ed. Erein, 1986.

eman zituen idazlanetan, benetazko Euskal literaturaren historia egiteko asmoa ukan eta obratu zuela⁽⁸⁷⁾.

⁽⁸⁷⁾ Paulo Iztueta-k, testu horien bigarren edizioaren aitzin-solasean⁸⁷ ongi azaltzen du Orixen helburua: “Eta hor tartean, erdi-galduta bezala, *Orixeren Euskal literatura’ren atze edo edesti laburra* (1927) daukagu, bere laburrean, euskal literatura bere osotasunean hartzen duena, ahozkoa bezala idatzizkoa, nola Iparraldekoa hala Hegoaldekoa.” Nicolas Ormaetxea “Orixen”, *Euskal literaturaren historia laburra* (P. Iztueta-ren edizioan), Ed. Utriusque Vasconiae, 2002.

Hirugarren Parte

3. Eredu historiografiko bat euskal literaturarentzat: 1960-2010

1950-eko hamarkadan, munduko gerla aintzin landu ziren euskal literaturari buruzko ikusmoldeak baztertuak izan ziren. Ordutik hara, oinarri kritiko berriak erabiltzen hasi ziren. Aldaketa nagusia, euskal literaturaren definizioan agertu zen, euskaraz idatzitako testuetara mugatua izan baita garai hartatik aurrera. Denbora berean, literaturaren historia moldatzean erabiltzen ziren oinarri historiografikoak osoki aldatu ziren. Inguruko kultura garatuetan nagusituak ziren metodologia historikoak eta literaturari buruzko ikuspegi estetiko berriak –modernitatearenak– erakarriak izan ziren euskal alorrera. Beraz, eredu historiografiko berri bat finkatu zen euskal literaturarentzat, guti gora behera, XX. mende bukaera arte iraun zuena.

Euskal literaturaren historia idazteko moldez gogoeta guti egin da XX. mendeko azken laurdena arte. 80ko hamarkadaren hastapenean, sail hortako bi artikulua nagusi agertu ziren. Lehena, «Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak»⁽⁸⁸⁾ deitua Koldo Mitxelena zen eta 1981ean agertu zen. Bigarrena, Txuma Lasagabasterrena zen eta «La historiografía literaria vasca. Aproximación crítico bibliográfica»⁽⁸⁹⁾ (1983) deitu

⁽⁸⁸⁾ K. Mitxelena, «Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak», *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustoko Unibertsitatea, 1981.

⁽⁸⁹⁾ Tx. Lasagabaster, «La historiografía literaria vasca. Aproximación crítico bibliográfica», *Las literaturas de los vascos*, Ed. Deustoko Unibertsitatea, 2002.

zuen. Artikulu hortan, Tx. Lasagasterrek 1980ko hamarkada arte argitaraturak izan diren Euskal Literaturaren Historien errebaso historiografikoa egin zuen, molde kronologikoan.

Txuma Lasagabasterrek, ordu arte argitaratu ziren Euskal literaturaren historien zerrendatik idazlan bat baizik ez zuen onartu egiazko «azterketa historiko» bezala, K. Mitxelenaren *Historia de la literatura vasca* (1960) hain zuzen. *Historia de la literatura vasca* liburutik, J. B. Orpustanen *Précis d'Histoire littéraire basque* (1996) obra arte, eredu historiografiko berdina egon da nagusi euskal kulturaren, preseski K. Mitxelenak finkatu zuena.

3.1. Mitxelena eta historia literarioaren ereduak:

– Liburua bere garaian:

Bere liburuaren hitzaurrean, Koldo Mitxelenak azaltzen zuen *Historia de la literatura vasca* azterketaren lehen bertsioa moldatua zuela *Historia General de las literaturas Hispánicas* (Barcelona, 1958) bilduman argitaratzeko asmoz. Idazlana osatu ondoan, liburu bakar gisa agerrarazi zuen Euskal Herrian, 1960an.

Mitxelena hizkuntzalari bezala ezagutua zen. Liburu horrekin, literaturaren eremuan sartu zen. Orixe-ren *Euskal literatura'ren atze edo edesti laburra*-ren berragitalpenean⁽⁹⁰⁾ Paulo Iztuetak erakusten du Koldo Mitxelenak miresten zuela Orixe-ren idazlana. P. Iztuetak jarraitzen du erranez 50eko hamarkadan, Koldo Mitxelenak Orixe-ri eskatu ziola liburu horren bertsio berrituaren egitea. Ordurako zahartua zen Orixe eta eza eman zion. Beraz, Mitxelena bera lotu zen lanari eta liburua osatu zuen nahiz bere burua gehiago hizkuntzalaritzat zeukan.

⁽⁹⁰⁾ Orixe, *Euskal literaturaren historia laburra*, 1927; *Utriusque Vasconiae*, 2002, Paulo Iztuetaren edizioa.

– Bi oinarri metodologia mailan:

Liburu hortan, bi oinarri sendo hartu zituen metodologia mailan eta haietatik frogatu zuen bere garaikide gehienek ezagutu zioten zorroztasun intelektuala: historialarien zehaztasuna eta ikertzailearen autonomia.

Tx. Lasagabasterrek zion K. Mitxelenaren *Historia de la literatura vasca* (1960) zela euskal eremuan egina izan zen lehen lan zehatza, arau historiografikoak zorrozki bete zituelako. Xehetasunetan sartu aintzin, aipa daitezke liburu hartan aurkitzen diren ekarpen handienak. Europako erresumetan erabiltzen ziren ezaugarri nazionalak Euskal Herrian falta edo bederen eztabaidagarriak ziren. Beraz, «ardatz linguistikoa» aukeratu zuen oinarri gisa «euskal eredu oso» baten eraikitzeke baita ere euskal eremu historiko baten osatzeko literaturaren ikuspuntutik.

Euskal literaturaren korpusa euskarazko testuekin soilik antolatu zuen Mitxelenak, bera baino lehen ari izan ziren historialarien tradizioarekin⁽⁹¹⁾ hautsiz. Hizkuntza literarioaren aldetik, euskalki literarioek nabarmentzen duten banaketa baino gorago ezarri du obra nagusiek beren artean egiten duten batasun linguistikoa. Hortarik ageri da, batasun linguistikoa opzioa 60ko hamarkada hasi baino lehen landua zuela. Bizkitartean, aukera hori suma zitekeen 1957an, *Leturiaren egunkari ezkutua*, Txillardegiren obrarentzat idatzi zuen hitzaurrean.

Historia literarioaren metodologia euskal adibideari egokituz, kriterio literarioa edo estetikoa soilik erabili zuen kanon baten eraikitzeke. Bestalde, erran daiteke «kanon bildu» edo «hertsi» bat osatu zuela Mitxelenak, ikusiz idazle nagusi guti atxiki zuela bere panteonean.

Liburu hortan metodologia historikoa jarraitu zuen. K. Mitxelenak literaturaren historia lotu zuen historia kulturalari⁽⁹²⁾. Kasu batzuetan,

⁽⁹¹⁾ Adibide gisa, Pierre Lhande, *Le Pays basque à vol d'oiseau* (1925) liburuan egiten den aurkezpena aipa daiteke.

⁽⁹²⁾ «He entrado mas de una vez en digresiones que pertenecen a la historia cultural mejor que a la literaria en sentido estricto», K. Mitxelena, *Historia de la literatura vasca*, 1960.

gertakari politikoak, ekonomikoak eta kulturalak erakarri zituen aldaketa edo arrakasta eza baten argitzeko. Adibidez, irakurlegoaren kopuru murrizta eta egoera txarra aurreratu zituen obra batzuen argitarapen atzeratuen esplikatzeko, hala nola Mogelen *Peru Abarca*-rena.

Inguruko eremu kulturaletan erabiltzen ziren tresna edo kontzeptu berdinak erabili zituen Mitxelenak bainan ez zituen molde itsuan mailatu. Periodizazioa har daiteke adibidetzat.: ez da justifikatua bainan, galdera bat bezala gelditzen da. Erabat originala da eta guti eztabaidatua izan da:

- 1) Hastapenak eta XVI. mendea. XVII. mendea.
- 2) Ondoko garaiak mende bat eta erdi irauten du: 1700-1850.
- 3) Azkenak aldiz, 1850-1959.

Hartzen bada 1850-etik 1959-era doan garaia ez du adierazten zertan oinarritzen den horrelako «neurria» hautatzerakoan, gehienetan «mendea» (XIX-XX) delarik neurgailu erabiliena. Alusio batzuen bidez ulert daiteke zein izan diren harentzat muga baten ezaugarriak. Ondoko bi adibideetan ikus daiteke hizkuntzaren historian eta euskal kulturaren historian hartu zituela.

Bonarparte Printzipearen aurkezpen batekin abiatu zuen kapitulua (1850-1950). Harekin batean, euskal kulturarentzat eta euskararentzat XIX. mende erditik hara indartuz joan zen kanpoko jakintsunen interesa azpimarratu zuen. Schuchardt, Van Eys, Vinson izendatu zituen, besteak beste erakusteko goi mailako hizkuntzalariak etorri zirela Euskal Herrira, hizkuntza ikertu nahiz. Bide batez, adierazten du interesa piztu zutela euskararen alde, Duvoisin eta Inchauspe bezalako euskaldunen artean.

1850 bihurgune gisa erakusteko, hizkuntzaren inguruan gertatuaz gain, bigarren ezaugarri bat hautatu zuen, nahiz ez zuen zehazki erran horrela zerabilala. Aldi honetan, kulturaren alorretik hartu zuen. Badi-rudi, Antoine d'Abbadie euskalzale ezagunak sortu zituen Euskal Pestak eta, haien baitan, poesia eta bertsu lehiaketak izan zirela Mitxelenarentzat 1850eko bihurgunearen bigarren eragilea.

Aukera horiek eginez, Mitxelenak haustura egin zuen ordu arteko tradizio kritikoarekin. Ez zuen berretsi Francisque Michel-ek, Julien Vinson-ek edo Pierre Lhandek idatzi zutena. Bere oinarri metodologikoak eta teorikoak aukeratu zituen eta aplikatu zituen euskal literaturari. Korpusaren hautatzerakoan edo «kanon»-aren definizioan aurrekoen aukerak ezeztatu zituen.

– Aukera nagusi eta berritzaileak:

Oinarri metodologiko horien gainean bermatuz, aukera nagusi eta berritzaile batzu egin zituen Mitxelenak. Aldaketa nagusia hizkuntza mailan erakutsi zuen eta horretan, Lhande bezalako aurreko gehienetik argiki bereizi zen, Orixe-ren salbuespen nabaria kentzen bada. Mitxelenarentzat, Euskal Literatura, euskaraz idazten den literatura da. Eta aukera hori, molde sendo batez berretsi zuen behin baino gehiagotan, hala nola 1981-ean argitaratu zuen azteketa batean: «Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak».

XIX. mende bukaerako eta XX. mende hastapeneko kritikari gehienek euskal gaiez erdaraz egiten zen literatura kondutan hartzen zuten. Lhandek⁽⁹³⁾, Baroja, Eleizalde eta Campion-en erdarazko liburuak RIEV-eko «Bulletin de littérature basque» sailean aztertu zituen Domingo Agirre eta Azkue-ren euskarazko eleberriekin batean. Eta garai bertsuan, Dibildos, Jean Lamarque edo Laurent ApesteGuy-rentzat ez zen mugarik hizkuntza mailan, «euskal gaia» erabilia zen ber. Ondorioz, L. ApesteGuy-k Mayi Elissague-n frantsesezko eleberriak eta beste liburu «erregionalista» asko euskal literatura bezala aurkeztu zituen. Gisa berean, Dibildos-en⁽⁹⁴⁾ ustez, Pierre Loti-ren *Ramuntcho* (1897) eleberriak euskal literaturaren egiazko hastapena markatu zuen eta, denbora berean, haren gailur gorena.

⁽⁹³⁾ J. Casenave, «Pierre Lhande eta euskal literaturaren historia», in *Jean Haritschelbar-ri omenaldia IKER* 22, Ed. Euskaltzaindia, 2008.

⁽⁹⁴⁾ E. Dibildos, “Les Basques: essai de psychologie pittoresque”, *Gure Herria*, 1921.

Mitxelenaren bigarren aukera nagusia eredu “nazionala”-rena izan zen. Berritz ere erran behar da eredu «nazionala» finkatu zuela eta ez «nazionalista». Hortan, Europa mailan eta Bigarren Gerlatik landa munduko parte gehienetan erabilia izan den eredia bereganatu zuen. Frantses literaturaren kasuan adibidez, hiru ezaugarri nagusi sarrarazten ziren definizioan: frantsesez idatzitako literatura, Frantziako mugen artean edo haren babes politikoan bizi ziren eskualdeetan egina⁽⁹⁵⁾ eta frantses kulturaren baitan sortua.

Ezin bestean, eredu «nazionala»-tik bi ezaugarri bakarrik hartu zituen kondutan Mitxelenak: hizkuntza eta kultura. Euskara erabilia izan zen eremu osoa onartu zuen bere azterketan, hots mugaz bi aldeetako eskualdeak. Beraz, ez zuen euskal eremu literarioa eredu politiko bati eratziki bainan ardatz linguistikoaren inguruan antolatu zuen.

Hirugarren aukera nagusia, estetika mailan egin zuen, “literatura”-ren definizioan hain zuzen. Hortan, Europako kulturaren nagusitu zen modernitatearen aukera egin zuen.

Ondorioz, korpus bildu baten hautua egin zuen eta hortan, ondotik datozen Villasante-ren eta Onaindia-ren liburuekin erabat bereizi behar da Mitxelena-ren liburua. Historia literarioaren metodologia euskal adibideari egokituz, irizpide literarioa edo estetikoak erabili zuen kanon baten eraikitzeke eta erran daiteke «kanon bildu» edo «hertsia» bat osatu zuela ikusiz idazle nagusi guti atxikitzen zituela bere pantheonean.

– Beste bi ezaugarri historiografiaren aldetik:

– Euskal literaturaren korpusa euskarazko testuekin bakarrik antolatu zuen, euskalki literarioek ekar zezaketen banaketa baino gorago ezartzen zuelarik, euskarazko obra nagusiek beren artean sortzen eta egiten zuten batasuna. Bukatzeko, Tx. Lasagasterren ustez, literaturak

⁽⁹⁵⁾ Bigarren gerlaz geroz gertatu zen dekolonizazio mugimenduaren ondotik, “literatura frankofo-
noa”-ren konzeptua garatu da emeki emeki, eztabaida frangoren artean.

gizartearekilako dituen harremanak behar bezala hartu zituen kondutan K. Mitxelenak, batez ere sorkuntza prozesuan.

3.2. *Literaturaren historia ala euskara idatziaren historia?*

Koldo Mitxelenaren *Historia de la literatura vasca* liburuak bihurtu bat markatu zuen euskal literaturaren historian. Eta haren ondotik etorri ziren historialari guziek muga bezala ezagutu zuten.

– Luis Villasante:

Ondoko urtean, erran nahi baita 1961, Luis Villasantek zenbait urte lehenagotik prestatzen zuen liburua ateratu zuen. Harek ere *Historia de la literatura vasca* deitu zuen eta Mitxelenak hitzaurrea egin zion. Sarrera luze eta sakon batean, bere helburu didaktikoa azaldu zuen Villasante-k. Haren ustez orduan eskuragarri ziren «Literaturaren Historiak» urriak eta eskasak ziren. Beraz, hutsune hori bete nahi izan zuen berea⁽⁹⁶⁾ apai-latzerakoan. Historiografia mailan, aukera nagusi batzuk egin zituen Villasantek. Egitura kronologikoa hautatu zuen eta, sartze orokor baten ondotik (Euskal Herriaren eta euskararen historia), autoreak mendeka sailkatu zituen, XVI. mendetik XX.era.

Bigarren hautuarekin, Mitxelenarengandik bereizi zuen bere burua. Mitxelenak obra literarioen kanon bildu baten aukera egin zuelarik, harek egin ahala zabala egin zuen. Gainera, sarreran garbi utzi zuen ber⁽⁹⁷⁾, ez zen literaturaren eremura mugatu. Euskaraz idatzi ziren idazlanen biltzera saiatu zen. Beraz, sail asko sarrarazi zituen horretan, nahiz

⁽⁹⁶⁾ Nota batean ezarri zuen K. Mitxelenaren *Historia de la literatura vasca* (1960) oraindik agertzekoa zela bere sarrera moldatu zuelarik

⁽⁹⁷⁾ «Nosotros queremos tomar el vocablo (literatura) en su sentido amplio de todo libro o publicación escrito en lengua vasca.», L. Villasante, *Historia de la literatura vasca*, 1961.

ahozkoaren mundutik izen bakar batzuk baizik ez zituen atxiki, hala nola Etxahun-Barkoxerena. Bainan, euskal ikasketetan ari izan ziren jakintsu askorenak erakarri zituen, Darrigol edo D'Iharce de Bidassouet bezalako euskaldunak ala berdin kanpokoak, Humboldt edo Dodgson adibidez. Haatik, bere garaikideak edo oraindik bizirik ziren autoreak ez zituen liburuan sartu.

Liburua aberatsa da dokumentazioaren aldetik, autore bakoitzari buruz, xehetasun biografiko ugari aurki baitaiteke. Denbora berean, ohar kritiko guti ezarri zuen Villasantek, gainera gehienak beste kritikari baten eskutik zirelarik, zitazio gisa emanak. Adibidez, Etxahun-Barkoxe koblakariaz, haren obraz ari izan ziren autoreak zitatu zituen 1961eko ediziorako, batez ere Pierre Lhande eta Jean Larrasquet, poesien 1946eko lehen argitalpenaren egileak⁽⁹⁸⁾. 1978ko *Historia de la literatura vasca*-ren bigarren edizioan, Jean Haritschelharen tesitik⁽⁹⁹⁾ jalgitako ohar zenbait gehitu zituen. Bainan, oro har, ez dakigu zein den Villasante-ren iritzia koblakari barkoxtarraren obraz. Villasante-ren ekarpena laburtu nahi bada, erran daiteke datu bilketa bat eskaini zuela eta euskal idatziaren historia egin zuela euskarazko literatura baino.

– Santiago Onaindia:

Gisa bereko lana egin zuen Santiago Onaindia-k zenbait urte berantago bainan, harek euskaraz idatzi zuen bere historia eta *Euskal literatura* deitu zuen. Sei liburukitan banatu zuen bere materiala, eta 1972tik 1990 arte argitaratu zituen. Hizkuntzaz gain, beste bi ezberdintasun badaude bilduma horietan Villasanteren liburuarekin konparatuz. S. Onaindiak, autoreak eta obrak aipatzerakoan, zati ugari eta batzuetan aski luzeak eman zituen, xehetasun biografiko eta bibliografikoen arte-

⁽⁹⁸⁾ Pierre Lhande-Jean Larrasquet, *Le poète Pierre Topet dit Etxahun et ses œuvres*, Ed. Euskalzaleen biltzarrak, 1946.

⁽⁹⁹⁾ Jean Haritschelhar, *Le poète Pierre-Topet-Etxahun. Contribution à l'étude de la poésie populaire basque du XIXe siècle*, Ed. Musée basque, 1969.

an. Bestalde, orduko euskal kulturaren norabide nagusiak eta bizi literarioaren zenbait berri eman zituen. Adibidez, kazetaritzaren gora behe-
rak ongi aztertu zituen, nahiz ez zuen zuzenki lotu literaturaren garape-
nari.

Bainan, aukera historiografikoen aldetik, ardatz nagusi bat aurkitzen da Santiago Onaindiaren liburuetan: idazleak euskalkiaren arabera sailkatu zituen. Periodizazio mailan ere, berezitasun bat bada bilduma horietan. Bigarren liburukiak XIX. mendea abantzu bere osotasunean hartzen du bere baitan. Ondoko hiruek, garai mugatu bat osatzen dute: hirugarrenak 1895-1920 urte aldia lantzen du, laugarrenak eta bosgarrenak «1910-1940» garaia. Historialari guziek azpimarratu dute mende erdi horren ekarpen nasaia eta berezia. Onaindiak ere garai horren garrantzia markatu zuen. Nahiz ez zuen zehazki argitu liburuen paratestuan, badirudi idazle belaunaldien arabera egin zuela bere sailkapena. Historiografia mailan ez da ongi agertzen zer erakutsi nahi zuen sailkapen horren bitartez. Egitasmo historiografiko argi baten faltarengatik, nahiz aberatsa den dokumentazioaren aldetik, Santiago Onaindiaren *Euskal literatura* datu bilketa bat bezala agertzen da.

– Garaiko beste izen batzuk:

Bernardo Estornes-ek askoren arteko literaturaren historia bat kudeatu zuen XX. mendeko 70-eko hamarkadan. Laguntzaileetan, Yon Etxaide, Nemesio Etxaniz, Aingeru Irigaray, Piarres Lafitte, Jesus Mari Leizaola, Juan San Martin eta Antonio Zavala bezalako adituak ukan zituen bainan, Estornes bera izan zen lan taldeko langile nagusia. *Enciclopedia general ilustrada del Pais vasco* izendatu zen hedapen handiko argitalpen bilduman, literaturaren gaia aurkezten zuten bost aleak⁽¹⁰⁰⁾ hartu

⁽¹⁰⁰⁾ *Enciclopedia general ilustrada del Pais vasco* bildumaren “Literatura” saileko bost aleak: I. 1969; II. 1970; III. 1973; IV. 1974; V. 1981.

zituen bere gain. Euskaraz idatzitako euskal literatura landu zuen idazlan horietan, aurkezpenak, azterketak eta idazki zati luzeak erakarriz. Dokumentazio mailan aberatsa izanik ere, bost aleko bilduma horrek ez du ardatz historiografiko garbirik eta egitura mailan aski nahasia da, azken alearen hitzaurrean egileak berak onartzen zuen bezala⁽¹⁰¹⁾.

Jon Etxaidek 1958an jalgi zuen *Amasei seme euskalerriko* liburua. Ez da euskal literaturaren historia. Halarik ere, aipatzea merezi du haren ondotik etorri ziren historia egileek garrantzi handiko datuak atxeman baitzituzten liburu hortan. Izenburuak argi uzten duenez, euskal literaturan izan diren hamasei autore nagusi hautatu eta aurkeztu zituen Jon Etxaidek. Bernart Etxepare zen zaharrena eta Jean-Baptiste Elizanburu berriena, artean zeudela besteak beste, Leizarraga, Axular, Mendiburu eta Mogel. Bestalde, ohartu behar da euskarazko idatziaren maisu horien artean, erdaraz ari izan ziren hizkuntzaren bi apologista aukeratu zituela (Astarloa eta Larramendi), baita ere Etxahun-Barkoxe koblakaria⁽¹⁰²⁾, ahozkoasunaren mundutik zetorrena. Euskal literaturaren irakurle argi baten lana eskaini zuen biografia bilduma horrekin. Hamaseietik ehunetara eraman zuen zerrenda zenbait urte berantago Nicolas Cortazarek, *Cien autores vascos* (1966) liburuan. XIX. mendeko bigarren partean izan ziren idazleak baita ere XX. mendekoak –hilak eta berdin bizirik zirenak– aipatu zituen molde guziz laburrean eta helburu historiografikorik gabe.

3.3. Giza zientzien ekarpena:

60ko hamarkadan, Koldo Mitxelena filologoak metodologia historiko zehatza erakarri zuen euskal literaturaren historiaren sailara. Ondoko

⁽¹⁰¹⁾ “Con este volumen V damos cima a la serie Literatura, pero ceñida a solamente aquella expresada en euskara. Hasta ahora hemos articulado un trabajo disperso y le hemos dado coherencia aportando nuevos datos y horizontes.” B. Estornes Lasa, *Enciclopedia General Ilustrada del País vasco*, «Literatura» V, “hitzaurrea”, 1981.

⁽¹⁰²⁾ Jon Etxaide, *Joanak Joan*, Etxahun-Barkoxe gipuzkeraz emana.

hamarkadan, 70ekoan, euskal literaturaren historian beste bihurgune nagusi bat gertatu zen. Ondoko ingurune kulturaletan, Lukacs, Valéry, Spitzer, Sartre, Barthes eta beste autore anitzei esker, aintzineko bi hamarkadetan gertatu zen kritikaren berritze teoriko eta metodologikoren ekarpena sartu zen euskal eremura, Patri Urkizu bezalako irakasle gazteak lekuko⁽¹⁰³⁾. Garai hartan gero eta sendoagoa bilakatu zen giza zientzien eragina literaturaren azterketa mailan. Eta euskal literaturaren historian ere sendi zitekeen, batez ere soziologiarena. Bi izen nagusi bereizi behar dira garaiko aditueta: Ibon Sarasola eta Joan Mari Torrealdai.

– Ibon Sarasola (1946):

Ibon Sarasolak garrantzi handiko bi liburu argitaratu zituen denbora labur batez, *Euskal literaturaren historia*⁽¹⁰⁴⁾ 1971n eta *Euskal literatura numerotan*⁽¹⁰⁵⁾, 1974an. Koldo Mitxelenak idatzi zuen euskal literatura bere kontestu historiko eta kulturalan landu behar zela. Horren egiteko, historia kulturalaren metodologia erabili behar zela zion *Historia de la literatura vasca* liburuaren egileak. Bide hortatik abiatu zen Ibon Sarasola *Euskal literaturaren historia* (1971) deitu liburuan.

Mitxelenaren aukerak errepikatu zituen liburu hartan. Harek egin zuen bezala, euskarazko obrak bakarrik kondutan hartu zituen Sarasolak, eta horietan helburu estetiko batez idatziak izan zirenak baizik ez zituen aztertu. Hots, hura ere, «kanon bildu» baten alde agertu zen.

Kanpoan lantzen ziren kontzeptu berri batzuk erakarri zituen Ibon Sarasolak, hala nola soziologia literarioarenak. Literatura gertakari estetiko eta sozial bezala aztertzeke xedea erakutsi zuen eta, *Euskal literaturaren historia* liburuaz egin zen erdarazko itzulpenean (J. A. Cid-en eskutik)

⁽¹⁰³⁾ Urkizu Patri, *Literatura eta kritika*, Lur, 1970.

⁽¹⁰⁴⁾ Sarasola Ibon, *Euskal literaturaren historia*, Lur, 1971.

⁽¹⁰⁵⁾ Sarasola Ibon, *Euskal literatura numerotan*, Lur, 1974.

izenburuan berean finkatu zuen helburu historiografiko hori, «social»⁽¹⁰⁶⁾ kalifikatiboa gehituz.

Kontzeptu historiko eta soziologiko horiek aplikatuz, periodizazio mailako aldaketa nagusi batzuk proposatu zituen, euskal literaturaren historia hiru atal nagusitan banatuz: 1545-1901; 1901-1964; 1964-1971. Periodizazio proposamen ausarta aintzintatu zuen garai moderno eta garaikideentzat, bi data nagusien gainean eraiki zuelarik periodizazio berria: 1901-1964.

Besteak beste, Lucien Goldmann soziologoaren azterbideak bereganatu zituen Historia hortan. Goldmann-ek gizartean dauden egiturak eta ekoizpen sistemak nahi izan zituen kurutzatu testuaren egiturekin, Jean Racine XVII. mendeko frantses antzerki idazlearen obran⁽¹⁰⁷⁾.

Aipatua izan den artikulu kritikoa, Tx. Lasagabaster-ek idatzi zuen Sarasolaren azterketa ez zela aski zehatza. Haren ustez, modu lausoan aplikatu zituen kanpotik erakarri zituen kontzeptu berriak. Lasagabasterrek zionez, Sarasolak egin zuen literaturaren ekoizpenean euskal gizartearen arazoak garbiki irakurgarriak izan balira bezala. Hots, Sarasola ispiluaren teoriaren zepoan erori zela pentsatzen zuen Tx. Lasagabaster-ek, zehaztasun historikoaren eskasarengatik.

Zenbait urte geroago, *Euskal literatura numerotan* (1975) argitaratu zuen Ibon Sarasolak. Liburu horretan ere, literatura aztertu zuen soziologiaren bidea segituz. Bainan aldi horretan, metodologia kuantitatiboa erabili zituen. Hain zuzen Bordeleko Unibertsitatean zegoen Robert Escarpit-ek paratu zituen urrasbideak⁽¹⁰⁸⁾ segitu zituen euskal liburgintza eta euskal idazlegoaren estrukturak ikertu beharrez. Lehen liburuan bezala, aintzindari agertu zen Ibon Sarasola bigarren honetan ere.

⁽¹⁰⁶⁾ Ibon Sarasola, *Historia social de la literatura vasca*, Akal, 1976 (Itzultzailea: J. A. Cid).

⁽¹⁰⁷⁾ Lucien Goldmann, *Le Dieu caché*, 1955.

⁽¹⁰⁸⁾ Robert Escarpit, *Sociologie de la littérature*, PUF, 1958. Askoren artean, (Robert Escarpit-en zuzendaritzapean), *Le littéraire et le social*, Flammarion, 1970.

– Joan Mari Torrealdai (1942):

Ibon Sarasolak abiatu zuen berritze metodologikoari segida eman zion Joan Mari Torrealdai-k 70eko hamarkadaren bukaeran, *Euskal Idazleak gaur* liburuarekin⁽¹⁰⁹⁾. Lan horretan, Robert Escarpit-ek finkatu oinarri soziologikoetatik abiatu zen ondoko urteetan eta eragin handiko inkesta argitaratu zuen 1977an: *Euskal idazleak gaur (Historia social de la lengua y literatura vascas)*⁽¹¹⁰⁾. Liburugintzaren historia eta bilakaera, baita ere haren gizarteratze prozesuak ikertu zituen estadistiken laguntzarekin.

Bestalde, bilakaera historiko eta soziologiko berbera bilatu zuen euskal idazleagoaren baitan. Tresna tekniko eta taulen ekarpenaz gain, idazlearen figura sozial eta sinbolikoa landu zuen argazki eta zerrenda berezi batzuen bitartez, *Euskal idazleak gaur* liburuan:

– «Las diez obras contemporaneas elegidas por los escritores» 318-319 orr.

– «Las diez firmas contemporaneas preferidas», 330-350 orr.

– «Hombres de pluma y accion», 359-375 orr.

– «Personalidades literarias varias», 396-399 orr.

Lehen aldikotz euskal kulturaren, molde ilustratu eta mediatiko batez, literatura garaikidearen baitako «kanon» bat eta «panteon» bat proposatu zituen.

Ondoko urteetan, abantzu urtero, euskal liburugintzaz bilduma bat egin du *Jakin* aldizkarian. Hogei urteren buruan, *Euskal idazleak gaur* liburuaren gisa bereko bigarren idazlan nagusia argitaratu zuen Torrealdai, *Euskal Kultura gaur*⁽¹¹¹⁾, deitu zuena. Liburugintzari buruzko datu bilketa nasaia (1976-2005) eta gogoeta sakon bat eskaini zituen 2007an, *30 urte liburugintzan* liburuan⁽¹¹²⁾.

⁽¹⁰⁹⁾ Torrealdai Joan Mari, *Euskal Idazleak gaur*, Jakin, 1977.

⁽¹¹⁰⁾ Torrealdai Joan Mari, *Euskal idazleak gaur, (Historia social de la lengua y literatura vascas)*, Jakin, 1977.

⁽¹¹¹⁾ Torrealdai Joan Mari, *Euskal Kultura gaur*, Jakin, 1997.

⁽¹¹²⁾ Torrealdai Joan Mari, *30 urte liburugintzan*, Jakin, 2007.

Horiez gain, beti 1997ko liburu elebidun hartan, euskararen eta euskal literaturaren historia aurkeztu zituen erdarazko partean («La historia social de la lengua y de la literatura vasca») ikuspegi sozial batetik. Autoreak bere aintzin solasean zion bezala, parte hori erdaraz baizik irakurtzen ari direnentzat egina zuen, euskal literaturaren bilakaeraren erakusteko gisa.

Beraz, 60ko hamarkadaren hastapenean Mitxelenarekin abiatu zen prozesuak ondorio argi batzuk bideratu zituen. 80ko hamarkadaren atarian finkaturik zegoen eredu historiografikoaren arabera, euskal literaturaren historian ondoko oinarriak kondutan hartuak ziren:

- Euskaraz idatzitako testuak dira euskal literaturan sartzen direnak.
- Europa mailako “Literaturaren definizio modernista” aplikatzen zaio euskal literaturari.

- Europa mailan, literaturaren historia egiterakoan erabiltzen diren bi metodologia nagusiak erakarriak izan dira euskal eremura: historikoa eta soziologikoa.

Laugarren Partea

4. Euskal literaturaren historia berria (1990-2010):

4.1. "Historiak" ugaritu (1980-2000):

– Eskaera indartu, eskaintza joritu:

I. Sarasola eta J. M. Torrealdei ikerlarien garrantzi handiko ekarpenek XX. mendeko 70eko hamarkada markatu zuten. Ondoko hiru hamarkadetan, eskola eta unibertsitateko sail berriek premia handiko beharrak agerrarazi zituzten. Literaturaren irakasteko, esku liburuak eta dokumentazioa argitaratzen hasi ziren. Garai berean, euskal literaturaren historiak ugaritu ziren.

Historia orokorrak izan dira:

- *Historia de la literatura euskerika*, Luis Mari Mujika, 1979.
- *Literatura vasca*, Jon Juaristi, 1987.
- *Précis de littérature basque*, Jean-Baptiste Orpustan, 1996.
- *Euskal kultura gaur*, (Liburuaren mundua), Joan Mari Torrealdei, 1997.
- *Euskal literaturaren historia txikia*, Jon Kortazar, 1997.
- *Historia de la literatura vasca*, Askoren artean, Patri Urkizu-ren zuzendaritzapean, 2000.

Edo, bestela, literaturaren eremu batena baita ere garai mugatu batena:

- *Euskal teatroaren historia*, Patri Urkizu, 1978.

- *Abozko literatura*, Juan Mari Lekuona, 1982.
- *Gerraondoko poesiaren historia*, Josu Landa, 1983.
- *Euskal eleberriaren kondaira*, Gotzon Garate, 1983-1985.
- *Literatura vasca. Siglo XX*, Jon Kortazar, 1990.
- *Euskal haur eta gazte literatura*, Xabier Etxaniz, 1997.

Hemen ematen den “historia” horien zerrenda ez da exhaustiboa. Nahiz ez diren bat heldu edukien aldetik baita ere iritzi kritikoei begira, ageri da liburu horien autore guziek barneratu dituztela Mitxelenez geroz onartzen diren oinarri historiografikoak.

Lehenik, denek “euskal literaturaren historia” geografia mailan osaturik (Iparraldea eta Hegoalde guzia) aurkezten dute. Hots, Euskal Herriari aplikatzen diote beste erresumetan erabiltzen den “eredu nazionala”. Bigarrenik, euskaraz idatziak izan diren obrak baizik ez dituzte aztertzen. Hirugarrenik, nagusiki, testu literarioen aukera “modernista” egiten dute, beste gaineratikoak baztertuz. Beraz, oinarri historiografikoak kondutan hartzen badira, erran daiteke eredu historiografiko bateratu bat badela egungo egunean.

- Sail berri zenbait:

Azken mende laurdenean, sail berri batzuk ideki dira euskal literaturaren historian, Koldo Mitxelena edo Ibon Sarasola bezalako autoreen historia orokorretatik kanpo. Lehenik, diakroniaren ikuspegitik mugatuak ziren saioak agertu dira, adibidez, Jon Kortazar-en *XX. garren mendeko euskal literatura*⁽¹¹³⁾. Bigarrenik, genero edo azpi-sailaren aldetik zehaztuak ziren idazlanak izan dira: adibidez, Juan Mari Lekuonaren *Abozko literatura* (1982) edo Xabier Etxaniz-en *Euskal haur eta gazte literaturaren historia* (1997). Hirugarrenik, aurreko bi kategoriak batera kondutan hartu dituztenak ere izan dira: adibidez, Marijo Olaziregi-ren *Euskal eleberriaren*

⁽¹¹³⁾ Jon Kortazar, *Literatura vasca, Siglo XX*, Etor, 1990.

historia (1999). Ondoko lerroetan, aipatu sail horietatik biga aztertuko dira molde berezi batez.

Ahozko literatura liburuarekin, Juan Mari Lekuonak sail berri bati eman zion hasiera 1982an. Ahozko literaturaz, XX. mendeko kritikaren oinarriak erabiltzen dituen lehen ikuspegi orokorra da. Haren helburua ez zen, aurreko autoreek⁽¹¹⁴⁾ egin zuten bezala, antologia baten egitea, baizik eta azterketa baten erematea, ordu arte bigarren mailako sail bezala ikusia zen gai batez. Ikerketak ahozko literaturaren sartze guziak erabili zituen: koplak zaharrak eta erromantzeak, bertsolarien sorkuntza, herri teatroa, kontaera, atsotitzak, etb.

Juan Mari Lekuonak ikuspegi historikoa landu zuen ahozko literaturaren genero eta azpi sailen bilakaera aztertuz; adibidez, garaiaren arabera, bertsolaritza izen nagusiak aipatu zituen. Denbora berean, gaiak ikuspegi soziologiko batetik ikertu zituen, gizarte mailako ingurumena erakutsiz, bertsolarien kasuan edo ihauteri garaiko maskaradentzat.

Lan zehatz horren bitartez, Juan Mari Lekuonak sintesi bat eskaini zuen ahozko sorkuntzaz, eremu helgaitz eta ulergaitz horren integrazteko euskal literaturaren historiaren baitan. Gisa bereko lana egin zuen Denis Laborde antropologoak bertsolaritza idatzi zituen argitarapenetan⁽¹¹⁵⁾.

Bigarren adibidea, «Haur eta gazte literatura» saila da sorkuntzaren aldetik eta literatura sail bezala, 80ko eta 90eko hamarkadetan garatu da, euskarazko eskolatzea hedatzearekin batean. Xabier Etxaniz⁽¹¹⁶⁾ eta

⁽¹¹⁴⁾ Manuel lekuona, *Literatura oral euskérica*, Donostia, 1935; Resurreccion Maria Azkue, *Euskalerraren yakintza*, Madrid, 1935-1945.

⁽¹¹⁵⁾ Denis Laborde, «Une archéologie du bertsolarisme», in Antoine d'Abbadie (1897-1997), arg. Eusko Ikaskuntza / Euskaltzaindia, 1998; *La Mémoire et l'instant*, Elkar, 2005.

⁽¹¹⁶⁾ Xabier Etxaniz, *Haur eta gazte literatura*, Pamiela, 1997; *Euskal Haur eta gazte literaturaren historia*, Pamiela, 1997; (Manu Lopez-ekin batean) *90-eko hamarkadako Haur eta gazte literatura*, Pamiela, 2005.

Manu Lopez⁽¹¹⁷⁾ ikerleei esker sail berri hori sartu zen euskal literaturaren historian. Biek, ikerle eta irakaslegaien formatzaile bezala, sail berri hori landu zuten. “Haur eta gazte literatura” egungo irakaskuntzarako formakuntzan garrantzi handiko ikasgaia bilakatua da.

Bi ikerle horiek sartze teoriko sendoa eman zioten “Haur eta gazte literatura”ri. Sistema konplexu bezala erakutsi zuten eta ekarpen erregularra egin zioten eguneratzeak proposatuz ekoizpena indartu arau. Gaur egun, “Haur eta gazte literatura” sail autonomo bezala ikusia da euskal literaturaren historiaren baitan beste kultura garatuetan bezala.

– Ikuspegi kritikoa:

Jon Juaristik euskal literaturaren historia bat (*Literatura vasca*⁽¹¹⁸⁾) argitaratu zuen 1987an. K. Mitxelenak bere garaian egin zuen bezala, Jon Juaristik Españaiko literaturaz egindako bilduma batean⁽¹¹⁹⁾ sarrarazi zuen bere historia, Kataluñako edo Galiziako literaturez idatzitako azterketekin batera.

Oinarrien aldetik, Koldo Mitxelenak egin zituen aukera historiko eta soziologiko berdintsuak egin zituen Jon Juaristik eta Ibon Sarasolaren lanaren gainean bermatu zen.

Liburuak dakartzkien berezitasunen artean, erran daiteke ikuspegi konparatista dela oinarri metodologiko nagusia lan hortan, kultura gune garatuagoetan gertatua euskal eremuarenarekin parekatzeko gisa. Denbora berean, euskal literaturaren baitako hausdurak eta une gako (gehienak, eztabaida uneak) azpimarratuak dira. Horien artean, ondoko hiruak aipa daitezke:

⁽¹¹⁷⁾ Manu Lopez, *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura*, EHU, 2000; *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan*, Utriusque Vasconiae, 2005; (Xabier Etxaniz-ekin batean) *90eko hamarkadako Haur eta gazte literatura*, Pamiela, 2005

⁽¹¹⁸⁾ Juaristi Jon, *Literatura vasca*, Taurus, 1987.

⁽¹¹⁹⁾ «Historia critica de la Literatura Hispanica», 29. alea.

- XVI. mendean, mendiez bi eskualdeetan izan den sorginen aurka-ko errepresioa, jende xehea eta eliteen (Eliza eta Noblezia) arteko gatazka bezala aztertu zuen.
- XVIII. mende ondarrean eta XIX. mende hastapenean izan zen kontserbadore eta progresisten arteko oposaketa argitu zuen Juan Antonio Mogelen *Peru Abarka*-ren bitartez.
- XIX. mende bukaeran Estatu handiek (Españak eta Frantziak kasu hortan) zekarten “modernitate europarra” eta euskal munduaren arteko hausdura erakutsi zuen Unamuno eta Aranaren artean izan zen borroka ideologikoaren bidez.

Euskal literaturaren bilakaeran, XX. mendeko bigarren partean argitaratu den ekoizpenari arta berezi batez kasu eman zion. Kanpoko eragina euskaraz egokitzea lortu duten idazle garaikideak, hala nola Ramon Saizarbitoria “Nouveau Roman” mugimenduaren kasuan, *Egunero hasten delako*⁽¹²⁰⁾ (1969) eta *Ene Jesus* (1976) eleberrietan edo Ibon Sarasola poesiaren aldetik (*Poemagintza*⁽¹²¹⁾, 1969).

Lehenago garaiak ere gogoetatu zituen, Errenazimentu garaia kasuan adibidez. Ihauterien karietan agertzen ziren sorkuntza kolektiboak (Maskarada, Toberak, etb.) balio kulturala baita ere literarioa ematen zizkien, Mikhaïl Bakhtine⁽¹²²⁾ errusiar ikerleak Rabelais frantses idazlearen argitzeko egin zuen bezala. Mementoko, ez da horrelako ikerketarik egin euskal eremuan ahozko mundutik etorritako ekoizpenen ikertzeko. Beraz, kritikaren gabeziak ere kondutan hartu zituen bere ikuspegi historiografikoa osatzerakoan.

- Historialarien eta kritikarien ekarpena:

Azken hogeita hamar urte hauetan, bi ekarpen mota guziz garrantzitsuak izan dira euskal literaturaren historiarentzat: historia saileko iker-

⁽¹²⁰⁾ Ramon Saizarbitoria, *Egunero hasten delako*, Lur, 1969; *Ene Jesus*, Kriseilu, 1976.

⁽¹²¹⁾ Sarasola Ibon, *Poemagintza*, Lur, 1969.

⁽¹²²⁾ Bakhtine Mikhaïl, *L'œuvre de François Rabelais*, Gallimard, 1970 (frantses itzulpena).

ketak eta kritika sailean egin direnak. Historialarien lanen artean, bi idazlan aipatu behar dira. Lehena, Manex Goyhenetche-k idatzia du 1993an: «Les origines sociales de l'association Eskualzaleen Biltzarra⁽¹²³⁾». Artikulu hartan, euskararen aldeko instituzio baten sortzea eta gizarte mailako eragina erakutsi zuen autoreak, garaiko iturriak erabiliz.

Garai berari buruz eta jende berdinez Mikel Zalbide-k «Hendaia-Hondarribietako biltzarrak: XX. mendeko hizkuntza plangintzaren iturburu»⁽¹²⁴⁾ izeneko idazlana argitaratu du, 2003an. Ikerlariak erakusten du orduko eztabaidek eta gogoetek garrantzi handia ukan dutela hizkuntza literarioaren garapenaren aldetik. Lan hori guziz erakargarria da euskal literaturaren historialariarentzat. Era berean, Jurgi Kintanak bi urte lehenago Azkueren figuraz eta lanaz publikatu zuen liburua⁽¹²⁵⁾ funtsezkoa izan da XX. mende hastapeneko giro intelektualaren ulertzeko.

XX. mendeko azken laurdenean, literaturaren kritikariak ere laguntza handia eman diete euskal literaturaren historialariei. Sail honetan, behin hasiz geroz zerrenda luzeegia litzateke. Halere, aipa daiteke eredu gisa gelditu den ekarpena, hots Joxe Azurmendi-k Orixez egin duen ikerketa bikoitza: *Zer dugu ORIXEren kontra?*⁽¹²⁶⁾ eta *Zer dugu ORIXEren alde?*.

– Historia literarioaren bukaera eta gailurra: Jean-Baptiste Orpustan.

Historia literarioaren metodologiak bere emaitza ontuena eman du XX. ondarrean, eta denbora berean, gisa hortako azken emaitza J. B. Orpustanen *Précis d'Histoire littéraire* (1996)⁽¹²⁷⁾ liburuarekin. Mitxelena

⁽¹²³⁾ Goyhenetche, Manex, «Les origines sociales de l'association Eskualzaleen Biltzarra (1893-1913)», *Bulletin du Musée basque*, 1993.

⁽¹²⁴⁾ Zalbide Mikel, «Hendaia-Hondarribietako biltzarrak: XX.mendeko hizkuntza plangintzaren iturburu», in Zenbait egile, *Eskualzaleen Biltzarraren mendeurrena*, Sabino Arana Kultur Elkargoa, 2003.

⁽¹²⁵⁾ Kintana Jurgi, *Vizcaytik Bizkaira?*, Euskaltzaindia-BBK, 2002.

⁽¹²⁶⁾ Azurmendi Joxe, *Zer dugu ORIXEren kontra?*, *Jakin*, 1976 ; *Zer dugu ORIXEren alde?*, *Jakin*, 1977.

⁽¹²⁷⁾ Orpustan Jean-Baptiste., *Précis d'histoire littéraire basque*, Ed. Izpegi, 1996.

abiatu zen bidetik ibili da Jean-Baptiste Orpustan. Bainan, Mitxelenak egin zuen Historia osatzen du ondoko ponduetan:

- Autore nagusi gehienentzat azterketa monografikoa idazten du. Idazle horietatik asko guti aipatuak izan ziren ordu arte. Liburu hortan, lehen aldirako sakonki aztertuak dira Oihenart, Monho eta Elizanburu bezalako idazleak. Halarik ere erran daiteke monografia sakonenetan, Iparraldeko autoreak hobetsiak direla, Hegoaldekoak baino, nahiz badiren salbuespen interesgarri batzuk: Juan Antonio Mogel-n *Peru Abarca* edo Lizardi-ren obra poetikoa.
- Monografiak ez dira autoreen biografiak bakarrik. Obra nagusietatik hartu garrantzi handiko zati aski luzeak aztertuak dira eta aipamen asko aurkitzen da kapitulu ezberdinetan.
- Azterketa historiografikoa Mitxelenak baino gehiago sakontzen du J. B. Orpustan-ek, gertakari soziohistorikoez sorkuntzaren baitan ukan duten eragina barnatuz. Gainera, garai bakoitzarentzat, kronologia orokor bat ematen du garbiki erakusteko zein ziren orduko euskal gizartearen harat hunatak, baita ere inguruko erresumetan izan zirenak.
- Gisa berean, estetika eta kultura arloetako oharrak egiten ditu. Ahal duelarik, Europa mailako mugimendu kultural eta estetikoekin izan diren harremanak lantzen ditu.
- Aukera berri batzuk badira periodizazioaren aldetik. Adibide gisa ondoko hau aipa daiteke: XIX. mende guzira garai bakar batean sarrarazten du («L'âge romantique dans les Lettres Basques 1816-1907»), beste historialari guzietatik garaia era ezberdin batez antolatzen eta zatitzen dutelarik.

Hautu hortarik ezagun da frantses kulturari egin diola kondu handia, Frantziak ezagutu duen peridozio historikoaren gainean bermatzen delako euskal literaturarena egiterakoan. Besteak beste, 1789ko Iraultzari bihurgune baten balioa ematen dio eta Napoléon-en Lehen Inperioaren bukaera garai baten muga bezala erabiltzen du. Bukatzeko, erran daiteke, J. B. Orpustan-en *Euskal literaturaren historiak* garai bat bat

hesten duela euskal ikasketetan, hain zuzen historia literarioarena, bere oinarritzko zentzuan.

4.2. Eguneratze teoriko bat:

– Bihurgune teorikoa literaturaren historian:

80ko hamarkadan, euskal kritikaren sailean bihurgune bat gertatu zen. Bihurgune hori teorikoa deitzen ahal da, inguruko kultura garatuetan erabilitako teoria literarioak garai hartan erakarriak baitziren euskal eremura. Itxura berri bat eman zion euskal literaturaren azterketari. Erresumen arteko erreferentzia berri horien erabiltzeak, legitimitate intelektual gehiago ekarri zion euskarazko kritikari baita ere euskal literaturaren historiari. Ordu artekoa, hein handi batean “defentsiboa” izan zela erran daiteke. Kanpoko aditu eta behazaleen aurrean, nahi ala ez, frogatu behar zen euskal literatura bat bazela. Erakutsi behar zen ere, “objektu” zientifiko bezala bizirik zegoela inguruko literaturen artean, maila apalago batean izanik ere.

Azken batez, adierazpen historikoan, eztabaida ideologiko baten mugen artean ibili behar zen. Beste gisa batez erranez, besteen artean “izaiteko” eskubidearen eskakizuna luzatu behar zen historia egiterakotan. 90eko hamarkadan, Jon Juaristik idatzi zituen liburuek⁽¹²⁸⁾ polemika sortu zuten eta haiei egin ziren erantzun biziak ongi erakutsi zuten borroka ideologiko baten giroan gertatzen zirela eztabaida historikoak.

Tx. Lasgabasterrek egunaratze teorikoa eta zehaztasun intelektuala eskatzen zituen gorago aipatu historiografiari buruzko artikuluan. Eta, preseski, horrelako eguneratze bat gertatu da XX. mendeko 80 eta 90eko hamarkadetan. Irakasle eta ikerle bezala, Txuma Lasgabasterrek

⁽¹²⁸⁾ Jon Juaristi, *El linaje de Aitor*, Taurus, 1987; *El bucle melancólico*, Espasa, 1997.

eragin ohargarria ukan du mugimendu hortan. Kanpoan erabiliak ziren metodologiak euskal literaturaren azterketari egokituak izan dira 80eko hamarkadatik hona: semiotika, harreraren estetika eta irakurleari buruzko teoriak, literaturaren soziologia, etb.

Gisa batez, Europako kultura garatuetan mailegatu testugintzaren teoriaren bitartez, beste legitimitate bat aurkitu zuen euskal literaturaren kritikak, legitimitate zientifiko bat nolabait errateko. “Zientifikotasun” nahikunde horri esker, euskal literaturari buruzko azterketa borroka ideologikotik jalgi zen, 80ko hamarkadan, eztabaida beste eremu batean gertatzen zelako testura mugatzerakoan.

Hor dira, bihurtune teoriko horren lekuko ordutik hona aurkeztuak izan diren tesi nagusiak⁽¹²⁹⁾, Ana Toledo, Jon Kortazar, Karlos Otegi, Lourdes Otaegi, Aurelia Arkotxa, Mari Jose Olaziregi, Iñaki Aldekoa, Paulo Iztueta, Xabier Altzibar, Ur Apalategi bezalako ikerleek argitaratu eman dituzten ikerlanak.

Denbora berean, ikerle gehienak irakasleak ziren eta gisa hortan, kritika berritzearen lana eta haren transmisioa obratzen zuten klasearen baitan ere. Izen horiei beste batzuk gehitu behar dira, hala nola Jean Haritschelhar, Juan Mari Lekuona, Gotzon Garate, Mikel Zarate, Anjel Zelaieta, etb. Horiek, laurogeieko hamarkadan hasi ziren lan teorikoak eta dibulgazio lanak argitaratzen bainan, aintzineko hamarkadan, jadanik hasiak ziren irakasten eta 80ko eta 90eko hamarkadetan tesia egiten ariko ziren ikasleen formatzen.

Bukatzeko, bitartekari horien artean, Ramon Saizarbitoria⁽¹³⁰⁾, Anjel Lertxundi⁽¹³¹⁾, Koldo izagirre⁽¹³²⁾, Bernardo Atxaga⁽¹³³⁾, Joseba Sarrion-

⁽¹²⁹⁾ Ikus Tesi horien zerrenda liburu honen bibliografian. Tesietatik kanpo, beste funtsezko lan batzuk hartu behar dira kontutan: J. Azurmendirenak Orixe eta Mirande-ri buruz, adibidez.

⁽¹³⁰⁾ Ramon Saizarbitoria, *Aberriaren alde (eta kontra)*, Alberdania, 1999.

⁽¹³¹⁾ Anjel Lertxundi, *Gogoa zubi*, Alberdania, 1999.

⁽¹³²⁾ Koldo Izagirre, *Incursiones en territorio enemigo*, Pamiela, 1997.

⁽¹³³⁾ Bernardo Atxaga, *Lekuak*, Pamiela, 2005.

naindia⁽¹³⁴⁾, Jon Alonso⁽¹³⁵⁾, Iban Zaldua⁽¹³⁶⁾, etb. bezalako idazleak ere kondatu behar dira. Saiakera eta artikulu askoren bitartez, literaturaren kritikari buruzko gogoeta berritu, aberastu eta indartu dute.

Garai hartako historia intelektuala egitekoa da oraindik eta ez du balio datu bilketa zehatz eta sistematikorik gabe azterketa hortan luzatzea. Halarik ere, han hemenka garai haren berri aurki daiteke⁽¹³⁷⁾.

– Kontzeptuen mailegatzea: modernitatea, literaturtasuna, haustura, etb.

Azterketa bide berriekin batera, literaturaren historia sailean kanpoko kritikariak erabiltzen zituzten kontzeptu nagusiak sartu ziren euskal eremura. Aurreko kapituluan ikusi bezala, Europako 60ko “kritika berriaren” mailegatze mugimendua 1970eko hamarkadaren hastapenean hasi zen euskal ikasketetan. Patri Urkizu⁽¹³⁸⁾, Ibon Sarasola⁽¹³⁹⁾, Joxe Azurmendi⁽¹⁴⁰⁾, Karlos Otegi⁽¹⁴¹⁾, Joan Mari Torrealdai⁽¹⁴²⁾ bezalako ikerleak izan ziren, besteak beste, beren liburuen bitartez mailegatze teoriko horren eragile nagusietatik zenbait.

Kontzeptuen mailegatze prozesua ez da gauza berria. Lehen aipatu bezala, Mitxelenak “Europako modernitate» literarioaren kontzeptu orokorrak sarrarazi zituen euskal alorrera bere 1960ko *Historia de la literatura vasca* liburuan. Hark zituen lehen aldirako argiki bereizi literatura saileko testuak besteetatik. Ontzat hartu zuen Europako sortzaileek eta kritikariak literaturari ematen dioten zentzu hertsia: helburu estetiko batekin idatzia den idazlana. Mitxelenaren ondotik, “Euskal kanona”, “euskarazko kanona” bihurtu zen, eta, besterik gabe, “literarioa”.

⁽¹³⁴⁾ Joseba Sarrionaindia, *Marginalia*, 1988.

⁽¹³⁵⁾ Jon Alonso, *Idiaren eraman bandia*, Euskaltzaindia, BBK, 1995.

⁽¹³⁶⁾ Iban zaldua, *Obabako tranbia*, Alberdania, 2002.

⁽¹³⁷⁾ Hasier Etxebarria, *Bost idazle*, Alberdania, 2002.

⁽¹³⁸⁾ Patri Urkizu, *Literatura eta kritika*, Lur, 1970.

⁽¹³⁹⁾ Ibon Sarasola, *Euskal literaturaren historia*, Lur, 1971; *Euskal literatura numerotan*, Kriselu, 1975.

⁽¹⁴⁰⁾ Joxe Azurmendi, *Zer dugu Orixe-ren alde?*, Jakin, 1977; *Zer dugu Orixe-ren kontra?*, Jakin, 1976.

⁽¹⁴¹⁾ Karlos Otegi, *Pertsonaia euskal nobelagintzan*, Gero, 1976.

⁽¹⁴²⁾ Joan-Mari Torrealdai, *Euskal Idazleak gaur*, Jakin, 1977.

Aurreko partean ikusi bezala, Modernitatearen oinarritzko eta funtsezko definizio horri, Ibon Sarasolak eta Joan Mari Torrealdaik soziologiaren kontzeptuak eta metodologiak erakarri zituzten, 1970eko hamarkadan. Joan Mari Torrealdaik katalogoak, zerrendak eta mota ezberdinetako sailkapenak sarrarazi zituen: “gerra osteko liburugintza”, “hamar firma garaikide preziatuenak”. Denbora berean, literaturaren historiak jadanik erabiltzen zituen kontzeptu soziologiko batzuk, hala nola “belaunaldiak” erakarri zituen, baita ere literaturatik eta, oro har, historia kulturaletik hartu zituen beste batzuk, “abangoardia” edo “engaiamendua” (gizon konprometituak), adibidez.

Estrukturalistek, “Annales” deitu Historia eskolakoek eta Michel Foucault gisako historialariek, epe luzeko jarraipenaren pareko bezala, asko baliatu zuten “Haustura”-ren kontzeptua erakusteko nola ibiltzen zen aurrera prozesu historikoa. Ahal bezala, “Haustura” euskal literaturaren historiari egokitu zitzaion. Hausturarena, belaunaldiaren kontzeptuari lotuz, “Periodizazio” saio berri batzuk aurkeztu ziren. Aldaera horren lekuko gisa, orroitaraz daiteke aurreko partean jadanik aipatua izan den Ibon Sarasolaren garai banaketaren proposamena: 1545-1901 / 1901-1964 / 1964-1971 (*Euskal literaturaren historia*, 1971).

Euskal literaturaren historia, molde inplizito batez, errebendikazio gisa egina izan zen 80ko hamarkada arte, ezagutza eskaera baten gisa. Ordutik hara, normalkuntza bat gertatu zen, gorago aztertutako bihurtune teorikoari esker. Bigarren eragile bat izan da ere euskal literaturaren historiaren berritze baten alde, hain zuzen euskarazko irakaskuntza. Lehen erran bezala, euskal literaturaren historiak orduan baitzuen aurkitu bere hartzailego instituzionala, ikasle eta irakasleengan.

– “Bihurtune teorikoaren” ekarpena literaturaren historia mailan:

Urte horietan egin diren ikerketa gehienak azterketa monografikoak izan dira batez ere, autore bat, obra multzo bat edo obra berezi bat zute-larik gai nagusia. Aztertuak izan diren autoreen artean, batzuk baziren

jadanik hilak (Domingo Agirre, Jean Etxepare, Orixe, Lauaxeta, Lizardi, Gabriel Aresti, etb.) Beste “tesi gai zenbait”, aldiz, bizi ziren eta oso gazteak gainera, Bernardo Atxagaren kasuan adibidez. Ikerle guziek oinarri teoriko berriak erabili zituzten beren lanean. Azterketa monografiko horien denboraldia ez da oraindik bukatua ikusiz azken urte hauetan Manex Erdozaintzi-Etxartez tesi bat⁽¹⁴³⁾ egin dela baita ere bi ikerketa Saizarbitoriaren obraz, Ur Apalategik⁽¹⁴⁴⁾ eta Mikel Hernandez-ek⁽¹⁴⁵⁾ aurkezturik.

Euskal literaturaren historiarentzat guziz erakargarria izan da “monografien une kritikoa” eta bi ekarpen mota egin dira. Alde batetik, tesi egileek Europa eta mundu mailako kritika bide berriak sarrarazi zituzten euskal eremura, hala nola semiotika Ana Toledo eta Karlos Otegiren kasuan, baita ere literaturaren soziologia edo harreraren problematika Marijo Olaziregi eta Ur Apaletegiren aldetik. Bestaldetik, hamar urtez “kanon literario” berri bat finkatua izan da tesi horien bitartez. 80ko hamarkada arte kanonizatuak izan ziren autore eta obra nagusiak (K. Mitxelena, L. Villasante, S. Onaindia, I. Sarasola, J. M. Torrealdei, etb.) baieztatuak izan dira karia hortara: Juan-Antonio Mogel, Domingo Agirre, Jean Etxepare, Lauaxeta, Lizardi, etb. Bestalde, garaikideak eta bizi diren idazleak bilakatu dira “tesi gai”, Bernardo Atxaga delarik kasu nabariena⁽¹⁴⁶⁾. Bigarren ohar honi segidaren emateko, erran daiteke “gai” zerrenda hortarik ikus daitekeela “garaikidetasuna”-k hartu duen garrantzia egungo kritikaren lanean.

⁽¹⁴³⁾ Agurtzane Ortiz Lopetegi, *Manex Erdozaintzi-Etxart, Herriaren poeta*, Ed. Elkar, 2010.

⁽¹⁴⁴⁾ Ur Apalategi, *La naissance de l'écrivain basque*, Ed. L'Harmattan, 2000.

⁽¹⁴⁵⁾ Mikel Hernandez Abaitua, *Ramon Saizarbitoria, leben eleberrigintza*, Ed. Euskal Herriko Unibertsitatea, 2008.

⁽¹⁴⁶⁾ Bernardo Atxagaren obraz hiru tesi izan dira. Hona, tesi horietatik ateraia diren liburuak: Mari Jose Olaziregi, *Bernardo Atxagaren irakurlea*, Ed. Erein, 1998; Ur Apalategi, *La naissance de l'écrivain basque*, Ed. L'Harmattan, 2000; Joana Pochelu, *Etude d'un dossier génétique fragmentaire. Réécriture. Écriture. Désécriture dans Le fils de l'accordéoniste de Bernardo Atxaga*, Université Michel de Montaigne, 2010.

Bainan, Iñaki Aldekoak idatzi duen Historiaren⁽¹⁴⁷⁾ kontra-azalean, Mikel Hernandez Abaituak dio monografia asko falta dela oraindik euskal literaturaren historia baten osatzeko molde eroso batez. Aurkezpen hortan, M. Hernandez Abaituak azpimarratzen du ere I. Aldekoak berak bete dituela ordu arteko hutsuneak bere “Historia orokorra” idatzi duelarik, autore eta obra askoz ez baita kasik deus aurkitzen eginik kritika mailan.

- Historiografiaz ikuspegi kritikoa: Txuma Lasagabasterren ikerketa egitaraua.

Goiago aipatu ikerlanean, (“La historiografía literaria vasca. Aproximación crítico bibliográfica” 1983), Tx. Lasagabasterrek Euskal literaturaren historiari buruz azterketa kritiko bat eskaini zuen. Ikuspegi historikoaz gain, euskal literaturaren historiaren hobetzeko eta gaurko-tzeko egin beharrekoa zen ikerketa programa finkatu zuen; haren laburtzeko, ondoko hiru proposamenetan bil daiteke:

- *Lehen proposamena metodologikoa zen.* Tx. Lasagabasterrek zion literatura jarduera sozial bat bezala ulertzekoa zela. Ondorioz, haren azterketa historikoa egin behar zen ikuspegi soziohistoriko zabal baten baitan. Ikuspegi horren gauzatzeko, XX. mendeko azken partean eremu kultural garatuetan pentsatuak eta erabiliak izan ziren aztertze bide berriak erakarri behar zirela euskal eremura: beraz, giza zientzietatik (soziologia, psikanalisia, mentalitateen historia, etb.) eta testugintzatik (hizkuntzalaritza, semiotika, pragmatika, etb.) etortzen ziren ekarpenak erabili behar zirela. Hots, aldaketa metodologikoa eta zientifikoa eskatzen zuen.
- *Bigarren proposamena:* hizkuntzaren historia eta literaturaren historiaren arteko lotura indartu behar zela. Badirudi paradoxala dela pro-

⁽¹⁴⁷⁾ Iñaki Aldekoa, *Euskal literaturaren historia*, Erein, 2008.

posamen hori: egia da luzaz literaturaren azterketa hizkuntzaren azterketaren menpean egon dela euskal ikasketan. J. Urkixok eta XX. mende hastapeneko ikerleek erabili zuten “eredu filologikoa” hori dugu lekuko. Baina, Txuma Lasagabasterrek ez zuen atzera joan nahi bide hori erakustean. Euskal ikasketen eremuan ere, ikerketa literarioek emeki emeki beren askatasuna ardietsi zuten eta ez zuen egoera berria zalantzan emaiten. Halarik ere, iduritzen zitzaien, euskal kontestu soziolinguistikoa kontutan hartu behar zela euskal literaturaren ikertzeko. Alabainan, euskarak ezagutzen duen egoera larriak bezain bereziak baldintzatzen baitu euskarazko literaturaren bizia. Gisa hortan, parametro nagusia da egoera diglosikoak sorkuntza mailan duen eragina.

- *Hirugarren proposamena*: hiruetatik zailena zen betetzeko. Euskal eremu kulturean aspaldidanik bizi dugun egoera konplexua azpimarratzen zuen Lasagabasterrek. Tradizio kultural hirukoitza aurkitzen da azken mende hauetan Euskal Herrian, hiruzpalau⁽¹⁴⁸⁾ hizkuntzen bizigunea delako. Eta Lasagabasterrek zion, gisa batez edo bestez, ainiztasun hori behar litzatekeela kontutan hartu. Baina, berak aitortzen zuen xede guziz helgaitza zela eta, memento-ko, ezin bestean, euskarazko sorkuntza baizik aztertzen dela euskal literatura gisa.

Bukatzeko eta laburbiltzeko, erran daiteke Txuma. Lasagabasterrek «euskal literaturaren historia berritu» bat eskatzen zuela hedadura handiko egitarau horren bitartez.

- Historiak ugari, eredu bakarra:

Egitarau hori ez da arras bete 1990 eta 2000 hamarkadetan. Halarik ere, funtsezko aldaketa batzuk agertu dira ondoko kapituluan ageriko

⁽¹⁴⁸⁾ Historiari begira gaskoina ere kontutan hartzekoa da gaztelera, frantsesa eta euskararen artean.

den bezala. Oro har, XX. mende ondarrean hartutako aukera nagusiak indartuz joan dira anartean. 2000tik hona, «Euskal literaturaren historiak» multzo ederrean publikatu dira.

Historia orokorrak:

- *Historia de la literatura vasca*, Askoren artean, Patri Urkizuren zuzendaritzapean, 2000.
- *Iraupena eta lekukotasuna*, (Euskal literatura idatzia 1900 arte), Patxi Salaberri Muñoa, 2002.
- *Historia de la literatura vasca*, Iñaki Aldekoa, 2004.
- *Euskal literaturaren historia*, Iñaki Aldekoa, 2008.

Literaturaren eremu berezi batez edo garai mugatu baten inguruan egindako historiak:

- *90eko hamarkadako narratiba berria: literatur kritika*, Iratxe Retolaza, 2000.
- *Euskal eleberraren historia*, Mari Jose Olaziregi, 2002.
- *Euskal literatura XX. mendean*, Jon Kortazar, 2003.
- *90eko hamarkadako haur eta gazte literatura*, Manu Lopez, Xabier Etxaniz, Pamiela, 2005.
- *Euskal idazleen belaunaldiez*, Paulo Iztueta, Utriusque Vasconiae, 2005.
- *Eguno euskal eleberraren historia*, Askoren artean (Iratxe Retolazaren zuzendaritzapean), Euskal Herriko Unibertsitatea, 2007.
- *Eguno euskal poesiaren historia*, Askoren artean (Jon Kortazaren zuzendaritzapean), Euskal Herriko Unibertsitatea, 2009.

Eskolarako antologiak ere argitaratu dira. Adibide gisa, Koldo Izagirre eta Xabier Mendiguren-en *Euskal Literaturaren historia*⁽¹⁴⁹⁾aipa daiteke.

Izenburuetatik eta itxuretatik ezagun da, gai bera erabilirik ere, ezberdinak direla argitalpen horiek, bai helburuen aldetik baita ere har-

⁽¹⁴⁹⁾ Koldo Izagirre, Xabier Mendiguren, *Euskal literaturaren historia*, Elkarlanean 1998.

tzaileen aldetik. Bizkitartean, gauza bat guziz nabari da liburu bakoitzean: egile guziek eredu historiografiko berdintsua erabiltzen dute. “Historia” horiek ardatzat badute Europa guzian erabiltzen den “eredu nazionala”, preseski Mitxelenak euskal eremura erakarri zuena bere denboran. Euskal kasuan, erran nahi du Ipar eta Hegoaldeko produkzio literarioak aztertuak direla batera.

4.3. Eredu berriaren ekarpena:

Gisa berean, erran daiteke egungo historia egileek, Tx. Lasagasterrek eskatzen zituen oinarrizko aukerak egin dituztela. Bainan, metodologiak gain eta ardatz “nazionala”-tik hara joanez, ikus daiteke azken garaiko liburu horiek oinarri kontsentsual multzo bat partekatzen dutela.

“Patroi” berriaren oinarri kontsentsualak.

Ondoko hiru punduetan bil daitezke «patroi» berriaren oinarri «kontsentsualak»:

- literaturaren “definizio gaurkotua”.
- euskal literatura “objektu konplexu gisa”.
- sorkuntza garaikideari nagusitasuna.

Lehenik ikusi behar da literaturaren “definizio” gaurkotua zabaldu dela euskal kultura garaikidean: literatura “sail eta jarduera autonomo” gisa definitua da. Ondorioz, historialariak “kanon bildu” baten alde agertzen dira. Hortan, Mitxelenaz geroz finkatua izan den «kanon» bera erabiltzen dute denek, salbuespen bakar batzuk badirelarik edo ñabardura zenbait. Egokipen horien adibide bat edo beste ematekotan, aipa daitezke I. Aldekoak XIX. mendeko poesia herrikoiaz egin duen baliorazio berezia, baita ere Jose Manuel Etxeitaz Jon Kortazarrek egin duena. «Kanon bildua» 70eko hamarkadan bukatzen da. Ordutik aurrera, idazle garaikideentzat, idekirik egoten da, denborak bere egitekoa bete arte.

Bigarren pundua, teorikoa eta metodologikoa da. Euskal literatura ez da gehiago bere ber eta gaurko mundutik aparte bizi den «gizartetxo» berezia. Historialariek “objeto” konplexu gisa hartzen dute euskal literatura, sistema bat bezala. Horrela eginez, Tx. Lasagabasterrek azpimarratzen zuen itzal handiena gainditu nahi izan dute, erran nahi baita literatura gizartearen ispilua bezala ikustea. Giza zientzietatik («Historia berria»-ren aldetik eta soziologiaren eskualdetik, adibidez) heldu diren kontzeptuak erabiliz, literaturaren alde soziokulturalak hartzen dituzte kondutan beren osotasunean baita ere, gizartea eta iharduera estetikoaren artean kausi daitezkeen bitartekaritza edo mediazio mota ezberdinak.

Hirugarren pundua, begien bistakoa bilakatzen da liburuen aurkibidea ikusterakoan. Gehienek, toki nasaia, nasaiena orrialde kopuruaren aldetik, eskaintzen diote sorkuntza garaikideari. Lehentasun hori ez da ikusten inguruko literatura garatuetan. Literaturaren Historia kontserbadorea da gehienetan. Balore ezagunak, “klasiko” bihurtu direnak hobesten ditu eta mesfidantza handia badu sorkuntza garaikidearentzat. Hala gertatzen da adibidez frantses kulturaren kasuan. Azken urteak arte, oraindik bizi ziren autoreak ez ziren eskolak zabaltzen zuen “kanon”-ean sartzen ahal eta salbuespen guti izan da⁽¹⁵⁰⁾. Gauza bera pasatzen zen prestigio handiko argitalpenekin. Oso guti izan dira “La Pléiade” bezalako bilduma famatuetan beren obraren edizioa ezagutu duten autoreek. Euskal kulturaren aldiz, beste «kultura berri» batzuetan bezala idazle garaikideek alde bat badute toki nasaia.

– Paradigma aldaketa: “Euskal literaturaren historia berritua”.

Euskal literaturak bere garai oparoenetatik bat ezagutu du 1980-etik hona. Haren baitan, sorkuntzaren parte asko handitu da. Bere maila

⁽¹⁵⁰⁾ Azken urte hauetan, gauzak aldatzen ari dira baina astiro. Argitalpen berri batzu badira, adibidez, *La littérature française au présent*, Dominique Viart, Bruno Vercier, Bordas, 2005.

gorena ezagutu du idazle eta argitalpenen kopuruen aldetik. Denbora berean, gizarteratze prozesu berriak izan ditu. Barneko baita ere kanpoko adituengandik, orain arte sekulan bildu ez zituen gizarte mailako ezagutza markak ukan ditu. Euskarazko eskolatzearen bitartez, euskal literatura –baita ere euskal literaturaren historia– legimitatze eta instituzionalizatze prozesu batean sartu da.

Ondorio gisa, berritasunak eta harekin batera doan garaikidetasunaren premiak toki gero eta handiagoa hartu dute eremu literarioan. “Euskal literaturaren historia” saileko autoreek aldaketa hori literaturaren historiara erakarri dute eta eredu historiografikoaren bilakaera bultzatu dute. Gisa hortan, 2000tik hona agertu historiak aldaketa eta berritze horien lekuko eta eragile izan dira, Euskal Herrian berean erreferentzia gisa agertu direlako, batez ere ikasle eta irakasleen artean. Eragile izan dira ere kanpokoei begira, eradarazko bertsio bat badutelakoan edo autoreak kanpoan ibili direlako irakasten eta euskal literatura aurkezten.

Ondorioz, 80ko hamarkadaren atarian finkaturik zegoen modelo historiografikoa (Mitzelena, Sarasola, Torrealdai, etb) gainditua izan da. Halere, egungo ereduak ordukoaren oinarri eta alde asko edukitzen ditu. Bainan 80ko hamarkadaren haste hastean agertu ziren zenbait norabide nagusitu dira anartean, hala nola generoen banaketaren aldetik edo periodizazio mailan. Horrengatik, erran daiteke eredu “berritua” izan dela.

– Garaikidetasunari lehentasuna

80ko hamarkadatik aurrera, Euskal literaturan garaikidetasunari emana izan zaion lehentasuna, argitalpengintzan guziz nabaria izan da. Zenbait urteren buruan, literatur kritikaren eta historiaren eremuetara hedatu da. Lehentasun horren neurtzeko, har dezagun 2008an argitaratu den historia horietatik bat, adibidez I. Aldekoaren *Euskal literaturaren historia* liburua. Euskal literaturaren historia orokorra aurkezten du, hots bost mende. Azken berrogeita hamar urteek, Bigarren Gerlatik landa Aresti, Mirande eta Txillardegirekin hasten diren garai moderno eta

garaikideek, liburuaren erdia hartzen dute nonbait han. Eta, beti liburu berean, XX. mendeko azken hogeita hamar urteek bederatzi sartze ezberdin badituzte, liburu osoak hogeita bat sartze dituelarik. Abantzu sartzeen erdia azken mende laurdenarentzat: aurreko historiekin konparatuz periodizazioa erabat aldatua da eta badirudi garai literarioak gero eta lasterrago iragaiten direla. Eta, konparaketa jarraiki beharrez, oreka bertsua aurki daiteke XX. mendeko literatura mailan, M. J. Olaziregi⁽¹⁵¹⁾ eta J. Kortazar⁽¹⁵²⁾ historialarien liburuetan.

– Narratiba nagusi:

Egun erabiltzen den «eredu berrituaren beste seinale bat eman daiteke: narratibari ematen zaion ardura berezia. Narratiba, beste kulturetan bezala euskal kulturaren ere «genero nagusi» bilakatu da Bigarren Gerlatik hona, berantarekin halakatu bada ere. Euskal literaturaren munduan aurkitzen diren partaide guziek (idazleek, irakurleek, argitaratzaileek, kazetetako eta unibertsitateko kritikariek) hogoi bat urtez obratua dute mugimendu «normalizatzaile» hori. Denbora berean, ordu arte narratibaren hein bertsuan aurkitzen ziren generoak –poesia eta saiakera– zokoratuak izan dira. Aldaketa hori onarturik, Euskal literaturaren historiek ere narratibari diote lehentasuna ematen.

Ondoko partean aipatuko den bezala, gaurkotasunari emana izan zaion lehentasunak bi ondorio ukan ditu oraiko historia berrietan. Alde batetik, periodizazioaren finkatzeko moldeak eta haren mugak alda arazi ditu. Bestaldetik, narratibaz gain diren generoen tratamendua asko murriztu du eta generoen arteko orekaren baitan eragin handia ukan du. Denbora berean, berriki arte guziz garrantzi handikoak ziren eztabaida batzuk –adibidez, 60ko hamarkadako “hizkuntza literarioa”rena desagertu dira edo trenkatutzat eman dira. Gaurkotasuna eta zehaztasun

⁽¹⁵¹⁾ Mari Jose Olaziregi, *Euskal eleberraren historia*, 2002.

⁽¹⁵²⁾ Jon Kortazar, *XX. Mendeko euskal literatura*, 2003.

intelektuala aipatuak izan dira. Hirugarren ekarpen bat ikusten ahal da «euskal literaturaren historia» saileko «eredu berritu» hortan, erran nahi baita haren alde didaktikoa.

– Euskal literaturaren helburu didaktikoa:

Historialariak maizenik irakasleak dira eta gehienak unibertsitatean ari dira lanean. Erran daiteke, historia literarioaren hastapeneko helburua gogoan edukitzen dutela, hots, transmisiorako pentsatzen dutela beren lana. Ageri da transmizio lan hori funtsezkoa iduri zaiela eta interesgarria da ikustea bi mailatan ari direla. Alde batetik euskaraz tokiko publikoarentzat, bestaldetik erdaraz kanpokoentzat.

Bertakoa aipatu behar da lehenik. 1980 baino lehen publikatu duten historialariek ez zuten –ezin bestean– publiko finikorik buruan. “Hartzaile ezagun” horren falta nabari da liburu batzuetan. Alderantziz, gaurko egunean –erran nahi baita euskara eskola sisteman sartuz geroz– kritikariek eta historialariek badakite norentzat ari diren lanean euskal literaturaren historia lantzen dutelarik: unibertsitateko ikasleentzat, irakasle, kazetari eta beste bilakatuko direnentzat eta haien bitartez, lizeoko ikasleentzat. Ahantzi gabe, bistan dena, publiko zabalago baten jakinminarentzat ere ari behar dela.

Beraz, nahi ala ez, harreman instituzionalizatu batean ari dira gaurko historia egileak. Harreman konplexua da dudarik gabe. Lehen baino eragin handiagoa du egungo egunean argitaratzen den “Historia” batek eta, irakasleen bitartez, aurkeztua den “autore kanonizatu berria” urte guti barne legitimaturik izanen da. Alderantziz, “instituzioak” (eskolak eta unibertsitateak) hein batean bideratzen du historialariaren lana. Besteak beste, tradizio baten baitara –euskalduna guziz motza izanik ere– erakartzen du “Historia” argitaratu berria.

Kanpoko publikoa aipatzen delarik, autore horiek bi edo hiru hizkuntzetan ari direla azpimarratu behar da, barnekoentzat egiten dituzten liburuak itzuliz eta egokituz. Atzerrira joaten dira ere, euskal literaturaz klase emaitera. Kanpokoentzat, konparatismoaren bidea hartzen dute gehiene-

tan, bertako erreferentzia literarioak emanaz eta, denbora berean, nazioen artean erabiltzen diren konzepto eta metodologia kultoak baliatuz.

Lan didaktiko hori funtsezkoa da: literaturak eta haren historiak ere, badu oraindik —nahiz zalantzan den XXI. mende hastapen honetan— balio sinboliko handia. Haren inguruan bada, dudarik gabe, legitimitate kulturalaren aldetik, lehia nagusi bat jokoan dena. Legitimitate kulturala jokoan dago barneko eremuan, euskaldunek hobeki ulert dezaten beren arteko zenbaitzuek —idazleek kasu hontan— zer ikuspegi mota zabaltzen duten denek bizi dituzten arazoei buruz. Eta, alde hortarik, ez da ahan-tzi behar Literaturaren historia dela Euskal Herriko historia orokorrean eginak eta osaturik dagoen eremu historiko bakarra, nahiz tradizioa aski berria den. Oroitarazi behar da K. Mitxelenak “ardatz linguistikoa” oinarritzat hartu zuela bere lanean, beste eremu kulturaletan erabiltzen diren ezaugarri nazionalak isilduz. Euskal literaturaren historian, eskualde ezberdinetako euskaldunak eta garai historiko ezberdinetako euskaldun guziak bateratuak dira, literatura euskaraz idatzia delako. Legitimitate kulturala jokoan dago ere, bistan dena kanpokoei begira: ez baita bizitzen ahal luzara konparaketarik gabe eta kanpokoei emandako ezagutzarik gabe, kanpokoei baitute ematen norberak bere buruaz lan-tzen duen irudiaren bigarren parte osatzailea.

— Transmisioa, funtsezko eginbidea:

Oro har, garrantzi handiko bihurtzea gertatu da euskara “eskola-ren sisteman” sartu delarik, 80ko hamarkadan. Euskal gizarte osoan era-gin handiko aldaketa izan da bainan, hizkuntza eta literatura sailetan eragin hori besteetan baino gehiago nabaritu da. Hizkuntza mailan, eskolako estandar baten abiapundua izan da sartze hori. Denbora bere-an, euskal literatura «eskolako gai» bilakatu da eta aldaketa hori egiazko bihurtzea izan da euskal literaturaren legitimatze prozesuan.

Euskal literaturaren historia irakasteko, argitaletxeetatik eta eskolako mundutik (Kolegiotik, Lizeotik, baita ere Unibertsitatetik) eskaera

berriak eta bereziak etorri dira. Ondorioz, azken hogeitaz urte hauetan, euskal literaturaren historiaren alorrean, materiala ugaritu da. Eta gehitu behar da dokumentazio horren maila didaktikoa ere hobetuz joan dela. Idurre Alonso ikerlariaren azterketek⁽¹⁵³⁾ erakutsi dute eskolatzeak funtsezko bilakaera baten mentura eman diola euskal literaturaren erabile-rari. Historialariek irakurleko berri hori kondutan hartu dute beren lanean, baita ere esku liburuaren erabilera berria eta harrera berezia. Beraz, erran daiteke eskola mailako egoera berriak, hein batean bederen, bideratu duela azken urte hauetan egin den euskal literaturaren historia, geroxago aipatuko den bezala.

Euskal literatura eskolako (Kolegio, Lizeo, Unibertsitate) eduki bezala agertzean, transmizioaren problematika agertu da. Oinarri eta ezaugarri batzuk hautatuak izan dira, inguruko kultura garatuetan egin den bezala. Horren ekoizpena aurkitzen da azken hogeita hamar urte hauetan egin izan diren “Euskal literaturaren historia” ezberdinetan baita ere haietarik inspiratuz idatziak izan diren bigarren mailako eskuliburuetan. Gutxi gora behera, liburu guztietan, testu berdintsuak ageri dira. Hots, korpus mugatu bat finkatua izan da testu zahar eta modernoentzat. Testu garaikideentzat, ezinbestez, zerrenda idekirik dago, ez baita atzerapenik gabe erraten ahal zein diren denboraren buruan geldituko diren obrak.

Bi ezaugarri nagusi badituzte korpus horren baitako testuek: euskaraz idatziak dira eta oinarri literario edo helburu estetiko batzuen arabera idatziak izan dira (gaur egun erabiltzen diren kriterio kritikoaren arabera, segurik). Hautatu obra horiek, euskal literaturaren baitako «kanon»-a osatzen dute eta, obra horien idazleak, euskal autore nagusien zerrendan sartzen dira. Euskal literaturaren eredu historiko hori, guztiz hedatua da gaurko euskal kultura osoan, haren transmisio bide nagusia eskolaren sistema delarik, Iparraldean Hegoaldean bezala.

⁽¹⁵³⁾ Alonso Amezua Idurre, *Euskal literatur sistema eta literaturaren didaktika aztergai*, Labayru, 2008; *Erdigune literarioak irakaskuntzan*, EHU, 2010.

Bosgarren Partea

5. Eredu berritua eztabaidan.

5.1. Agerian dauden arazo historiografikoak:

Euskal literaturaren historiaren idazteko, Europako tradizio kritikoan erabiltzen diren premiazko tresna teoriko eta metodologikoak mailegatuak izan dira: periodizazioa, belaunaldiak, mugimendu estetikoak, etb. Hala holaxe egokituak izan zaizkio gure literaturen historiari, «euskal literatura» objektu zientifiko bezala ez baita batere ingelez edo frantses literaturaren neurri berekoa. Arazo horietatik zenbait konpontzen ari dira, batez ere azken mende laurdenean euskal literaturaren baitan izan diren aldaketa kantitatiboak baita ere kalitatiboak direla medio. Halere, arazo historiografiko nagusi batzuk gelditzen dira. Ondoko lerroetan, eredu berrituak erakartzen dituen nabarietak aipatuko dira.

– Maileguen ezin bestezko eragina:

Azken urte hauetan mailegatutako konzeptu horietatik adibide bat ematekotan, –menturaz adierazgarriena– “haustura”-rena aipa daiteke. Inguruko kultura garatuetan, Erromatizismoaren garaiaz geroz, hausturaren kontzeptua erabilia da garaien arteko banatzaile eta aldaketen eragile gisa. Frantses literaturan adibidez, Mugimenduak (Dada, Surrealismoa, etb.) eta idazle eskola edo taldeak (Sartre/Camus, «Nouveau Roman», etb.) garai literarioen ezaugarri nagusi bezala hartzen dira.

Mugimenduak elgarri oposatzen dira (Erromantizismoa / Simbolismoa, etb.) eta, kritika modernoaren arabera, literaturaren historia garai batetik bestera iragaiten da hausdura estetiko batzuk direla medio.

Ibon Sarasolak hausturaren kontzeptua erakarri zuen euskal alorrera eta bere *Euskal literaturaren historia*-n (1971) erabili zuen: «Euskal literaturaren bi fetxa nagusiak, 1901 eta 1964, aldez edo moldez gertakizun politiko biri lotzen zaizkie, 1901eko kasuan, Euzko Alderdi Abertzaleari⁽¹⁵⁴⁾, 1964koan euskaldungoari buruz sortzen hasten diren idea berriei».

Geroztik, Ibon Sarasolak egin zuen bezala, «Hausturaren kontzeptua» Historiari loturik agertzen da komunzki, hala nola «1975» urte mugarekin. Azken urte hauetan argitaratu diren historia guzietan, “1975”, erran nahi baita Franco-ren hiltzea eta erregimen aldaketa politikoa España mailan ezin bestezko bihurgunetzat emana da. Kasu horretan, erran daiteke kontzeptuak baduela bere balioa Hegoaldearentzat, baita ere epe luzeago batean, Iparraldeko literaturarentzat. Euskal literaturaren historian, urte hortatik hara, “haustura” molde arrunt batez erabilia da, izan dadila estetiko, kulturala, ekonomikoa ala politikoa. Eta menturaz, kontzeptuak baduke funts zerbait kasu garaikide askotan.

Azken urte hauetako azterketetan, kontzeptua iraganari egokitzen zaio modu aski sistematikoan. Hala egiten da 1957an Txillardegik argitaratu zuen *Leturiaren egunkari ezkutua* liburuarentzat. Obra berritzaile hori askotan emana da euskal eremuan gertatu haustura estetikoetatik baten ezau-garritzat. Kasu hortan ere aukera baieztatu daiteke garaiko polemika eta irizpideetatik abiatuz. Eleberriaren hitzaurrean, Koldo Mitxelena berak «haustura» gisa aurkeztu zuen Txillardegiren ekarpena.

Arazoak edo bederen dudak sortzen dira, atzera joanez, XX. mende hastapeneko edo XIX. mendeko sorkuntzari aplikatzen zaiolarik, are

⁽¹⁵⁴⁾ Hitz honi lotua oin-ohar batean ondoko xehetasunak agertzen dira: «Euzko Alderdi Abertzalea 1895ean fundatu zen. *Euzkadi* aldizkariaren lehen zenbakia, 1901ean agertu zen».

gehiago oraindik, XVII. edo XVI. mendeko obrentzat «hausdura»-ren konzeptoa erabili nahi delarik. Egiazko kezka historiografikoak jalgitzen dira orduan eta kasu emanez ibili behar liteke literatura garaikidetik kanpo erabiltzean.

– Berdinketa helburutzat.

Beste kapitulu batean, 80ko hamarkadatik hona izan den giro pionero eta zaintsua aipatua izan da. Inguruko kulturetan zegoena behar zen hemen ere lortu, lehenbailehen; legitimitatzearen beharra bazen, nolabait errateko. Hogeit bat urtez, gure kulturaren eskas larrienak bete dira sailez sail, literaturan besteetan bezala. Literaturaren sailean, aurreko partean adierazi bezala, kanpoko ezaugarri nagusien artean, narratibari eskaini zitzaion lehentasuna.

Azken urte hauetan, aditu frangok eta horietan idazleek batez ere, behin baino gehiagotan azpimarratu dute “Kultura handien mimatze-ko” joera horrek arriskuak zerkarzkiela⁽¹⁵⁵⁾. Halarik ere, narratiba gero eta indartsuago agertu da, gaur egun, beste generoak osoki baztertzeraino. Auzoko kultura handietan, narratiba nagusi gelditu da ere, bainan, bigarren mailan zeuden beste diskurtso literario mota batzuk indartu dira narratibaren aberasteko, alda arazteko eta haren eramateko errealismo berri bati buruz. Besteak beste, 90eko hamarkadan landu diren kondaketa historikoa eta idazkera autobiografikoak aipa daitezke, bilakaera horren lekuko gisa. Euskal literaturan agertu baldin badira ere, narrazio mota horiek eleberraren itzalean egon dira eta ekoizpen literarioa genero nagusiaren inguruan antolatua izan da.

«Eleberria helburu», azken urteetako lehia hura erakargarria zen euskaraz idazten zuten autoreentzat, dudarik gabe. Heldutasuna nabaritzen

⁽¹⁵⁵⁾ Beste ekarpen askoren artean: Ramon Saizarbitoria, “Homologazioa helburu”, in *Aberriaren alde (eta kontra)*, Alberdania, 1999. Iban Zaldua, «90eko urteak: «Nobelaren hamarkada», in *Obabatiko tranbia*, Alberdania, 2002.

zaien obra nagusi batzuk argitaratu dira azken mende laurdeneko eleberrien artean. Bainan lehia itogarria izan da ere hein batean, atzean uzten zenari eta inguru hurbilean zegoenari ez baitzaie denbora berean aski kasu eman. Preseski, generoen tratamenduan ezagun da narratibaren aldeko joeraren eragin kaltegarria. Narratibaren kopurua handitzearekin, euskal literaturaren historialariek aldaketa kantitatibo nagusi hori sarrarazi dute gaur egungo azterketa historikoan.

Bainan, kopuruaren kriterioa hobetsiz aldaketa kalitatibo batzuk ez dira gehiago ageri. Ondorioz, historialariek ez dituzte kondutan hartu baztertutako generoetan anartean egin diren ekarpenak. Adibide gisa, 30 urtez iparraldean garatutako “antzerki berria” aipatzen ahal da. Daniel Landart, Guillaume eta Mattin Irigoyen anaiak, Antton Luku eta Pantxo Hirigaray bezalako antzerki sortzaileek erabat itxuraldatu dute Piarres Larzabalek eta Telesforo Monzon-ek sortu eta indartu zuten iparraldeko antzerki eskola. Bizkitartean, “Iparraldeko antzerki berriak” ez du oraindik literaturaren historian erdietsi gizartean ukan duen araberako tokia.

Gauza bera erran daiteke poesiaz, non ez den aipatzen genero horren aztertzeke egina den liburu bat⁽¹⁵⁶⁾. Generoen tratamenduak korpusaren baitako oreka alda lezake, narratibaren garrantzia ez bada, gisa batez edo bestez, neurri batean kontrolatzen. Poesiaren tokia azterketa kritikoan baita ere eskolan eta unibertsitatean gaur egun irakasten den “kanon” berrian murriztuz joaten da, urteak joan arau. Euskal literaturaren historian garrantzi kantitatiboa eta kalitatiboa orekatu behar litezke molde berezi batez.

– Ikuspegi teleologikoa: egiazko “euskal literatura” gure aurrean dago.

Literaturan eta, oro har euskal kulturaren, gaurkotasunari ematen zaion lehentasunak beste ondorio nagusi bat ukan du. Aurrera darama

⁽¹⁵⁶⁾ Bi adibide interesgarri: Josu Landa, *Gerraondoko poesiaren historia*, Elkar-AEK, 1983. Jon Kortazar, *Luma eta lurra*, Labayru, 1997.

ezin bestean eta geroari begira jartzen ditu argitaratzaileak, idazleak, kazetariak eta ikerleak. Denek egiten dute ekoizpen hoberena edo, bestela erranez, kalitatezko literatura beti etortzekoa balitz bezala. Egiteko molde hori teleologikoa deitzen ahal da. Geroa eta beti haratago dagoen helburu bat ditu helmugatzat hartzen ikuspegi teleologikoak. Gisa hortan, oraina eta iraganaren balioa biharamun hobe haren arabera neurtzen dira. Eta, noski balio hori nahiko apal egoten da.

Ikusmolde teleologikoaren arabera, pentsa daiteke egiazko “euskal literatura” aurrean dagoela. Ondorioz, egungo ekoizpenak biharkoa apailatzen eta iragartzen du, besterik gabe. Benetazko euskarazko produkzio literarioa ez da oraindik sortua, salbuespen bakar batzuk kenduz geroz. Orduan, erran gabe doa iraganen idatziak ez duela balio handirik. Haurtzaroan zegoen literatura baten saioak bilakatzen dira lehengo obrak. 80ko hamarkadan, obra unibertsal baten mailako emaitza bat lortu behar zen, kanon literarioari bere behin-behineko hastapena emateko gisa eta euskal “modernitatearen” lehen mugarrira jarri beharrez. Eta geroztik, bide beretik ari da euskal literatura, berritasunaren ondotik. Gaurko historialariek deitzen duten “Presentismo”-an bizi da.

Hortarik, ondorio nagusi bat heldu da: idazlan sortuberriari eta idazle agertu berriari ematen zaie premia. Jon Alonso edo Iban Zaldúa⁽¹⁵⁷⁾ bezalako idazleek plazara erakarri dute gai hori 2000tik hona. Punta batean, euskal idazle moderno kanonizatuak (R. Saizarbitoria, Andu Lertxundi, Bernardo Atxaga, etb.), beren hoberenean daude oraindik. Beste puntan, egunez egun, goizean agertu obra berriari egiten zaio besta, atzokoa –eta nola ez herenegungoa– ezin bestezko ilunpera igorri. Idazleen ustez, komunikabideen erritmo zaintsua hartua du euskal literaturak. Etengabe, idazleek benetazko kritika literario baten beharra aldarrikatzen dute, haren orde informazioa baizik ez delako aurkitzen.

⁽¹⁵⁷⁾ Iban Zaldúa, «Sandwich sindromea, edo *Tropela* delakoa azaltzeko ahalegin bat, edo, nahi izanez gero, Dimentsio Paraleloko belaunaldi ikusezinari buruzko zenbait kontu» (ikus: Artikulua eta bibliografia) in *Belaunaldi literarioak auzitan*, (arg. Ur Apalategi), Utriusque Vasconiae, 2005.

Gainera, gauza jakina da kritika akademikoak denbora behar duela bere irazte lanaren egiteko. Eta ikusiz egoera zein den, erran gabe doa azterketa lan urri eta luze hori ez dela asko balorizatua.

– “Klasikotze” prozesuari traba?

Beraz, iraganaz ez aski axolatzea da iturri beretik datorren bigarren ondorioa. «Klasikotze» prozesu kritikoa gutiegi lantzen da, non ez zaion aurka egiten. Berrikuntza hobetsia baldin bada, sorkuntzaren faboretan egiten da, eta berrargitalpenen kaltetan⁽¹⁵⁸⁾. Eta argi da berrargitalpenaren inguruan egiten den lana funtsezkoa dela obra baten geroa segurtatu nahi bada. Sakelako bilduma joriak egitea da lehen urratsa. Berrargitalpenaz kazetariak eman dezaketen informazioa bigarrena da, hirugarrena delarik eskolako egitarauak eta irakasleek zabaltzen duten irakurketa eskaera edo eskaintza.

Gehiegi luzatu gabe, erran daiteke “Klasikotze” prozesu horrek bi klasiko mota hartzen duela kondutan. “Lehengo klasikoak” dira aurreko mende eta garaietatik gelditu diren autoreak. Eta gisa berean, «egungo klasikoak» daitezke azken urteetan agertu idazle eta obren artean nagusitu direnak. Aktualitatearen bahetik jalgi dira eta «klasiko» bilakatzeko bidean daude, nahiz ez den hortaz behin behineko segurtamenik. Bide horren ezaugarrietan aipa daitezke berrargitalpenak, sakelako bildumetan baita ere ospe handiko bildumetan; halaber, autorea zahartzen delarik, obra guziarentzat emandako sariak eta gaineratiko omenaldiak dira klasikotze prozesuaren oinarritzko urratsak, auzoko kultura garatuetan bederen.

Hein handi batean tratatua izan da euskal literaturan eta hala da oraindik. Ondorio horrek ezinbesteko eragina eduki du euskal literaturaren historian. Alde batetik, “egungo klasikoen” egiteko moldearen

⁽¹⁵⁸⁾ Joan Mari Torrealdai, “2008-ko liburugintza” in *Jakin* 176, 2010-02.

ganean, idazleek diotenez. Eta, nola ez, “lehengo klasiko” engan. Hauek ez dira aski aztertzen, ez eta ere asko aipatzen. Literaturaren Historietan eskaintzen zaien tokia tipitua delako. Gisa berean, lizeoko egitarauetan eta klaseetan ere, euskal klasikoen tokia murrizta da. Orduan, haien beharra ez da gehiago ikusten garaikideen oparotasunaren itzalean. Ezagutza eskas hori guziz nabaria da unibertsitate mailako ikasleengan eta gogoan izan behar da haiek direla biharko irakasleak eta ondare literarioaren begiraleak.

5.2. *Eredu berrituaren gabeziak:*

Aurreko atalean, historiografia mailako arazo teoriko nabariak aztertu dira. Behar bada, aztertzaile guziak ez dira ados jarriko diagnostiko horrekin. Atal hontan aipatuko diren gabeziak aldiz, aski kontsentualak dira, ikerle bakoitzak aurkitzen baititu bere bidean euskal literaturaren historia idazterakoan edo klasea ematerakoan.

– Periodizazio eredu iraunkorrik ez:

Lehen arazoa, periodizazio mailan atxematen da. Orain arteko euskal literaturaren historiak konparatzen badira aladaketa nabaria aurkitzen da periodizazioaren aldetik. Ondoko adibideek adierazten duten bezala, lehengo garaiez ez da batasunik periodizazio mailan:

<i>K. Mitxelena</i> (1960):	<i>I. Sarasola</i> (1970)
1. Ahozko literatura.	1. 1545 - 1901.
2. Hastapenak. XVI. mendea.	2. 1901 - 1964.
3. XVII. mendea.	3. 1964 – 1971.
4. 1700 -1850.	
5. 1850 – 1960.	

J.-B. Orpustan (1996):

1. 1545 aintzin.
2. 1545 – 1670.
3. 1670 – 1815.
4. 1816 – 1907.
5. 1908 – 1950.

I. Aldekoa (2004):

1. XVI. Aitzin: kap. 1.
2. XVI – XVII: kap. 2, 3.
3. 1700 – 1833: kap 4, 5.
4. 1834 – 1936: kap. 5, 6, 7, 8.
5. 1937 – 1950: kap. 9.
6. 1950 – 1975: kap 10, 11, 12.
7. 1975 – 2000: kap 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20.

Historialariek oinarri historiografiko berdinak erabilirik ere, badirudi banaketa iraunkorrik ez dela oraindik finkatu ahal izan garai zaharrei buruz. Zailtasun horren adibide bat ematekotan, aipa daiteke Iparralde eta Hegoaldearen arteko ezberdintasuna XIX. mendearen tratamenduan. Hegoaldeko historialarientzat, Karlistadek XIX. mendearen banaketa diakronikoa bideratzen dute edo, bederen, eragin handiko mozturak bezala emanak dira. XIX. mendea, Iparraldeko ikuspegitik –J. B. Orpustan-en kasuan adibidez–, ikusten bada, garbi dago Frantziako Historian gertatu haustura handiek (1789ko Iraultza; Napoleon Lehenaren Inperioa -1802-1815-; 1848ko Iraultza; Napoleon Hirugarrenaren garaia edo “Bigarren Inperioa” -1852-1870-; 1870eko gerlaren galtzea eta Hirugarren Errepublika, etb.), eragiten dutela banaketa.

Hautu hortarik ezagun da J. B. Orpustan-ek frantses kulturari egin diola kontu handia, Frantziak ezagutu duen peridozazio historikoaren gainean bermatzen delako euskal literaturarena egiterakoan. Bainan, periodizazio horrek ez du balio Euskal Herriko hegoaldean idatzi den literaturarentzat. Era berdinean, Hegoaldeko historialariek bi “Karlistadak” muga bezala erabiltzen dituztelarik, abantzu funts gabekoak agertzen dira garai hartako Iparraldeko idazleen aipatzeko.

Eta aurki daiteke horrelako ainitz ezberdintasun Iparraldeko edo Hegoaldeko ikuspegiaren artean, hala nola Ibon Sarasolak proposatzen

duen banaketa diakronikoaz, 1901 eta 1964 bi urte mugen inguruan. Zertarik hartu behar dira urte muga horiek? Euskal Herriaren Historiaren alorretik? Inguruko Erresumen Historiaren alorretatik? Inguruko Erresumetako eta Euskal Literaturaren baitako alorretatik? Periodizazioaren gai horrekin, euskal literaturaren oinarrizko arazo historiografiko bat altxatzen da.

– Desoreka diakronikoa:

Bestalde, “periodizazio” gai hortarik abiatuz, garai literarioen arteko desoreka diakronikoa aipa daiteke. Desoreka hori handitu da lehenengo historien eta oraikoen artean. Eredu berritua irudikatzen duten liburu batzuetan⁽¹⁵⁹⁾, –denborari buruzko aukera ezberdinak kondutan harturik ere: historia orokorra / XX. mendea–, aise ikus daiteke lehenengo garaiei tokia tipitu dela. Bide batez, lehenengo garaiei barruko ezberdintasunak legunduz joan dira.

Desoreka horrek iturri jakin bat badu. Gaur egun idazten eta argitaratzen den euskal literaturaren historian bada hautu bat guziz partekatua dena historia egileen artean: denek kondutan hartzen dituzte azken urteetan literaturaren eremuan gertatu aldaketa nagusiak, agertu obra eta idazle berriak. Erran nahi baita sarrarazten dituztela beren idazlanetan sorkuntza eta idazle garaikideak, hots beren liburua bukatzen duten garaia arteko produkzioa. Joera hori erabat zabaldua da euskal eremuan eta, iduriz, kontsentsuala da. Oro har, badirudi, euskal literatura garaikide mailan izan den bilakaera orokorra gertakari “objektibo” bezala aurkeztua da gehienetan.

Bainan, ikusi behar da historialariek egiten duten aukera historiografiko baten seinalea dela joera hori: gaur egun idazten ari den literatura kondutan hartzea erabakitzen dute euskal literaturaren historia egitera-

⁽¹⁵⁹⁾ Adibide gisa: *Euskal eleberriarren historia* (M. J. Olaziregi, 2002), *XX. mendeko euskal literatura* (J. Kortazar, 2003), *Euskal literaturaren historia* (I. Aldekoa, 2004).

koan. Gainera, bigarren aukera bat erakusten da lehenarekin batera: euskal alorrean, garaikidetasunari emaiten zaiola lehentasuna. Hots, literaturaren definizio “modernista” baten hautua egiten dela. Jakinez, kopuruaren aldetik sekular baina indartsuagoa dela literatura garaikidearen ekoizpena, automatikoki desoreka diakronikoaren indartzera behartuak dira egungo historialariak. Bi aukera horiengatik, azken 30 urteen tokia handitu da, ezinbestez, argitaratu diren euskal literaturaren historietan.

Oroitu behar da aukera horiek ez direla eremu kultural guzietan egiten. Beste tradizio historiografiko gehienetan, ez da garaikideen azken punta literaturaren historia orokorrean sarraratzten. Komunzki, bestalde lantzen da, molde berezi batez⁽¹⁶⁰⁾, nahiz joera hori aldatzen ari den astiror. Bortxaz, urte batzuen gibelatzapena hartuz, idazle garaikideen multzo nasaiaren baitan bahetze edo irazte lana berenaz egiten da eta, “kon-sakratu berriak” tantaka baizik ez dira sartzen korpusetan eta kanonean.

– Korpusaren baitako desoreka:

Horrela eginez, lehengo garaiek tratamendu joriagoa badute. Hortaz ohartzeko, aski da *Précis d'Histoire littéraire basque* liburua hartzea. Azterketa XX. mende erdian (1950) gelditzen da. Garbi dago gaur egun guretzat «literario» ez diren sailek badutela liburu hortan toki nasaia eta ñabardura askorekin zehaztuak direla: «La poésie de circonstance, la poésie religieuse et la poésie didactique», «Aux marges du littéraire: dévots, apologistes et grammairiens», «Deux prosateurs issus du journalisme», etb.

Eredu berritua irudikatzen duten liburuetan (Adibidez: Aldekoa, Kortazar, Olaziregi) aldiz, lehengo garaiak gehiago «bilduak» dira. Bainan, Bigarren Gerlatik landa (Aresti/Mirande, etb.) eta, are gehiago

⁽¹⁶⁰⁾ Ikus: Dominique Viart, Bruno Vercier, *La littérature française au présent*, Bordas, 2005.

1975-etik goiti, garaiak laburtzen dira eta badirudi gero eta lasterrago iragaiten direla. Gisa berean, obra eta autoreen sailkapena gero eta fina-
goa bilakatzen da gure garaitik hurbiltzean, kategoriak ugaritzen dira,
ñabardurak ere bai. Kategorien izenburuak guziz zehaztuak dira:

- M. J. Olaziregi: «Euskal eleberri modernoa», «Modernitate oste-
ko euskal eleberrigintzaren aurpegi anitzak (1975-2000).
- I. Aldekoa: “Modernotasuna euskal eleberrigintzan: Txillardegia
eta Ramon Saizarbitoria”; “Trantsizioko euskal literatura (1975-
2000).
- I. Aldekoa / J. Kortazar: askotan, sailkapena kronologiaren arabe-
ra egiten da. «Laurogei eta laurogeita hamarreko urteetako poe-
sia»; «80ko hamarkadako literatura: poemagintza».

– Kanonaren iraunkortasuna:

Gorago aipatu diren aukerek ondorioak badituzte ere kanonaren bai-
tan eta haren iraunkortasunari begira. Komunzki, beste tradizioetan,
kanonaren baitako edukia eta oreka bi molde ezberdinez aldatzen da:

- *Kanpotik*: idazle garaikide zenbait sarrarazten dira bainan, astiro,
bahe metodologiko batzuen bitartez eta tradizio historiko ezber-
dinen erritmoaren arabera⁽¹⁶¹⁾.
- *Barnetik*: ikerketaren bitartez, tesi edo saiakera baten kariatetan, auto-
re bat, mugimendu bat edo garai bat berriz miatzen da eta, aurki-
kuntza berrien arabera, ordu arteko “baloreak” gora edo behera
mugitzen dira.

Euskal literaturaren historian, azken 30 urte hauetan egin diren
aukera historiografikoengatik, garbiki ikusten da 1950 aurreko kanona
abantzu hunkitu gabe berresten dela liburuz liburu. Salbuespen guti
izan da (Lazarraga-ren sartzea; Oihenart eta Jean Etxepare-ren goraka-

⁽¹⁶¹⁾ Adibide gisa, frantses tradizio historiografikoa aipa daiteke kontserbadoreen artean.

da) eta oro har, eztabaida guti (Bernat Etxepare; kazetaritzaren eragina literaturaren baitan).

Gabezien azterketaren ondotik, erran daiteke desoreka diakronikoaren ondorio zuzena, berriro ere, klasikoen baztertzea dela. Beraz, lehen atalean eman konklusio berdina eman daiteke hemen ere. Eredu berrituan, lehengo garaietako obra eta idazleek toki gehiago behar lukete jaso. Denbora berean, egin molde historiografiko berezi batzuk behar litezke hobetsi “klasikotze” prozesuari bere toki guzia emateko gisa.

5.3. Eredu berritua eztabaidan:

Eredu berrituaren alde sendoak baita ere osatu gabe gelditu direnak, aztertuak izan dira aurreko parteetan. Azken parte hontan, iragan hamar edo hamabost urteetan ere du historiografiko berritua agertu diren ikuspegi kritiko zenbait bilduko dira. Euskal idazleek ekarritako emaitza ez da hemen ikertuko. Laugarren partean (4.2) erreferentzia batzuk badira bainan zerrenda ez da batere exhaustiboa. Ikerketa berezi bat behar liteke egin euskal literaturaren historiaz idazleek egin ekarpenaz. Ondotik aipatuko direnak, mundu akademikotik etortzen dira, hots unibertsitarioek eginak.

– Aurkako kondaketak beharrezkoak ote dira?

Badirudi, nahi ala ez, “tradizio moduko kondaketa hastapen”... bat finkatzen ari dela, euskal literaturaren historian, eskola sistemaren laguntzarekin. Eta, itxura guzieren arabera, “kondaketa” hori kontsentsuala bilakatzen ari da.

Beraz, “kontra ereduak” edo “aurkako kondaketak” deitu konzeptuen gogoetatzeko garaia etorria ote da? Frantses literaturan adibidez ez da “aurkako ereduak” tradizioz, eredu ortodoxoa guziz sendoa baita eta ongi hedatua instituzio indartsu batzuen bidez. Halarik ere, horie-

tatik bat bada eraikitzen ari dena Karibetako eremuan, Edouard Glissant⁽¹⁶²⁾, Patrick Chamoiseau⁽¹⁶³⁾ eta Raphaël Confiant⁽¹⁶⁴⁾ bezalako idazleei esker, Kreolar Letren eremuak osatzen ari dira astiro, frantses literaturaren itzalpetik libratuz, “Négritude” Aimé Césairek eta Léopold Sedar Senghor-ek sortu zuten mugimenduaren ildotik.

Estatu Batuetan, Indian eta munduko anitz eskualdetan, “Post-Colonial Studies” mugimenduaren eraginez –besteak beste–, “Aurkako kondaketak” idazten ari dira, tokiko literaturen ikuspegitik. Euskal eremuan mementoan, kontra ereduak eta aurkako kondaketak oso guti landu dira.

– Behin eta berriro, zentro eta periferiarena: Jon Juaristi.

Kronologiari jarraikiz, agertu den lehen ikuspegi kritikoa Jon Juaristirena izan da. Hirugarren partean aipatu bezala, Jon Juaristi-k *La literatura vasca* publikatu zuen 1987an. Urte berean, saiakera bat argitaratu zuen, *El Linaje de Aitor* (1987)⁽¹⁶⁵⁾. Liburuak, *la Invencion de la tradicion vasca* zeraman azpi izenburu gisa. Euskal kulturaren iturburu bilakatu diren mito moderno batzuk sakonki landu zituen. Besteak beste, Euskaldunen aintzinkotasuna eta berezitasuna edo Ibañeta eta Beotibarko gudu epikoak ikertu zituen erakusteko, Europako nazioetan gisa bereko mitoak asmatu, berrantolatu eta erabili Euskal kulturaren ere.

Bi gizarte talde berezi aztertu zituen, XIX. mendeko karlistak eta XX. mende hastapeneko abertzaleak. Horien artean, bi mito eragile aurkeztu zituen berezikiago, Agusti Xaho eta Sabino Arana Goiri. Ongi erakutsi zuen XIX. mendeko literaturak ukan zuela funtzio nabari bat gizarte auzi nagusietan. *El Bucle melancólico* (1997) liburuarekin, hari bere-

⁽¹⁶²⁾ Glissant Edouard, *Le Discours antillais*, 1981; *Poétique de la relation* 1990.

⁽¹⁶³⁾ Chamoiseau Patrick, *Ecrire en Pays dominé*, 1997.

⁽¹⁶⁴⁾ Confiant Raphaël, Chamoiseau Patrick, *Lettres Créoles*, 1999.

⁽¹⁶⁵⁾ Jon Juaristi, *El Linaje de Aitor*, Taurus, 1987.

tik joan zen Jon Juaristi bainan doinu polemikoago batez. Bigarren liburu hortan, XIX. mende erditik XX. mendeko azken laurdenera luzatu zuen bere azterketa. Konparatismoaren bidez, Jon Juaristik erakutsi zuen ez dela euskal kulturaren beste nonbait asmatua izan ez denik, hots Foruen aldeko euskal autoreek Walter Scott-en ondotik eta haren itzalean idatzi zutela beren obra, funtsean, kronologiak berak erakusten zuen bezala.

Azterketa sakon horietatik jalgitzen den irakaspen garbiena hauxe daiteke menturaz: Nazio guziek iturri mitikoa dutela. Garatuek beren mitoak legitimatzeko aukera eta ahalak ukan dituzte. Alegia deus ez, mito horiek toki bat ardietsi dute historia nazionalaren baitan. Historiaren itxura hartu dute. Aldiz, garatu ez diren nazioen kasuan, mitoak mito gelditu dira. Eredu kultural bat bada erreferentzia bezala bi liburuetan, “Europako eredu”, hots Europako nazio garatuen «eredu—alegia— unibertsal». Nazio garatuen ikuspuntutik ari da euskal kultura modernoaren jaiotza ikertzen Jon Juaristi. Aurkako kondaketa egile askok baita ere historialariek⁽¹⁶⁶⁾ erakutsi dute alderantziz erabiltzen ahal dela kritika bide berdina erakusteko kultura garatuak ere noizbait eraikiak izan zirela gisa bereko mitoen gainean.

– Itsas harainditik heldu den kritika: Joseba Gabilondo.

Azken urte hauetan, Estatu Batuetatik etorri da «eredu berritua»-ri egin izan zaion kritika berriena, Joseba Gabilondorengandik. Idazle eta unibertsitario hori han dago irakasle bainan haren kritika molde ausarta ongi ezagutua da Euskal Herrian. Oihartzun handikoa izan zen 1999an, Antton Abbadiak egin duen interpretazio postkoloniala⁽¹⁶⁷⁾. Geroztik, *Nazioaren bondarrak* (2004) deitu artikulu bilduma argitaratu

⁽¹⁶⁶⁾ Citron Suzanne, *Le Mythe national*, Les éditions de l'atelier, 1989.

⁽¹⁶⁷⁾ Joseba Gabilondo, «Euskal literatura modernoaren sorrera postkolonial eta gayaz Antón Abbadiaren ekarpena birpentsatuz», in *Euskal gramatika eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian IKER -14 (II)*, 2003, Ed. Euskaltzaindia.

du, baita ere liburutik kanpo geratu diren zenbait azterketa. Obra hartan, euskal literatura garaikideaz irakurketa sakona, ausarta eta batzuetan polemikoa aurkezten du. Atxagaren ekarpenaz eta euskal literaturaren kanonaz idatzi du. Liburu berean, generoaren (gender, sexo) sartzea erabili du Itxaro Borda eta Lourdes Oñederraren obrez irakurketa erakargarri baten egiteko⁽¹⁶⁸⁾.

Berak dionez, bere ikuspegiaren osatzeko, Ameriketara ezagutu dituen mugimendu berrien gainean bermatu da: Postcolonial studies, Cultural studies, Gender studies. Filosofian eta antropologian oinarritzen diren kritika mota horiek eragin handia ukan dute literaturaren azterketa lanean, nahiz ez diren Europan biziki barna sartu oraindik.

E. Saïd⁽¹⁶⁹⁾, G. Spivak⁽¹⁷⁰⁾ bezalako ikerleek «Inperioaren» egin molde kolonialistak baita ere Europako ikuspegi etnozentrismoa eta menperatzailea aztertu dituzte. Argiki erakutsi dute ere europarrek denetara hedatu zutela “eredu nazionala”, unibertsa balitz bezala eginez. “Alegia” unibertsa zen ikuspegi hori, ideologiaren aldetik eurozentrismoa zen. Europak bere erresumentzat sortu zituen arauak kanpoan onartarazi nahi izan zituen bere onetan, tokiko ereduaren nahasteko eta ongi ezagutzen zuen sistema baten menpe jartzeko hango jendeak.

Denetan krisian da “modelo” hori. Joseba Gabilondo-ren ustez (baita beste kritikari batzuen arabera⁽¹⁷¹⁾), Euskal Herrian ere hala da, ez delarik oraindik osoki eraikia. Konturatu gabe, garai berri batean sartuak omen dira “Europako” euskaldunak. Gure eremuan, badirudi anti-kondakizunen garaiaren gainetik pasatu garela Post-modernismora, hots zorte kolektibo batetik giza banakoaren desagertze edo bederen

⁽¹⁶⁸⁾ Joseba Gabilondo, «Itxaro Borda: Melancholic Migrancy and the Writing of Nactional, Lesbian Self», *Anuario del Seminario Julio de Urquijo* XXXIV-2, 2000.

⁽¹⁶⁹⁾ Edward Saïd, *Orientalisme*, Seuil, 1978 (frantses itzulpena); *Culture et Imperialisme*, Fayard-Le Monde diplomatique, 2000.

⁽¹⁷⁰⁾ Gayatri Spivak, *Les Subalternes peuvent-elles parler?*, Ed. Amsterdam, 2006 (frantses itzulpena).

⁽¹⁷¹⁾ Jon Kortazar, *Post modernitatea euskal kontagintzan*, Utriusque Vasconiae, 2007.

barraiatzearen arora, euskal giza banakoari “jende heldu” izatera aukerarik eman gabe. Literaturaren historia mailan, J. Gabilondoren ikuspegi horrek nahi luke zalantzan ezarri azken urteetan eraikia izan den “eredu positibista” euskal literaturaren garapen historikoaz. Haren eraikitze prozesuak garatu baino lehen badauka barreiatzeko arriskua eta, ondorioz, eboluzio baten orde, inboluzio edo, bederen, gelditze baten kronika egin behar genuke, XXI. mende honen hastapenean.

Euskaldunek buruan duten eta mimatu nahi duten “eredu nazionalak” trabak ekartzen ditu aldaketa horietaz ohartzeko. Aldiz, erdigunetik kanpo dauden euskaldunak, diasporakoek –adibidez, bera bezala Estatu Batuetan bizi direnak– ez dira aurreiritzi hortan giltzaperatuak. Euskal Herrian berean, gure arteko gutiengoak –Joseba Gabilondok emazteak eta homosexualak izendatzen ditu– eredu nazionalaren gainetik pasatzen dira.

Beraz, hiru proposamen nagusi egiten ditu euskal literaturaren aztertzeko molde berritu batez. Lehenik, finkatu berria den periodizazio “kontsentsuala” aldatzea eskatzen du. Harek dionez, aro berri bat abiatua da eta historiari buruzko gogoeta berriz egitekoa da egoera berriaren argitan. Bigarrenik, Euskal Herrian anitz sailetan erabiltzen den eredu nazionala alde batera utzi behar da haren ustez, aro berri hori post-nazionala eta mestizatua izanen baita. Hirugarrenik, Euskal Herriko gutiengoak kontutan hartzea gomendatzen du, dakarten ikuspegia berritzailea baita, aro berriari egokituak. Ez da dudarik proposamen horiek eztabaidan jartzen dutela gorago aipatu den “eredu berritua”.

Konklusioa

Bilduma bat egitekotan erran daiteke XXI. mendearen hastapenean, Euskal literaturaren historiaz eredu “erabilgarri” bat badugula eskutan. Ikuspegi teorikoaren aldetik eguneratua da. Bestalde, azken urte hauetan molde berezi batez, irakaskuntzarako egokitua izan da metodologia mailan. Gainera, eredu bateratua da. Iparraldean eta Hegoaldean molde berdinez erabilia da eta, forma berean kanpora hedatua.

Eredu berritu horren alde onak eta haren gabeziak lehen baino argiago ikusten ditugu. Haren ebaluaketa kritikoa, historiografiaren ikuspegitik, berrikitan hasia da. Azken bi kapituluetan aipatu bezala, arazo teoriko eta metodologiko nagusi batzuk agertu dira 2000ko hamarkadan, hala nola kanonari buruzkoak edo korpus literarioaren baitako desoreka diakronikoak ondorioztatzen dituenak. Galde horiek trenkatzekoak dira oraindik. Halere, ondo inguratuak dira eta aterabide baten mentura badute, haien lantzeko behar diren konzeptuak egungo historialariek jadanik menean dituztelako.

Bizkitartean, badira oraindik, zalantza itsuagoan dauden gai batzuk. Horien artean, Txuma Lasagabasterrek historiografiaz aurkeztu zuen egitarautik garrantzi handiko bi puntu kasik ukitu gabe gelditu dira. Denbora edo atzerapen eskasez, aipatzen zituen Euskal Herriaren baitako aniztasun linguistikoa eta kulturala ez dira behar bezala landu. Ez dakigu xuxen zer ondorio duten euskarazko sorkuntzan. Haien lantzeko, tresna teoriko batzu behar genituzke sortu eta lan hartarik, euskarazko sorkuntza hobeki ulert genezake, diakronian sinkronian bezainbat. Barne konparatismo horren ikertzeko protokoloak oraindik falta zaizkigu.

Halere, eremu historiografiko berri horietan, lan aurrekari batzuk izan dira. Lehen bidea, konparatismoarena izan da. XX. mende erditik hona, argi dago hemengo idazle eta historialari gehientzat euskaldunak ez direla uharte batean edo zitadela batean⁽¹⁷²⁾ bizi bainan munduaren erdian, beste europarrak bezala. Literatura mailan beste eremuetan bezala kanpotik heldu den eragina lanean ari da euskal eremuan. Fun-tsezko jarrera da kritika mailan. Haren erabilera aurki daiteke I. Aldekoaren *Mendebaldea eta narraziogintza* edo M. J. Olaziregiren *Ramon Saizarbitoriaren unibertso literarioan*.

Bi liburu horietan, narratiba mailan hemengo idazleek hartu dituzten bideak sistematikoki parezkutzen eta gurutzatzen dira Europako eta mundu zabaleko obra eta –lehenago nahiz oraiko– idazle nagusiekin: Scott, Dumas, Tchékov, Joyce, Beckett, Faulkner, Sarraute, Simon, etb. Literatura erkatuaren oinarritzko lana da bertako obra eta idazleen iturri eta eragin bilaketa hori.

Dudarik gabe, konparatismo horrek ondorio onak baditu literaturaren historia mailan, ikuspegi diakronikoa eta garai bakoitzeko harreman sareak lantzean, euskal literaturaren perspektiba sinkronikoa aberasten baitu. Denbora berean, hemengo bi hizkuntza garatuen eragina ongi erakusten digu, haien bitartez baitira sartu kanpoko obra berritzaileak.

Epe luzerako landu beharra den bigarren gaia, soziolinguistikaren arlotik iragaiten da literaturaren eremura. Hizkuntzaren problematikak sorkuntzaren gainean duen eragina du argitan ezartzen. Gaia oso guti landua izan da mementoko euskal kritikarien artean. Salbuespenen artean, J. Kortazar ikerlearen liburu bat⁽¹⁷³⁾ aipatu behar da. A. Figuerok⁽¹⁷⁴⁾ eta Montpellier-ko Unibertsitatean R. Lafon-en inguruan ari izan diren Ph. Gardy⁽¹⁷⁵⁾ bezalako ikerlariek egin dituzten lanetan oina-

(172) XIX. mende ondarrean edo XX. mende hastapenean aintzek uste zuten bezala. Adibidez, ikus Pierre Lhande, 1908, *Autour du foyer basque*, Plon; 1926, *Le Pays basque à vol d'oiseau*, Beauchesne.

(173) Jon Kortazar, 2002, *Diglosia eta euskal literatura*, Utriusque-Vasconiae.

(174) Anton Figuerok, 1988, *Diglosia e Texto*, Xerais.

(175) Philippe Gardy, 1990, *Donner sa langue au diable*, Fédérop.

rriturik, batean aztertu ditu euskarak ezagutzen duen egoera diglosikoa eta gaurko sorkuntzak hartu dituen bideak. Euskararen hautatzeak zenbatetaraino bideratzen ote du idazkera? «Posibleen murrizketa» ekartzen ote du? XX. mende hastapenean, euskal errealismo baten falta bide hortarik argi ote daiteke adibidez? Horrelako galderak erabiltzen ditu J. Kortazarrek liburu hortan.

Nahitez, hizkuntzaren problematika guziz premiatsua izanen da etortzen diren urteetan. Euskara batuaren garatze prozesuarekin, hogei bat urtez, gaia gainditurik bezala egon baita, edo hala zirudien bederen. Bainan, badu zenbait urte idazleak⁽¹⁷⁶⁾ hasi direla hizkuntza ereduaren problematika berritz zalantzan ezartzen. Menturaz, gai hortan, idazleak historialarien aurretik ibiltzen dira, bizpahiru urratsez.

Oro har, biharko edo etziko diruditen gai nagusi horiek, egungo Euskal literaturaren historia berrituaren berridazketa baldintzatuko dute, dudarik gabe.

⁽¹⁷⁶⁾ Ramon Saizarbitoria, Koldo Izagirre, in Hasier Etxeberria, 2002, *Bost idazle*, Alberdania.

Bibliografia

Erreferentzia orakorrak:

- AMALVI, Ch., 1988, *De l'art d'accommoder les héros de l'histoire de France*, Albin Michel.
- ASKOREN ARTEAN, (Robert Escarpit-en zuzendaritzapean), 1970, *Le littéraire et le social*, Flammarion.
- AUERBACH, E. , *Mimésis*, 1946, Gallimard (frantses itzulpena).
- BACKÈS, J. L., 1996, *La littérature européenne*, Belin.
- BALIBAR, R., 1974, *Les français fictifs*, Hachette.
- BARTHES, R., 1971, «Réflexions sur un manuel», *L'enseignement de la littérature*, sous la direction de S. Doubrosky et T. Todorov, Ed. Plon.
- BARTHES, R., 1960, «Histoire ou littérature?» in *Annales*.
- BÉNICHOU, P., 1973, *Le sacre de l'écrivain*, Ed. J. Corti.
- BÉNICHOU, P., 1977, *Le temps des prophètes*, Gallimard.
- BOURDIEU, P., 1993, *Les Règles de l'art*, Seuil.
- CÉSAIRE, A., 1955, *Discours sur le colonialisme*, Présence africaine.
- CÉSAIRE, A., 1956, *Cabier d'un retour au pays natal*, Présence africaine
- CHAMOISEAU, P., 1997, *Ecrire en Pays dominé*, Gallimard.
- CHAMOISEAU, P., CONFIAINT, R., 1999, *Lettres Créoles*, Gallimard.
- CHAKRABARTY, D., 2000, *Provincializing Europe. Postcolonial Thought and Historical Difference*, Princeton University Press; 2009, *Provincialiser l'Europe. La pensée postcoloniale et la différence historique*, Ed. Amsterdam.
- CITRON, S., 1991, *Le mythe national*, Ed. de l'Atelier.
- CURTIUS, E. R., 1956, (frantses itzulpena), *La littérature européenne et le Moyen-âge latin*, PUF.

- DIOP, Ch-A., 1967, *Antériorité des civilisations africaines, mythes ou vérité historique*, Présence africaine, 1967.
- ESCARPIT, R., 1958, *Sociologie de la littérature*, PUF, 1958.
- FANON, F., 1961, *Les damnés de la terre*, Présence africaine.
- FIGUEROA, F., 1988, *Diglosia e Texto*, Xerais.
- GARDY, Ph. 1990, *Donner sa langue au diable*, Fédérop.
- GLISSANT, E., 1981, *Le Discours antillais*, Gallimard.
- GLISSANT, E., 1990, *Poétique de la relation* Gallimard.
- GOLDMANN, L. 1955, *Le Dieu caché*, Gallimard.
- HOBBSAWN, E., 1990, *Nations and nationalism since 1780*.
- JAUSS, H. R., 1978 (frantses itzulpena), «Histoire de la littérature», in *Pour une esthétique de la réception*, Gallimard,
- LANSON, G., 1894, *Histoire de la littérature française*.
- MORETTI, F., 1997, *Atlante del romanzo europeo*, Einaudi; 2000, *Atlas du roman européen*, Seuil.
- MORETTI, F., 2005, *Graphs, maps, Trees*, Verso; 2008, *Graphes, cartes et arbres*, Les prairies ordinaires.
- MUDIMBE, V-Y., 1988, *The invention of Africa*, Indiana University Press.
- SAÏD, Ed., *Orientalisme*, Seuil, 1980.
- SAÏD, Ed., *Culture et impérialisme*, Fayard, 2000.
- SARTRE, J. P., 1947, *Qu'est-ce que la littérature?*, Gallimard.
- SPIVAK, G., 2006, *Les Subalternes peuvent-elles parler?*, Ed. Amsterdam (frantses itzulpena).
- THIBAUDET, A., 1936, *Histoire de la littérature française*.
- THIESSE, A-M., 1999, *La création des identités nationales*.
- VERCIER. B., VIART, D., 2005, *La littérature française au présent*, Bordas.

Euskal literaturaren historia:

- ALDEKOA, I., 2004, *Historia de la literatura vasca*, Erein.
- ALDEKOA, I., 2008, *Euskal literaturaren historia*, Erein.

- ALONSO AMEZUA I., 2008, *Euskal literatur sistema eta literaturaren didaktika aztergai*, Labayru,.
- ALONSO AMEZUA I., 2010, *Erdigune literarioak irakaskuntzan*, EHU.
- APALATEGI U., 2000, *La naissance de l'écrivain basque*, L'Harmattan.
- ARIZTIMUÑO, J., «Aitzol», “Kazetaritza lanak”, *Literatura inguruan* (edizioa, askoren artean), Ed. Erein, 1986.
- ASKOREN ARTEAN (M. J. Olaziregi-ren zuzendaritzapean), *Basqueliterature.com*, *Euskal literaturaren ataria* (Euskal literaturaren historia).
- ASKOREN ARTEAN (Jon Kortazar-ren zuzendaritzapean), 2009, *Eguno euskal poesiaren historia*, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- ASKOREN ARTEAN (Iratxe Retolaza-ren zuzendaritzapean), 2007, *Eguno euskal eleberraren historia*, Euskal Herriko Unibertsitatea
- AZKUE, R. M., 1935-1945, *Euskalerraren yakintza*, Madrid.
- AZURMENDI J., 1976, Zer dugu ORIXEren kontra?, Jakin; 1977, Zer dugu ORIXEren alde?, Jakin.
- CASENAVE, J., 2002, «Du mauvais sujet au mythe littéraire», *Lapurdum VII*.
- CASENAVE, J., 2008, «Pierre Lhande eta euskal literaturaren historia», in *Jean Haritchelbar-i omenaldia*, *Iker 21*, Ed. Euskaltzaindia.
- CERQUAND, J. F., 1876-1877, *Légendes et Récits populaires du Pays basque*, Pau.
- ETXANIZ, X., 1997, *Euskal haur eta gazte literatura*, Pamiela.
- ETXANIZ, X., LOPEZ GASENI, M., 2005, *90eko hamarkadako haur eta gazte literatura*, *Utriusque Vasconiae*.
- ETXEBARRIA, H., 2002, *Bost idazle*, Alberdania.
- FRANCISQUE-MICHEL, F-X., 1857, *Le Pays basque*, Didot.
- GABILONDO, J., 2003, «Euskal literatura modernoaren sorrera postkoloniala eta gaiak Anton Abbadieren ekarpena birpentsatuz.», in *Euskal gramatika eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian IKER -14 (II)*, *P. Laffitteren sortzearen mendemugako biltzarra*, Ed. Euskaltzaindia.
- GABILONDO, J., 2004, *Nazioaren Hondarrak*, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- GARATE, G., 1983-1985, *Euskal eleberraren kondaira*, Gotzon Garate, Mensajero.

- GOYHENETCHE, M., 1993, «Les origines sociales de l'association Eskualzaleen Biltzarra (1893-1913)», *Bulletin du Musée basque*.
- HARITSCHELHAR, J., 1969, *Le poète Pierre-Topet-Etchabun. Contribution à l'étude de la poésie populaire basque du XIXe siècle*, Ed. Musée basque.
- HARITSCHELHAR, J., 1970, *L'Oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchabun*, Euskaltzaindia.
- HERNANEZ ABAITUA, M., 2008, *Ramon Saizarbitoria, lehen eleberrigintza*, Ed. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- IZAGIRRE, K., MENDIGUREN, X., 1998, *Euskal Literaturaren historia*, Elkarlanean.
- IZTUETA, P., 2002, *Kritika literarioaren lehen saioak, (1926-1936)*, Ed. Utriusque Vasconiae.
- IZTUETA, P., 2005, *Euskal idazleen belaunaldiez*, Utriusque Vasconiae.
- JUARISTI, J., 1987, *Literatura vasca*, Taurus.
- JUARISTI, J., 1987, *El linaje de Aitor*, Taurus.
- JUARISTI, J., 1997, *El bucle melancólico*, Espasa.
- KINTANA J., 2002, *Vizcaytik Bizkaira?*, Euskaltzaindia-BBK.
- KINTANA J., 2008, *Intelektuala nazioa eraikitzen, R.M.Azkue pentsaera eta obra*, Iker 22, Euskaltzaindia.
- KINTANA J., 2009, *Urre urdinaren lurrina*, Pamiela.
- KORTAZAR, J., 1990, *Literatura vasca. Siglo XX*, Mensajero.
- KORTAZAR, J., 1997, *Luma eta lurra*, Labayru.
- KORTAZAR, J., 2002, *Diglosia eta euskal literatura*, Utriusque Vasconiae.
- KORTAZAR, J., 2003, *XX. Mendeko euskal literatura*, Prades.
- LABORDE, D., 2005, *La Mémoire et l'instant*, Elkar.
- LAFITTE, P., *Euskal literaturaren lorategia*, Lasserre.
- LAFITTE, P., 1941, *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*, Le Livre.
- LANDA, J., 1983, *Gerraondoko poesiaren historia*, Elkar-AEK.
- LASAGABASTER, Tx., 1983, *Las literaturas de los vascos*, Deustoko Unibertsitatea.

- LEKUONA, M., 1935, *Literatura oral euskérica*, Donostia.
- LEKUONA, J. M., 1982, *Abozko literatura*, Erein.
- LHANDE, P., 1923, «Le barde Etchaoun», *Gure Herria*, 1923.
- LHANDE, P., 1925, *Le Pays basque à vol d'oiseau*, Beauchesne.
- LHANDE, P., LARRASQUET, J., *Le poète Pierre Topet dit Etchabun et ses œuvres*, Ed. Euskalzaleen biltzarra, 1946.
- LOPEZ GASENI, M., 2000, *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura*, EHU.
- LOPEZ GASENI, M., 2005, *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan*, Utriusque Vasconiae.
- MITXELENA, K., 1960, *Historia de la literatura vasca*. Minotauro.
- MITXELENA, K., 1981, «Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak», *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustoko Unibertsitatea.
- MUJICA, L. M., 1979, *Historia de la literatura euskerika*, Kriseilu.
- OLAZIREGI, M. J., 2002, *Euskal eleberraren historia*, Labayru.
- ONAINDIA, S., 1972-1990, *Euskal literaturaren historia*, Etor.
- «ORIXE», ORMAETXEA, N., *Euskal literaturaren historia laburra*, Utriusque Vasconiae, 2002, Paulo Iztuetaren edizioa.
- ORPUSTAN, J-B., 1996, *Précis de littérature basque*, Izpegi.
- OTEGI, K., 1976, *Pertsonaia euskal nobelagintzan*, Gero.
- RETOLAZA I., 2000, *90eko hamarkadako narratiba berria: Literatur kritika*, Ed. Labayru.
- SALABERRI MUÑOIA, P., 2000, *Iraupena eta lekukotasuna*, Elkar.
- SARASOLA, I., 1971, *Euskal literaturaren historia*, Lur.
- SARASOLA, I., 1975, *Euskal literatura numerotan*, Lur.
- SAIZARBITORIA, R., 1999, *Aberriaren alde (eta kontra)*, Alberdania.
- TORREALDAI, J. M., 1977, *Euskal idazleak gaur*, Jakin.
- TORREALDAI, J. M. 1997, *Euskal kultura gaur*, Jakin.
- TORREALDAI J. M., 2007, *30 urte liburugintzan*, Jakin.,
- TORREALDAI J. M., 2010, «Euskal liburugintza 2008», *Jakin* 176.
- URKIZU, P., 1975, *Euskal teatroaren historia*, Kriselu.

URKIZU, P., (zuzendari: askoren artean), 2000, *Historia de la literatura vasca*, UNED.

URKIZU, P., 2006, *Agusti Chaboren kantutegia*, Ed. Susa.

VILLASANTE, L., 1961, *Historia de la literatura vasca*, Sendo.

VINSON, J., 1882, *Les Basques et le Pays basque*, Cerf.

WEBSTER, W., 1877, *Basque legends*, Londres.

ZALBIDE, M., 2003, «Hendaia-Hondarribietako biltzarrak: XX.mende-ko hizkuntza plangintzaren iturburu», in Zenbati egile, *Eskualzaleen Biltzarraren mendeurrena*, Sabino Arana Kultur Elkargoa.

ZALDUA, I., 2002, *Obabako tranbia*, Alberdania.

Index

Abbadie (d'): 19, 38, 70.

Adéma Gratien «Zalduby»: 24.

Agirre Txomin: 27, 28, 29, 38, 52, 53.

Aldekoa Iñaki: 50, 53, 54, 55, 57, 65, 68.

Alonso Idurre: 59.

Alonso Jon: 51, 64.

Altzibar: 50.

Ampère: 20.

Apalategi: 50, 52, 53.

Apesteguy: 38.

Arana: 47.

Arana-Goiri: 29, 31.

Arbelbide: 30, 32.

Archu: 19.

Aresti: 52, 57, 68.

Argaiñaratz: 33.

Ariztimuño “Aitzol”: 34.

Arkotxa: 50.

Arrue: 28.

Astarloa: 42.
Atxaga: 51, 52, 53, 64, 70.
Auerbach: 11.
Axular: 16, 18, 22, 28, 29, 30, 32, 33, 42.
Azkue: 28, 29, 33, 38, 48.
Azpilcueta: 31.
Azurmendi: 48, 51.
Bakthine: 48.
Barbier: 29.
Baroja Pio: 38.
Barthes: 7, 10, 26, 42.
Belzunce: 18, 19.
Birgilio: 19.
Bladé: 19.
Bonaparte: 37.
Bopp: 11.
Borda Itxaro: 70.
Bordachar: 19.
Bossuet: 20.
Boucher de Perthes: 19.
Campion: 31, 38.
Camoussarry: 18, 19.
Camus: 61.
Cerquand: 22.
Cervantes: 20.
Césaire: 12, 69.
Chaho: 17,19, 24, 27,70.
Chamoiseau: 12, 69.
Cheik Anta Diop: 12.
Cid: 43.
Confiant: 12, 69.
Cortazar Nicolas: 42.

Curtius: 11, 29.
Daranatz: 30.
Dargaignaratz: 30.
Darrigol: 19, 40.
Darwin: 26.
Dechepare: 16, 18.
Dibildos: 38.
D'Iharce de Bidassouet: 40.
Dodgson: 40.
Duhalde: 30.
Duvergier de Hauranne: 31.
Duvoisin: 19, 30, 31, 38.
Eguiateguy: 19.
Eleizalde: 29, 38.
Elissague: 38.
Elizanburu.: 24, 28, 42, 49.
Escarpit: 43.
Erdozaintzi-Etxart: 52.
Etcheverry: 19.
Etxahun-Barkoxe: 19, 27, 28, 32, 40, 42.
Etxaide: 41,42.
Etxaniz: 41.
Etxaniz: 41, 45, 46, 54.
Etxeberri Sarakoa: 32, 33.
Etxeberri Ziburukoa: 30.
Etxepare Bernat: 33, 42, 68.
Etxepare Jean: 32, 33, 34, 52, 53, 68.
Eys Van: 38.
Fanon: 12.
Fauriel: 20, 21.
Foucault: 52.

France (de): 20.
Francisque Michel: 8, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 24, 27, 38.
Fustel de Coulanges N.: 25.
Gabilondo: 70, 71.
Garate: 45, 50.
Garay de Monclave: 17.
Ginguené: 20, 21.
Glissant: 12, 69.
Goethe: 11, 31.
Goldmann: 43.
Goyhenetche: 48.
Grimm: 11, 20.
Haranburu: 30.
Haraneder: 30.
Haritschelhar: 32, 40, 50.
Harriet: 19.
Herder: 11.
Hernandez: 52, 53.
Hiriart-Urruty: 31, 32.
Hirigaray: 63.
Hiribarren: 18.
Hobsbawm: 10.
Homero: 11, 19.
Horazio: 19.
Huarte (de): 31.
Hugo: 6, 9.
Humboldt: 40.
Ibsen: 24.
Inchauspe: 19, 38.
Irigaray Aingeru: 41.
Irigoyen Guillaume: 63.
Irigoyen Mattin: 63

Izagirre: 51, 55.

Iztueta: 16, 28, 29, 36, 50, 54.

Jauss: 10.

Joanategi: 28.

Juaristi: 45, 47, 50, 69, 70.

Kardaberaz: 31.

Kintana Jurgi: 48.

Kortazar Jon: 45, 46, 50, 54, 55, 57, 68.

Laborde: 46.

Lafitte: 14, 17, 19, 23, 28, 30, 31, 32, 33, 41.

La Fontaine (de): 8.

Lamarque: 38.

Lamartine (de): 6.

Landa: 45.

Landart: 63.

Langlois: 9.

Lanson: 9, 26.

Laphitz: 32.

Laphitzondo: 19.

Lardizabal: 28.

Larramendi: 28.or., 29, 31, 42.

Larrasquet: 40.

Larreguy: 30.

Larzabal: 63.

Lasagabaster: 3, 35, 36, 43, 50, 53, 54, 55.

Lauaxeta: 34, 52, 53.

Lavisse E.: 25.

Leizaola Jesus Mari: 41.

Leizarraga: 30, 42.

Lekuona: 45, 46, 50.

Lertxundi: 51, 64.

Lhande: 14, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 31, 32, 33, 38, 40.
Lizardi: 34, 49, 52, 53.
Lopez Gaseni: 46, 54.
Loti: 38.
Lukacs: 42.
Luku: 63.
Marot: 20.
Materre: 30.
Mendiburu: 28, 30, 31, 42.
Mendiguren: 55.
Michelet: 25.
Mirande: 57, 68.
Mitxelena: 2,13, 14, 28,32, 35, 36, 37, 38, 39, 40, 42, 44, 45, 46, 47,
49, 51, 53, 55, 56, 59, 62, 65.
Mogel Juan Antonio: 28, 37, 42, 47, 49, 53.
Monho: 32, 49.
Monzon: 63.
Moretti: 13.
Mujika: 45.
Napoléon: 7, 49, 66.
Nerval (de): 20.
Oihenart: 16, 18, 20, 21, 31, 49, 68.
Olaziregi: 46, 50, 53, 54, 57, 68.
Onaindia: 39, 40, 41, 53.
Oñederra: 70.
Ormaetxea «Orixe»: 14, 23, 28, 29, 30, 31, 32, 34, 36, 38, 48, 52.
Orpustan J. B.: 36, 45, 48, 49, 65, 66.
Ossian: 19.
Otaegi: 50.
Otaño: 34.
Otegi: 50, 51, 53.

Ozanam: 20.
Pétrarque: 20.
Pouvreau: 30.
Quinet: 25.
Rabelais: 48.
Racine: 43.
Renan: 25.
Retolaza: 54.
Rousseau: 9.
Saïd: 12, 71.
Saint-Pierre: 14, 30.
Sainte Beuve: 25.
Saizarbitoria: 47, 51, 52, 64, 68.
Salaberri: 54.
Sales (de): 20, 30.
San Martin: 41.
Sarasola: 31, 42, 43, 45, 46, 47, 48, 51, 52, 53, 56, 61, 65, 66.
Sarrionaindia: 51.
Sartre: 10, 42, 61.
Schuchardt: 38.
Sebillot: 22.
Seignebos: 9.
Senghor: 69.
Shakespeare: 20, 31.
Spitzer: 11, 42.
Spivak: 71.
Staël: 9, 20, 21.
Starobinski: 26.
Taine: 8, 24, 25, 26, 27.
Thibaudet: 9.
Thiesse: 10.
Toledo: 50, 52.

Torrealdai: 4, 31, 42, 43, 44, 45, 51, 53, 56.
Txillardegi: 37, 57, 62, 68.
Unamuno: 31, 47.
Urkizu: 42, 45, 51, 54.
Urkixo: 27, 33, 34, 54.
Valéry: 42.
Verlaine: 28.
Villasante: 39, 40, 53.
Vinson: 14, 15, 21, 22, 23, 24, 25, 27, 31, 33, 38.
Virgilio: 29, 34.
Voltaire: 9.
Wagner: 11.
Webster: 22.
Xaho (Ik. Chaho): 19, 20, 22, 29, 33, 93.
Zabala: 28.
Zaitegi: 34.
Zalbide: 48.
Zaldua: 51, 64.
Zavala 41.
Zelaieta: 50.

